

## Automobil erakustaldi polita

Lehen aldiz egin da Arrasaten | 24



Jaguar deskapotablea. | J. ARANTZABAL

San Martzial arratsaldea euripean baina alai pasa dute kuadrillek | 12



Autobideko lanek Antzuolako errepidean eragin dute | 5



Bi mila lagun batu dira Arrasaten Errozio Eguna ospatzeko | 29



Umeen euskal dantza emanaldia, zapatuan Elgetan.

## Aste bukaera guztia, jaien erritmora

Eguraldiak gehiegi lagundu ez duen arren, elgetarrak ez dira etxean geratu eta jaiak algaraz kalean ospatu dituzte | 14

IMANOL SORIANO

# Etxetresnengatik "ez da nahikoa eskaintzen", dio administratzaileak

Fagor Etxetresnen konkurtso-administratzailearen iritziz, aurkeztu diren sei eskaintzetako bat ere "ez da nahikoa" eta gehiago balio dute enpresaren aktiboek. Eskaintzak hobetzeko epea ireki du epaileak, eta litekeena da nobedadeak egotea. | 7



Gizaprobak, euripean. | IMANOL GALLEGO

## Asteburua bete-betean gozatuta, sanmartinei gaur esango diete agur

Aste bukaeraz gozatu dute aramioarrek, eta gaur jakingo da parrandazale onenaren izena | 13

☎ 943 71 48 45

**Hemen**  
GARBIKETAK

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

**Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:**

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroledegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)



# Euskara, integratuziorako tresna Osintxun

- ▶ Herrigunean bizi diren hirutik bat etorkinak dira, eta horietatik asko dira euskaraz berba egiten dutenak
- ▶ Auzotarrak eskertuta daude ahaleginagatik, eta etorkinak pozik, euskarak atek irekitzen dizkielako



Jatorri afrikarreko osintxuarrak, plazan. | JULEN IRIONDO

JULEN IRIONDO | BERGARA

"Alemaniarrak, txiletarrak, pakistandarrak, marokkoarrak, argentinarrik, portugaldarrak..."; Osintxuk nongo bizilagunak dituen galdetuta, auzokoa den Erik Cuevasek egin digun zerrenda da. Guztira 500 eskas izan, eta 97 dira, erroldaren arabera, etorkinak; proportzioa are gehiago handitzen da, Osintxun, kalean bizi direnak bakarrik kontuan hartuz gero.

Eta zerrenda horretan daude, baita ere, senegambiarrik –eurei hala gustatzen zaie esatea, Senegal eta Gambia herri bera omen ziren-eta garai batean-. Senegambiar horietako bat da Saliu Coma, Euskal Herrira 2008an iritsitakoa, azken bost urtean Osintxun bizi dena –aurrez Angiozarren egin zituen sei hilabete-. "Osintxuarra eta euskalduna, afrikar euskalduna" dela dio. Euskalduna da, bai, euskal hiztuna.

## Azterlanaren ondorioak

Dagoen etorkin kopuru handia kontuan hartuta, Osintxun ekimen bat jarri dute martxan, auzoan bizi diren guztiek elkar ezagutu dezaten errazteko, elkarbizitza lantzeko. Aniztasuna ezaugarri duen taldetxoak sortu, eta ekintza-plana prestatu dute, elkarren artean azterlan bat egin eta gero:

"Gauza batek asko harritu bagaitu, izan da euskararen kontuak. Bileretan galdetzen zenuen, jatorri oso desberdinetako jendea egonda, ea nork ez zekien euskaraz, eta agian bakarria zegoen. Ikusten da, jendea hona datorrenean, eta baita herritarren harre-

ragatik ere, beraiek jarrera hori hartzen dutela"; euskara ikastekoa, alegia, Bergarako Udaleko Ongizate saileko teknikari Idurre Amozarrainek dioenez.

Saliu Comak euskara eta gaztelera "gauza bera" zirela uste zuten hona iristean; laster jabetu

zen ezetz, "euskara hizkuntza berezia dela".

"Jendearekin hartu-eman errazteko, pentsatu nuen euskaltegian hastea. Lehenengo urtean saiatu nintzen egunero euskaltegira joaten, eta lortu nuen euskara ikastea, baita kalean jen-

dearekin hitz eginez ere. Gero, erdaraz ere ikasi dut. Baina gaur egun, jendeak euskaraz egiten du berba nirekin askotan, eta nik ere ohitura dut beti euskaraz egiteko. Asko maite dut euskaraz berba egitea"; hala dio.

Eta horrek lagundu du kanpotik etorritakoen eta bertakoen arteko harremanean, Erik Cuevasen arabera: "Saliu etorri zenean, adibidez, hasieratik kalean euskaraz, eta horrek asko errazten ditu gauzak". Eta Saliu ez da, esan bezala, salbuespena: "Nire bizilagunak ez daki euskaraz, baina beti euskaraz egiten dit: 'Kaixo', 'Agur'... Ez jakinda ere...", jarrera baikorra.

Azkenean, "ikusten dutena, entzuten dutena" egiten dutela dio Cuevasek: "Osintxun euskaraz nahikotxo entzuten da; adin bateko mutikoak daude erdaraz asko egiten dutenak, baina 5-8 urteko mutiko denek, kanpokoek eta bertakoek, euskaraz egiten dute; gazteok ere euskaraz egiten dugu. Beraz, eurek ere, etortzen direnean, esaten dute: 'Hemen Osintxun, lagunak egiteko, onena euskara da'".

Eta horretaz ohartuta, haien jarrerak pozten ditu bertakoak: "Ikusteak kanpoko batek nola egiten duen bultzatzen zure hizkuntzagatik...", dio osintxuarrak –beti-



**BABU NDONG**  
SENEGAMBIA / OSINTXU

"Sei hilabete daramatzat Euskal Herrian, bizitza hobeari bila etorrita. Lauzpabost hizkuntza egiten ditut. Euskara hobeto ulertu nahi dut. Saiatzen gara goazen leku horretako hizkuntza ikasten, jendearekin komunikatzeko. Bizitzako gauza garrantzitsua da. Zoazen lekura joanda, bertakoekin ondo bizitzeko, eurak bizi diren moduan bizi behar duzu eta, horretarako, hizkuntza ezinbestekoa da".



**MOHAMED MEJAHED**  
MAROKKO / OSINTXU

"Apirilean iritsi nintzen Osintxura, eta oso gustura nago hemen. Euskara ikasten ere ari naiz; iruditzen zait garrantzitsua dela bizileku duzun herriko hizkuntza jakitea. Euskaltegira joaten naiz, astean ordubetez. Gutxi da, baina Erik lagunaren futbol taldera ere gonbidatu naute, eta haiekin taldean egoteak ere lagunduko dit zentzu horretan. Osintxuren egoera hobetzen laguntzeko prest nago".



**SULEIMAN TOURE**  
SENEGAMBIA / OSINTXU

"Zazpi hizkuntza egiten ditut. Guretzat garrantzitsua da hizkuntzak jakitea, bidaiariak gara-eta. Beste herrialde batera iristean, hango hizkuntza ikasi behar da apur bat. Ez da zaila hizkuntzak ikastea, gogoia edukiz gero. Bi urte daramatzat hemen, eta HHIn ari naiz ikasten. Euskara, baina, lagunekin berba eginez ari naiz ikasten, poliki-poliki. Nahi nuke ondo ikastea; hemen oso jende ona dago, inon ezagutu dudana onena".



Oñati gestio  
heziketa

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

**Matrikula**

uztailaren 9tik 16ra



## Eskaintza akademikoa

### Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

### MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[info.enpresagintza@mondragon.edu](mailto:info.enpresagintza@mondragon.edu)

943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgpe@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgpe@mondragon.edu)

943 73 97 65





## Hizkuntzaker kontuan, elkarbizitzarako ekimenean

Kanpotik etorritako pertsonak auzoan asko zirela-eta, egoera berria ondo kudeatu nahian, Bergarako Udalerak jo zuen Osintxuko Herri Batzarrak. Emunekin batera koordinatuta, parte-hartze prozesua prestatu zuten, eta bilerak egin dituzte jatorriz bertako zein kanpoko osintxuarrekin, denek batera. Hortik sortu da taldetxo bat, eta ekintza-plan bat, helburu izango dutenak auzotar guztien arteko elkar-egaztuta hobea eta elkarbizitza.

Antolatu dituzte, besteak beste, bateko eta besteko kultura adierazpen saioak, eta tartean garrantzia emango diete hizkuntzei ere; honela, asmoa



Ekimenaren aurkezpenean parte hartu zutenak. | J.J.

daukate, adibidez, antolatzeko Berbalagun moduko ekimen bat, euskaldun zaharrak eta ikasten ari direnak batu eta ikasten ari

direna praktikan jar dezaten: "Jendea prest dago parte hartzeko", zioen Herri Batzarreko Aitziber Alberdik.

AINARA ALDAZABAL | EMUN

## "Osintxun, etorri berriak sentitzen du auzoko bizitzarako giltza dela euskara"

Emun Kooperatiba da elkarbizitzarako Osintxun duten ekimenean diharduten eragileetako bat.

**Baiezatu daiteke euskara integratzaile tresna dela Osintxun, ezta?**

Osintxun jatorri aniztasuna hain handia izanik, argi dago horrenbeste kultura, bizi izateko kode, erlijioaren artean, euskarak eta euskal kulturak jatorri ezberdinekoen arteko zubi-lana egin dezaketela eta egiten dutela. Osintxun, bertako komunitatea euskaraz bizi da nagusiki, horrela transmititzen dute, eta etorri berriak sentitzen du euskara auzoko bizitzarako giltza dela.

**Baita gaztelera euren hizkuntza duten etorkinek ere.**

Osintxun duela sei urtetik bizi den argentinarraren mutilak euskaraz ikasi du; madrildarra den beste gizon batek ere bai, eta auzotarrei eskatzen die berari euskaraz egiteko. Egia da gaztelaniak jakinda komunikatzeko tresna badutela; oinarritzko komunikazioa bermatzen die horrek, eta ikuspegi instrumentaletik nahikoa izan daiteke. Baina Osintxu bezalako auzo euskaldunetan, badakite gaztelaniarekin ezin direla nagusiki euskaraz den auzo-bizitzan integratu.

**Etorkinen jarrera eta bertakoena, biak dira, beraz, garrantzitsuak.**

Osintxuarrek euskara euren hizkuntza natural moduan erabiltzen dute. Komunitatea euskalduna izanik eta kanpotik datozeinei euskara naturaltasunez, bertako hizkuntza bezala, agertzen zaienean, eta gainera erraztasunak eskaintzen zaizkienean –Auzoko programa edo Berbalaguna, adibidez–, etorri berriak ulertzen dute euskarara hurbilduta auzotarren munduan sartzen direla, auzotarrak baloratu egiten direla eta berari mundu oso bat zabalitzen zaiola.

**Hala ere, orokorrean, ohikoa da etorkinei lehen hitza erdaraz egitea. Zergatik gertatzen da?**

Portaera hori ikasi egin dugu gure aurrekoengandik eta oso barneratuta daukagu: ezezagunaren aurrean gaztelaniara pasatzea, etorkinaren aurrean, leku berri batera goazenean, azkar pasatzen gara gaztelaniara euskara albo batera utzita. Badu azalpena; urte batzuk atzera eginez gero, euskaraz egitearen zigorra oso esplizitua zen. Gaur egun, sotilagoa da zigorra, baina horrek guztiak euskaldunon portaera eragiten du; esan dezakegu, euskararekiko gure portaera aztertuz, menpeko linguistikoak garela. Portaera aldatu beharra dugu, euskaraz natural-



J.J.

tasunez, eroso, lasai biziz, eta aurrean daukagun ezezagun edo etorkinari lehen hitza euskaraz eginez, horrela euskara beretzako ere badela esaten ari baikara. Hori lantzen dugu Emun Kooperatibako hausnarketan saioetan, ETM! eta TELP tailerretan, adibidez.

**"Etorkinak ahalegina egitea baloratu egin behar dugu, eta hala demostratu"**

**Etorkina euskaraz saiatu, baina zailtasunak ikusita gure erdarara jotzea ere sarri gertatzen da; akatsa.**

Euskaraz egiten saiatzen ari dena, ahalegina egiten ari da; aurretik, ikasteko ahalegina egin du, eta pertsona horrek euskaraz egiteko espazio oso gutxi izango ditu ziurrenik. Euskaraz egiteko espazioak irabazi egin behar ditu. Bera bere aldetik saiakera egiten ari bada, hori baloratu egin behar dugu eta ahalegin horretan lagundu. Ahalegina egitea baloratu egin behar dugu, eta baloratzen dugula erakutsi, aldi berean, bere motibazioa indartuz. Euskaraz egiteko espazioak eskaintzen lagundu behar diogu.

danik bertako izan denak–; ulergarria, Saliu Comarentzat: "Normala da; adibidez, hemendik joango balitzateke baten bat Senegambiarra eta ikasiko balu gure hizkuntza, gu ere poztuko ginateke. Horregatik esaten diet kanpotik datozen lagunei euskara ikas dezaten".

Euskara gaztelera baino zailagoa zela uste eta, ikastea beharrezko zuelakoan, hartatik eman zion lehentasuna Comak euskarari. Eta hizkuntza bat gehiago, ze zortzitan bada moldatzeko gauza: "Guk badugu gaitasuna, Afrikan ere hizkuntza ugari hitz egiten ditugulako. Afrikan askok dakizkigu hango bizpahiru hiz-

kuntza". Alemanierarekin ari da orain, baina euskara hobetzeko uko egin gabe; ipuinak eta liburuak omen ditu etxean: "Askotan irakurtzen dut euskaraz".

**"Jendea baldin baduzu..."**

Argi dago; Osintxun, Osintxun behintzat bai, euskara integratzaile tresna da: "Afrikako bat etortzen zaizu euskaraz, eta berekin berbetan geratzeko beste zerbaite ematen dizu". "Lau aldiz errepikatu behar badiot ere, berdin dit", gehitzen du Cuevasek.

Eta –besteak beste– hizkuntza bidezko integrazio honek, zeharkako beste hainbat onura ere baditu, aipatzen ari garen zuzenekoek gaiz, guztientzat: "Beste kultura batetik asko ikasten da. Lagunak irabazi, eta herriari bizitza ematen dio: integratzen badira, jendea ez da joango Sorailuzera edo Bergarara".

Osintxuarrak, Osintxun; Saliu Coma ere bai: "Ni osintxuarrarena naiz, bai. Eta euskalduna, afrikan euskalduna. Europan Euskal Herria bakarrik ezagutzen dut, eta euskaldunak. Ikusi dut nola bizi diren, eta gustatzen zait. Uste dut bertan bizi izateko leku aproposa dudala; hemengo jendearekin oso ondo moldatzen naiz, eta hori garrantzitsua da. Jendea baldin baduzu, dena daukazu".

**"Ikustea kanpokoek nola egiten duten bultzazure hizkuntzagatik..."**



UNAI CUEVAS | OSINTXUARRA

**"Lehenengo urtean saiatu nintzen egunero euskaltegira joaten"**



SALIU COMA | OSINTXUARRA

Arrasateko hipermerkatua

**EROSKI**

zurekin

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarriak 2014ko uztailaren 9ra arte

harategia

Solomo ontzutu zati xerratua

kiloa  
**5,99€**

frutategia

Nektarina gozoak

kiloa  
**1,45€**

okindegia

Txokolatzeko napolitana, 2 ale

kiloa  
**1,25€**

Alea: 0,63 €



# Arrasate Udazabal'016



**Musika**

*Uztailak 4*

**“Arrasate Musikal Big Band” (Euskal Herria)**

*22:30 Monterron parkean*



**Magia**

*Uztailak 11*

**Jon Zabal (Euskal Herria)**

*20:00 Seber Altube plazan*



**Zirkoa**

*Uztailak 13*

**The Funes Troup (Euskal Herria)**

*20:00 Seber Altube plazan*



**Musika**

*Uztailak 19*

**Rafael Lechowski Jazz  
laukotearekin + Pobresiak  
(Poesia musikatua)**

*22:30 Monterron parkean*



**Zirkoa**

*Uztailak 20*

**Malas compañías (Euskal Herria)**

*20:00 Seber Altube plazan*



**Dantza**

*Uztailak 25*

**Warszawianka (Polonia)**

*22:30 Monterron parkean Folklore jaialdia*



**Dantza**

*Uztailak 27*

**Kukai dantza taldea (Euskal Herria)**

*20:00 Herriko plazan*

**Auzoetako jaiak  
uztailean zehar**

18-20 **Santa Marina**  
22 **Maalako Arrabala**  
26 **Ferrerias**  
31 **Kanpanzar**



ARRASATEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



# Beasain-Bergara autobide berriaren lanek errepide zaharrearain eragin dute

Errepide zaharraren trazatua moldatzea eta paisaiaren eraldaketa ekarri dute autobide berria eraikitze lanek

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Deskarga eta Antzuola arteko Gipuzkoa-632 errepide zatian aldaketak eragin dituzte Beasain eta Bergara lotuko dituen autobide zatia eraikitze lanek. Alde batetik, paisaia erabat aldatu da eta bestetik, autobide berria egiteko lanek errepide zaharraren (GI-632) trazatua aldatzea ekarri dute puntu baten.

Deskarga gainetik Bergarara arteko (San Migel tunelera arte) errepide zatian, besteak beste, tunel bat eta bost zubibide eraiki dituzte. Tunela Deskarga gainean egingo dute, Antzuolako bide zaharraren eta berriaren arteko lotunetik gertu. Handik Bergarara arteko GI-632 errepidean, esandako moduan, bost zubibide (Ipurtika, Antigua, Lapatza, Antzuola eta Igeribarrerota) eraiki dituzte. Hori egiteko lanek zeharo aldatu dute hango paisaia eta ez hori bakarrik, izan ere, zubibide horietako bi, Lapatza eta Igeribarrerota, errepide zaharraren gain-gainetik igarotzen dira. Lapatza eta Antzuola zubibideak amaituta daude dagoeneko.

## Trazatua aldatuta

Bestetik, Beasain eta Durango lotzen dituen GI-632 errepidearen trazatua aldatu egingo dute, autobide berriaren lanek hala aginduta. Esandako moduan, Deskargako tuneletik metro gutxira egongo da errepide zaharra eta autobidea lotuko dituen biribilgunea, eta horrek Basaldeko bihurtune itxiaren trazatua aldatzea ekarriko du. Lan horiek egiten ari dira une honetan. Hain zuzen ere, biribilgunearekin lotura egiteko, biragunea leuntzen dihardute. Puntu horretan, bestetik, egiten ari diren Beasain-Bergara autobide zatia GI-632 errepide zaharraren gainetik pasatuko da.



Antzuola eta, atzean, autobide berriko lanak. | GARAZI AIELSTA

## Lanak eraikuntza fasean

Aipatu moduan, GI-632 autobide berriko lanak eraikuntza fasean daude une honetan. Urretxu eta Antzuola arteko zatia Bidegi ari da eraikitzen. Lanak 2011ko uztailean hasi ziren eta 2014ko urrian bukatuko da obra zibila. Ondoren egin beharko da instalazioetako obra. Zati horrek 2.800 metro izango ditu, norabide bakoitzean bi errairekin, eta zati horren ezaugarri nagusia da, hain zuzen ere, Deskargako mendatea saihesteko tunela. 708 metro luze da tunel hori.

## Antzuola-Bergara zatia

Antzuola eta Bergara arteko zatia, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundia ari da eraikitzen. Zati horren ezaugarri nagusia da, 4.800 metro luze da eta ezaugarri nagusia aipatutako bost bidezubiak edo biaduktak dira. Antzuolako lotunetik (Deskarga gainean) hasita hiru bidezubi eraiki dira: Ipurtika, Antigua eta Lapatza. Bideak Deskarga ibaia saihestuz jarraituko du eta bi aldiz gurutzatuko du hura, Antzuola eta Igeribarrerota biaduktuen bidez. Zati hori 2015eko apirilean bukatuko da.



Oinetakoak denda kanpoan eta herritarrak begira. | IMANOL SORIANO

## %20tik gorako deskontuekin atara dute kalera eskaintza, Bergaran

M.A. | BERGARA

*Ibili, aurkitu eta gozatu* izenburupean, euren eskaintza kalera atara dute asteburuan Bergarako komertzioek. Bedelkarrek antolatuta urtero data hauetan –beherapenak hastearrekin bat– egiten duten ekintzak herritarrak saltokietara erakartzea du helburu.

Egubakoitzean hasi eta zapatuan bukatu zen ekimena; hala, gura izan zuten komertzioek euren eskaintzak kalera atara

zituzten; azken finean, beherapenak atara zituzten kalera. Orokorrean %20ko eta %30eko deskontuekin hasten dituzte beherapenak eta prezio horretan atara zituzten produktuak kalera. Izan zen, hala ere, prezioa erdira jaitsi zuekin ere.

## Dendariak, pozik

Eguraldiak lagundu egin zuen eta jende dezentente animatu zen produktuak ikusi eta erostera. Beraz, dendariak, pozik.

## AP-1ean, Arrasate eta Bergara artean, zirkulazioa desbideratu egingo da gaurtik egubakoitzera

Gaur, 10:00etan hasiko dira desbideraketak eta egubakoitzean bukatuko dira, 20:00etan. Arrazoia da Arrasateko lotunetik Bergara hegoaldekora arteko zatian zoruaren egitura berritzeko obrak egin behar dituela Bidegi. Eguraldiaren arabera izango da lan egitasmoa, baina asmoa da Gasteiz-Irun noranzkoko galtzada erabat ixtea eta zirkulazioa kontrako noranzkoan barrena desbideratzea, galtzada horretan bi noranzkoko zirkulazioa ezarri.



IRATI GOITIA

## Araozko zabortegia

Zero Zaborrek antolatuta, 23 lagun joan ziren atzo Araotzera, urtetan zehar auzotar zein herritarrek gune baten pilatu izan duten zaborra jasotzera. Botilak, plastikoak, metalezko gauzak, beira asko, erruberak, bateriak, pilak... Guztira lau tona inguru jaso zituzten. Antolatzaileek esan dute horrelako beste asko beharko direla hura dena garbi uzteko.

**Aretxabaletako Industrialdea F-0-1**  
**Araba ibilbidea**  
**20550 Aretxabaleta**  
**Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941**  
**E-mail: info@eguzkigraf.com**

**30 urte baino gehiago zure zerbitzura**



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia



# Gizakiak ustiatutako tresneria eta animalia aztarnak aurkitu dituzte

Orain dela 160.000 urte ingurukoak dira eta Lezetxikiko kobazuloan agertu ziren joan den astean

IRATI GOITIA | ARRASATE

"Oso pozik gaude, ondo hasi dugu -eta kanpaina", adierazi du Lezetxikin lanean dabilen eta Ikerbasquen ikerkuntzako irakasle den Maria Jose Iriartek. Izan ere, joan den astelehenean ekin zioten aurtengo kanpainari eta lehen astean aurkikuntza "interesgarriak" egin dituzte. Esaterako, aurkitu dituzte: paleolitiko garai-ko tresnak eta hartz eta basurde aztarnak.

## Gizakiaren presentzia

Aurten eta iaz industen dabilzan mailan gizakiaren presentzia handiagoa da, adituaren arabera. Hain zuzen, gizakiak erabilitako tresneria aurkitu dute. "Aurkitu ditugun tresneria piezak ertza lantzen zitzaizen harriak dira, beharizanaren arabera landuak. Batzuek ertz zorrotzagoa izan dezakete haragia edo material organikoa mozteko, adibidez. Bat halakoa da, besteak ez." Datazio zehatzik ez duten arren, orain dela 160.000 urte inguruko piezak direla zehaztu du Iriartek. "Ez dauzkagu zehaztasunez datatuta, baina kronologia nahiko frogagarria da. Zaharragoak ere izan daitezke", zehaztu du.



Joan den astean Lezetxikin aurkitutako piezetako batzuk. | MARIA JOSE IRIARTE

Bestalde, animalia arrastoak ere aurkitu dituzte. "Fauna oso interesgarria irteten ari da, adibidez; hartz eta basurde aztarnak. Hortzak eta eskeletoko beste hezur batzuk aurkitu ditugu. Ez zaigu animalia osorik azaldu. Aurkitu ditugunek gizakiaren ustiapen

markak dituzte". Materialarekin inventarioa egin eta gorde egingo dute azterketak egiteko.

Uztailaren 19ra bitarte izango dira Lezetxikin indusketa lanetan eta material gehiago aurkitzeko esperantza dutela adierazi du Iriartek.



Jaime Ortiz de Urbina. | JULEN IRIONDO

Jaime Ortiz de Urbina | Euskal Herriko Hazien Sarea

## "Berreskuratzen ditugu galtzen ari diren barietateak"

Bertako ortuetako barietateak mantentzea oso garrantzitsua da, Hazien Sareko kideen ustez

J. IRIONDO / I. GOITIA | ARRASATE

Elkarheitzenean antolatuta, Euskal Herriko Hazien Sareko Jaime Ortiz de Urbina hitzaldia egin du Arrasaten.

### Zein da Euskal Herriko Hazien Sarearen egitekoa?

Euskal Herrian galtzen dabilzan barietateak berreskuratzea eta jendeari eskuragarri jartzea. Jende askok erein eta erabili nahi ditu lehengo barietateak, badakielako erabilera batzuetarako hobeak direla.

### Zein abantaila dituzte bertako barietateak?

Sortu ziren ongari kimikoak eta pestizidak erabiltzen ez zirenean; beraz, baldintza ekologikoetan. Hasiara baten, egokiagoak dira. Bestalde, zapora aldetik oso goxoak dira; egungo barietateak homogeneoak baino goxoagoak.

### Zein da egungo egoera kontserbazioari dagokionez?

Nik esango nuke egun sentzibilizazio handiagoa dagoela. Badagoela geroz eta jende gehiago horiek mantendu nahi dituenak. Galtzen ari dira, baina, zorionez, guk jaso ditugu batzuk eta ikerketa zentro batzuetan ere egin dira lan batzuk. Fruta-arboletan ere badakigu parke natural batzuetan lan ona eginen ari direla, horiek berreskuratzen. Panorama hobea da.

### Zergatik da horiek mantentzea garrantzitsua?

Esan behar dugu kasu batzuetan direla 10.000 urtez belaualdiz belaualdi, erein eta erein, sortu diren barietateak. Horregatik bakarrik garrantzitsua da gordetzea. Bestalde, ez ditugu beraien ezaugarriak ezagutzen, baina etorkizunean, akaso, interesgarriak izango daitezke gaixotasunei aurre egiteko, iraunkorrak direlako. Gure ingurugiroan egokituago ere badaude. Ez dira homogeneoak eta baldintza aldakorrei

hobeto eusten diete. Hau da, aldaketa klimatikoa datorrela esaten da; bada, hobeto eutsiko dio horri genetikoki aberatsa den barietate batek, landare homogeneo batek baino.

### Zeintzuk dira galeraren arrazoiak?

Geroz eta nekazari gutxiago dago eta hori izan daiteke arrazoi nagusia. Geroz eta lur emankor gehiago ere bagabiltza galtzen azpiegitura edo urbanizazioen ondorioz. Eta hirugarrenik, esango nuke urte luzez bai erakunde publikoek eta baita enpresa handiek ere bultzatu dutela aurrerabidearen izenean hazi hibrido eta hazi moderno-teknologikoen erabilera.

### Bertako haziak ekoizteak lan handiagoa eskatzen du...

Nik ez dut esaten baserri guztietan eta toki guztietan gure hazi guztiak ekoiztu behar ditugunik. Ziur asko, baserriarrek ere landare guztiak ez zituztela beraien ekoizten, antolatzen zirela beraien artean. Baina nahi duguna da nekazariak bere autonomiaren zati handi bat errekuiperatzea, espezie batzuk eurek ekoiztea.

### Bailaren ezaguna da Aretxabale-tako tomatea.

Duela urte dezente nekazari ekologiko batek zabaldu zuen eta merkatu ona lortu du. Nik esango nuke beste zona batzuetara ere zabaldu dela; Arabako iparraldean ere ereiten da. Adibide polita da: nola bertako barietate batek eta bertako baserriarrek merkatu bat sor dezaketen, ez dute-eta enpresa handiek sortu.

**"Nekazariak autonomia errekuiperatzea nahi dugu"**

## Zubietako zentroak 160.000 tona errefus tratatuko ditu

M.A./I.G. | ARRASATE

Gipuzkoako hondakinak kudeaketarako zentro berria izango du Zubietan. Tratamendu Mekaniko Biologikorako planta bat izango da eta urtean 160.000 tona errefus tratatzeko gaitasuna izango du. Sartzen den materiaren zati bat birziklatu egingo du eta gainetarako bizigabetu. Horretaz gain, Zubietako zentroak ontzi arinak

tratatzeko aukera izango du eta baita konpostatze planta ere.

2014ko azaroan esleituko dira lanak eta 2015eko bukaera aldean amaitzea aurreikusten da. Hain zuzen, 2015erako zaborteziak itxi egingo dira eta horien alternatiba izango da hondakinak kudeatzeko zentroa. Zubietako zentroaren aurrekontua 60 milioi euro da.

Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko azpiegitura sarean sartzen dira: Zubietako zentroa, materia geldoaren gordailua eta bi konpostatze planta -lanean ari den Lapatekoa eta Epelen eraikitzen ari direna-. Gipuzkoak, bestetik, 27 garbigune, hiru ekocenter eta ontzi arinak berreskuratzeke bi planta ere baditu.

## Gipuzkoako turismo gida berria egin du Aldundiak

I.G. | ARRASATE

Gipuzkoako turismo eskaintza osoa jasotzen duen gida berria argitaratu du Aldundiak.

### Bailarako eskaintza, gidan

Gidak *Gipuzkoa irekia* du izena eta bost atal nagusi ditu: *Donostia*, *Kostaldea*, *Barnealdea*, *Aukeratu zure plana* eta *Ostatuak*. Bada, *Barnealdea* atalean Debagoieneko eskaintza ere azaltzen

da, eta, besteak beste, aipatzen dira: Elgetako Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa; Arantzazu; Oñatiko San Migel parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea; Arrikruzteko kobak; Bergarako eta Arrasateko alde zaharrak; Urkuluko urtegia eta Leintz Gatzagako gatzaren museoa. Ostatuaren zerrenda ere badago gidaren amaieran, eta bailarakoak ere agertzen dira.

Guztira, 100.000 ale argitaratu dira eta Gipuzkoako udalderri eta eskualdeetako turismo bulegoetan daude. Foru Jauregiaren sarreran dagoen erakusmahaiaren ere eskura daitezke, eta, nahi izanez gero, Foru Aldundiaren Turismo webgunetik jaitz daitezke PDF formatuan (*Visitgipuzkoa.net* helbidean *Argitalpenak* atalean). Bost hizkuntzatan argitaratu da gida.



# Ekonomiarekiko konfiantza txikia dute oraindik euskal familia gehienek

Kontsumitzailearen konfiantza zertxobait handitu da martxotik hona

LEIRE KORTABARRIA | BILBO

Euskal kontsumitzaileek ekonomia egoeran duten konfiantza hobetu egin da 2014ko lehenengo hiruhilekotik bigarrenera, baina Espainian eta Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan baino ezkorragoak dira. Horixe da Laboral Kutxak orain bi aste aurkeztu zuen azterketaren ondorio nagusia. Laboral Kutxaren Ikerketa Departamentuak egin du txostena eta Xabier Egibarrek, Laboral Kutxako Negozio Garapen zuzendariak, eta Joseba Madariagak, Ikerketen zuzendariak, aurkeztu zuten.

## Frantziaren antzera

2014ko bigarren hiruhilekoan, balio ezkorretan kokatzen zen oraindik euskal familien konfiantza: -30 eta 30 puntuko eskala baten, -17. Hala ere, aurreko hiruhilekoan -23ko puntuazioa izan zuen; hortaz, hobera egin du zertxobait.

Dena dela, Hego Euskal Herria eta Espainia batera hartuta, konfiantza maila -7 pun-



Xabier Egibar, Negozio Garapen zuzendaria, eta Joseba Madariaga, Ikerketen zuzendaria. | LABORAL KUTXA

tuetan dago (aurreko hiruhilekoan, -12 puntuetan); beraz, Euskadiko familiak ezkorragoak dira. Europako Batasunean, konfiantza indizea -5en dago;

aurreko hiruhilekoan, -8 izan zen balioa.

Europako Batasuneko erreferentziatzeko herrialdeei dagokienez, Frantzian ere antzeko

konfiantza maila dute familiek: -22 (aurreko hiruhilekoan, -21). Erresuma Batuan eta Alemanian baikorragoak dira: 7 eta 4 puntu, hurrenez hurren.

## Langabeziak, berdin

Oro har, ekonomiaren eboluzioa modu ezkorrean ikusten dute euskal familiek: -19 puntu ematen diote eboluzio horri, aurreko hiruhilekoan baino lau puntu gehiago. Puntuazio horrek familien etorkizuneko aurreikuspenak neurtzen ditu; beraz, puntuazio horrek erakusten du aurreikuspen txarrak dituztela familia gehienek.

Langabeziaren martxaz ere ezkorragoak dira: -17. Laboral Kutxaren esanetan, "langabeziak berdin edo txarrera egingo duela" uste dute familia gehienek.

Aldiz, etxeko ekonomia hobeto ikusten dute familiek: -13 puntu eman dizkiote, aurreko hiruhilekoan baino hiru gehiago.

Gehien hobetu den espektatiba aurrezpenarena da: 15 puntu hobetu da. Hala ere, puntuazio txarra da: -18. Horrek esan nahi du kontsumitzaile askok uste dutela datozen hilabeteotan gutxi edo ezer ez duela aurreztuko.

Laburtzeko, ondorio hauek ateratzen ditu Laboral Kutxak: batetik, euskal familia gehienak ezkorragoak dira "argi eta garbi", nahiz eta konfiantza indizeak hobera egin duen urteko lehen hiruhilekoa ezker. Bigarrenik, hobekuntza horrek oinarri hauek ditu: aurrezpenaren gainera aurreikuspen hobea (+15) eta, "neurri txikiago baten", beste hiru osagaien gainera aurreikuspen hobea ere: ekonomia orokorrean (+4), etxebizitza (+3), eta langabeziaren eboluzioa (+3).

## Eskaintzak ez dira nahi adina onak konkurtso-administratzailearentzat

L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresnen konkurtso-administratzailearen iritziz, CNAREN eskaintza da aurkeztu diren seietatik onena, baina bat ere ez da "nahikoa", ordaintzeko gertu dauden kopuruei begiratuta. Horrela islatzen da administratzaileak Donostiako Merkataritza-Epaitegiari bidali dion txostenean, komunikabide batzuetan argitaratu denez. Uztailaren 9ra arteko epea ireki du epaileak interesatuek eskaintzak hobetu ditzaten, eta, zapatuan argitaratu zenaren arabera, Cevitalek bere eskaintza hobetuko duela esan du.

## Sei enpresa

Sei eskaintza agertu dira, honako enpresenak: CNA (Espainia), Ecomac (Txile), Amica (Polonia),

Ariston (Italia), Taurus (Espainia) eta Cevital (Aljeria).

Txostenak dioenez, Catarena da eskaintza onena, izan ere, enpresaren aktibo guztiengatik egin du eskaintza, baita confort lerroarengatik ere. Hain zuzen, ia 1.400 lanpostu -620, zuzenak- eta 16,2 milioiko ordainketa eskaini zuen.

Cevital aljeriarrak 18 milioi inguruko ordainketa eta Euskadin 1.300 lanpostu eskaintzen ditu, horietatik 300, zuzenak.

Europa Press-en esanetan, Ecomac inbertsio-fondoak Edesarengatik zazpi milioi eskaintzen ditu, eta 173 lanpostu.

Amicak Edesaren lerro zuririkiko bakarrik du interesa, eta hamar lanpostu eskaintzen ditu. Taurusek eta Aristonek ez dute lanposturik eskaintzen.

## "Patronalaren jarrera oldarkorrari aurre egiteko", mobilizazio eguna

LAB sindikatuak deituta, auto-karabana eta elkarretaratzea egin dituzte

IRATI GOITIA | ARRASATE

LAB sindikatuak deituta, mobilizazio eguna egin zuten uztailaren 2an. "Patronalaren jarrera oldarkorrari aurre egiteko", adierazi du Jose Ramon Kortabarriak, LABeko bilarako arduradunak. Bestalde, enpleguaren eta hitzarmenaren aldeko aldarrikapena ere egin zuten.

Goizean manifestazioak egin zituzten Donostian, Gasteizen eta Bilbon. Arratsaldean, berriz, eskualdetan egin zituzten protesta ekitaldiak. Debagoienean auto-karabana egin zuten eta elkarretaratzea Bergaran, *Adegi lapurrak. Enpleguaren defentsan, hitzarmenak orain!* lelopean. "Azken lan erreformaren ondoren,



Uztailaren 2an Bergaran egin zuten elkarretaratzea, LABek deituta. | J.R.K.

patronalek biderkatu egin dute lan harremanak inposatzeko zeukaten gaitasuna. Bereziki, aipagarria da gazteen egoera, bi alternatiba eskaintzen zaizkie: kanpora joan edo prekarietatean bizi. Negoziazio kolektiboa guztiz blokeatzen du patronalak baldin eta lan erreforman sakontzeko ez bada", adierazi du Kortabarriak. Lan erreformak emakumeen "diskriminazio estrukturala" mantentzeko oinarriak jartzen dituela ere gehitu du.

Bestalde, Confesbask-en jarrera ere kritikatu du: "Ez du herri

honetako klase enpresariala ordezkatzeko teknokratek agintzen dute". Langileei eskubideak lapurtzeko asmoa orokorra da patronal guztietan. Hala ere, bereziki aipatzekoa da Adegiren jarrera are eta erasokorragoa. "Enpresa eredu berria" aldarrikatzen dute, praktikan sindikalizazioa lekuri gabe utzi, langileen arteko zati-keta sustatu eta lan harremanen indibidualizazioa besterik ez dakar. Patronalaren jarrera hau ez litzateke posible izango Jaurlaritzak -EAJK eskaintzen dien babes sozialik gabe".

## Bi urte eta erdiren ostean, hazkunde positiboa izan du Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak (%0,4)

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak urte arteko gehikuntza tasa positiboa lortu du, lehen aldiz, bi urte eta erdiko epealdian. Eskuratutako zenbatekoa apala da (%0,4), baina aurreko joera apurtzeko balio izan du. Barne eskaria izan da hobekuntza horren eragile nagusia. Inbertsioak, ordea, pauso bat atzera eman du suspertzeko prozesuan eta kanpo saldoak hamarren batzuk ekarri dizkio berriro hazkundeari.

### ESANAK

"Sindikalizazioa lekuri gabe uztea da nahi dutena"

JOSE RAMON KORTABARRIA  
LAB-eko BAILARAKO ARDURADUNA



Nerea Ibañez | Eskola Agenda 21eko koordinatzailea Bergaran eta Oñatin

# "Jolastokiak eskatzen dituzte ikasleek Eskola Agendako bileretan"

- ▶ 2012a ezker, Bergarako eta Oñatiko Eskola Agenda 21 koordinatzen du Nerea Ibañezek
- ▶ Hezkuntzako eta udaletako ordezkariekin jarduten du, haien arteko harremana indartuta

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA-OÑATI

Arazi enpresako proiektuburua eta Heziketa arloko koordinatzailea da Nerea Ibañez 38 urteko donostiarra. Debagoienarekin badu lotura; izan ere, Eskola Agenda 21 proiektuaren koordinazioa daroate Arazi eta Ibañezek berak Bergaran eta Oñatin, bi udal horiek kontratatuta.

## Ze ardura dituzu Eskola Agenda 21 proiektuko arduradun gisa?

Eskola Agenda 21 proiektuak hiru arlo ditu: lehena, ikastetxearen diagnostikoa; bigarrena, urtero lantzen dugun gaia eskolako curriculumean txertatzea; eta hirugarrena, komunitatearen parte-hartzea. Arazi hirugarren atala aurrera eramateko ardura du, hezkuntza komunitatea eta udal ordezkarien arteko harremanak indartuz.

## Debagoieneko bailaran, Bergaran eta Oñatin Eskola Agenda 21 programaren arduraduna edo koordinatzailea zara, ezta? Zertan datza zure lanak?

Bai: 2012-2013 eta 2013-2014an Bergara eta Oñatiko EA21eko koordinatzailea izan naiz, eta irakasle zein udal ordezkariekin harremanetan jardun dut. Arazi lantaldean edukien sorrera, diseinu lanak edo komunikazio lanak garatu dituzten lankideak izan ditut, bost pertsonako lantaldea osatuz.

Aurretik aipatu bezala, proiektu honek dituen hiru arloetako bat garatzeko ardura dugu. Atal honek herriko diagnostikoa egiteko helburua du, urte bakoitzean aukeratzen den gaiaren arabera.

Hortaz, 2013-2014 ikasturtean elikadura jasangarriaren diagnostikoa egin dugu, herri bakoitzaren egoera hobetzeko proposamenak aurkeztuz. Proposamen horiek ezohiko udalbatzarrean aurkeztu zaizkie alkate, zinegotzi eta udal teknikari, eta horiek egungo egoera azaldu dute: mar txan dauden proiektuak, etorkizunera begirako egitasmoak, e.a. Bestetik, ikasleek hainbat konpromiso adierazi dituzte, elikadura jasangarriaren alde eginez. Izan ere, gai honetan norberaren konpromisoak erabateko garrantzia du: zer erosten dugun, non erosten dugun, noiz erosten dugun produktu bakoitza...

## Beste ze herritan daramazue Eskola Agenda 21en ardura?

Getarian, Orion, Zarautzen, Zumaian eta Zestean.



Nerea Ibañez. | OIHANA ELORTZA

## Eskola Agenda 21 izena entzun duen baina zer den oso ondo ez dakien bati nola azalduko zenioke programa hori?

Garapen jasangarriarekin lotura duten gaiak ikastetxean lantzeko eta txertatzeko proiektua da. Gai bakoitza ingurumenaren esparrutik lantzeaz gain, gizartearen duen eragina ere aztertzen da. Adibidez, elikadura jasangarria lantzeko orduan, ingurumenaren gaineko informazioa ematen zaie ikasleei: natur baliabideak, garai-ko produktuak... baita gizartearen inguruko ikuspuntua ere: bertako edo kanpoko saltzaileari erostea, ekoizpen ereduak, e.a. Elikadura jasangarriaren, aurtengo gaiaren inguruan, zeintzuk izan dira ikasleen ondorio nagusiak? Ikasleek azokaren aldeko apustu garbia egin dute, bertako pro-

"Elikaduraren gaineko konpromisoak hartu dituzte ikasleek"

"Elikadura jasangarriarekin jarraituko dugu datorren urtean"

duktuak indartzeko asmoz eta baserriarrei laguntza eskaintzeko helburuarekin. Baratza komunitarioen gaia ere aipatu da, eta Bergara zein Oñatiko Udalek lanean dihardute bi ekintza horiek martxan jartzeko.

## Hurrengo gaia zein izango da?

2014-2015 ikasturtean elikadura jasangarriaren gaiarekin jarraitzea erabaki da, alderdi askotatik landu daitekeen gaia izanik.

## Nork aukeratzen ditu landu beharreko gaiak?

Ikastetxe bakoitzeko ordezkariak elkartzeko dira eta ados ipintzen dira.

## Eskola Agenda 21en barruan landu diren gaien artean zeintzuk izan dira zuretzat interesgarrienak, eta zergatik?

Gai guztiak dira interesgarriak, eta elkarren artean lotura izaten dute gehienetan: elikadura, hondakinak, ura, mugikortasuna...

## Eskolako ikasleak udaletxera joaten dira eta proposamen batzuk egiten dituzte. Ziur proposamen harrigarriak, dibertigarriak... entzun dituzula. Gogoratzen dituzu batzuk?

Gehienetan, jolasteko tokiak eskatzeko aprobetxatzen dute! Frontoia, parkea, skate pista... Udal arduradunek nola hartzen dituzte ekintza horiek, ze erreakzio egoten dira?

Jarrera onarekin eta, gai nagusitik ateratzen diren proposamenak jasotakoan, betiere, haiek aztertze asmoarekin.

## Hori da guk kanpotik ikusten duguna, baina egunero-egunero, ikastetxean nola lantzen da Eskola Agenda 21?

Ikastetxean ingurumen batzordeak sortzen dira, eta ikasle ordezkariak egoten dira: batzuetan, eko-ordezkariak deitzen dira; beste batzuetan, patruila berdea... EA21eko irakasle koordinatzaileak bilerak egiten ditu ingurumen batzordeko kideekin eta, gero, ikasle ordezkari horiek gelan transmititu behar dute proiektuaren nondik norakoa.

Arazi garatzen duen arloari dagokionez, hiru saio garatzen dira ikasturtean zehar: *ikasi* edo saio teorikoa, gaiaren inguruko azalpenak jaso eta fitxa didaktikoak lantzeko; *ikusi* edo saio praktikoa, herrian zehar irteera egin eta hobe daitezkeen

"Proposamenak aztertze asmoa izaten dute udalek, gehienetan"

"Gurasoengana ere ailegatzeko, buletin digitalak sortu ditugu"

gauzak antzemateko; eta, azkenik, *pentsatu* izeneko saioa, hobetzeko proposamenak hausnartzeko.

Proposamen guztiak Arazi bidaltzen dira eta zerrenda bateratua sortzen dugu, ikastetxe guztietako ekarpenak uztartuz. Ondoren, ikastetxe bakoitzeko ordezkari arteko bilera antolatzen dugu, irakasle zein ikasle, eta udalbatzarrean aurkeztuko diren proposamenak aukeratzen dira.

Proposamenak landu eta gorpuztu ondoren, udalbatzarreko aurkezpena prestatzen dugu.

## Ikasle horien gurasoek ere, nolabait, bereganatzen dituzte Agenda 21eko edukiak?

Gurasoengana iristeko asmoarekin, buletin digitalak sortu ditugu, eta ikastetxeetako sarrera edo korridoreetan jarri dira.

## Ingurumenarekin edo garapen jasangarriarekin lotutako beste ekintzarik egiten duzue Arazi?

Bai, kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainak garatzen ditugu, eta ingurumenarekin lotura duten ekipamenduak kudeatzen ditugu.

Bestalde, ume eta gaztetxoekin lan egitea nolakoa da zuretzat, ze aporteratzen dizu? Jende asko esaten du lan zaila dela, zuretzat ere hala da?

Niri izugarri gustatzen zait, zorionez!



## ZABALIK



MANEX AGIRRE  
goiena.net/komunitatea/

## Estilo ariketa bat

**H**ara, zu hemen? Latza sorpresa. Ez nuen sekula pentsa-tuko horrelako leku batera etorrik zinenik... –Ya. Ba ikusten duzu, hemen nago. –Askotan etortzen zara? –Ez, buruari bueltak eman beharra dudanean bakarrik.

–Zer, marroiren bat daukazu, ala? –Meh, ezer gutxi. –Kontaidazu, benga, badut tarte bat eta. –Artikulu bat enkargatu didate, Goienarako, *Zabalik* tarterako. Eta ez dakit nondik hasi ere. –Jum. Buruhauste polita. Ze tarte da hori? *Zabalik*? –Bai... ez dakit oso ondo. Ez dio axola: iritzi-artikulu bat idatzi beharra dut. –Bale. Saiatuko naiz laguntzen. Zera... irak... –E, ez, lasai, ez dago beharrik. Benetan. Okurrituko zait zerbait. –Motel, motel, utzidazu iradokizunen bat egiten, behintzat. Irakurri duzu prentsa? Egunerokotasunari tiraka hasi, adibidez notizia bati, eta artikulu txukuna atera daiteke... –Gaur goizean egin dut erronda sarean, egunkarietako edizio digitaletan. Ez dit ezerk bereziki arreta deitu. –Ados. Azkenaldian zehar gertatu zaizun zerbait? Helduleku gisa balio ahal dizun anekdotaren bat? –...ez... ezer interesgarririk ez... –Ez duzu gairen bati buruzko eztabaidarik izan norbaitekin? Ez zara zerbaitekin sutu, azken egunotan? –Mmm... ez. –Agian, baduzu betiko kezka bat, aspalditik barrua mugitzen dizun zerbait... Zure bizitzan konstantea den gai bat, erraietaraino iristen zaizuna...

–Azkeneko artikuluan egin nuen horrelako gauza bat, eta, egia esan, burutik pasa zait honetan ere egitea... Baina aldatu egin nahi nuke. –Jo, ba ez dakit zer esan. Benetan. Proposamenak agortu zaizkit.

–Badut buruan ideia bat, baina ez dakit ausartegia ez den. –Bai? Bota! Benetan, interesatzen zait entzutea. –Artikulu bera idazteko zailtasunei buruz idaztea, *meta-iritzi* gisako zerbait. Idazteko ezinari buruz idaztea. Ez idazteari buruz idaztea. –Benetan ari zara? –Bai. –Ba, egia esan, nahiko ideia kutrea iruditzen zait. –... bale. Ikusi arte. –Agur.

### "Idazteko ezinari buruz idaztea, ez idazteari buruz idaztea..."

## USTEAK USTE

AMAIA TXINTXURRETA | atxintxurreta@goiena.com

## Auzo txikien xarma berezia

**F**estarik festa lan egin behar gauero... dio kantu batek. Azkenaldian, inguruko hainbat auzotako jaiak girotzen egon naiz Gauargi taldearekin kantuan edota DJ moduan: Arrasateko Musakolan, Elgetako Torrealdean, Antzuolako Kalebarrengo festetan eta Oñatiko Zubillagakoetan. Benetan jende atsegina ezagutzeko aukera izan dut. Primerako harrera egin digute auzo guztietan eta gertuko festa giroarekin disfrutatzeko aukera izan dut, auzotarrekin batera. Txalotzekoa da horrelako festak aurrera eramaten dituztenek egiten duten lana. Eskerrik asko guztioi festa horien *parte* egitearren, eta hilaren 27an Bergarako Boluko jaietan espero zaituztet!

## KALE INKESTA

## Etorkinak integratuta daude? Laguntzen diegu horretan?



TXOMIN  
ETXEZARRETA  
ANTZUOLA

"Nik esango nuke ari direla integratzen. Guk laguntzen diegun ala ez, beste kontu bat da, baina hezkuntza, esaterako, ez dago batere prestatuta".



JESUS  
ARANGUREN  
ANTZUOLA

"Antzuolan integrazio maila ona dagoela esango nuke. Hemen kultura desberdinetako umeek-eta elkarrekin jolas egiten dute".



BLANCA  
CARRASCO  
ANTZUOLA

"Dantzako klaseak ematen ditut eta baditut etorkinak ikasgelan. Besteek moduan lan egiten dute eta bai, integratuta daude".



URTZI  
MUGURUZA  
ANTZUOLA

"Esango nuke gehienak baietz. Antzuolan badago integrazioa bultzatzen duen talde bat. Klabea da denok elkarrekin ibiltzeko ohitura hartzerak".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## #EibarDefendatu?

Leire Narbaiza Arizmendi  
<http://eibar.org/blogak/leire/>

Azken boladan Eibarko erakusleio eta balkoietan ikusten den traola.

Orain 25 bat urte oso futbolzalea nintzen. Igandero Ipuruara joan eta oso ondo pasatzen nuen.

Baina gero, zerbait aldatu zen nire barnean eta jasanezina bihurtu zitzaidan, fartsa hutsa zela iritzi eta zeharo urrundu nintzen, ia gorrotatzeraino, erretzaile ohiak tabakoa jasaten ez duen legez.

Baina sekula ulertu ez dudana, zalea nintzenezan ere ez, herriko taldea babestu behar hori *foballa* gustuko ez izan arren, herriarendako ona delakoan.

Ez dut ulertzen "patriotismo" futbolero hori.

Telebistako lehiaketetan ere halakoak egiten dira: abesten irten eta botoa eman behar herrikoa delako. Bai?

Eta gustatu ezean nola kantatzen duen, edo ez badugu pertsona hori atsegin ere irabazteko gogoia izan behar dugu? Ez dut konprenitzen!

Batzuek diruaren aitzakia darabilte babes horiek

emateko: onura ekonomikoak ei dakartzio herriari.

Agian, bai, ostalaritzari. Izen ona ematen omen dio Eibarri. Beharbada, hala izango da, baina beste mila kontuk ere ematen dute prestigioa eta ez dira hauspotzen eta laguntzen, edo ez hainbeste, behintzat.

Aberatsak praka motzetan babestu (baliteke Eibarko jokalarien kasua ez izatea), bihotz eta aberri bakoak, diru eskaintza handiagoa izanez gero, koloreak erraz asko abandonatuko dituztenak.

Baina guk, populuak, maitatu eta animatu behar, "gureak" direlako.

Kokoteraino nago futbolari ematen zaion garrantziaz, dena estaltzeko balio duelako eta benetako arazoak ezkututzen dituelako.

Dena barkatzen zaio, zorra izan Gizarte Segurantzarekin edo ogasunarekin.

Egin dezala partikular batek edo enpresa txiki batek halakorik eta ikusiko du nolako barkamen eta onarpen soziala duen...

Halakoak esanda ez dakizue zelako gaitzespenak jasan behar dituzdan!

"Neska, baina gauza politikak dira", "Kirola da eta jendeari gustatu egiten zaio", "Zu beti

berdin, beti halakoak ateratzen".

Eta esaten ez didatena ziur larriagoa dela: erresumindu, "rancia", zapuztaile, ilusio gabea...

Niri bost!

Baina, bitartean, segitzen dugu hainbat zelai publiko ordaintzen eurek eskusiboki erabil dezaten, emakume taldeek gutxiespena sufritzen, euskara kantuetan desagertuta, hizkera biolentoa...

Baina neska, herriaren onerako da.

Honekin guztiarekin ez dut esan nahi Eibar KEK egin duena kirol arloan garrantzitsua ez denik, edota eskatzen dioten diru-bermea justua denik. Ez. Hori beste kontu bat da.

Ez dut uste denon artean ordaindu behar dugunik hau ere.

Gainera, ez zait euskarazko leloa gustatu #EibarDefendatu. Ez, talde bat defendatzen delako, ez gure hiri guziz eredugarria (armarrian dioen bezala).

Ez, erdarazkoa egokiagoa da #DefiendeAIEibar.

Artikulu horrek diferentzia markatzen du, taldea defendatzea eskatzen duelako.

Badakizue nork ez duen akziorik erosiko, ezta?

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Urbane Madera  
**Sailtako arduradunak** Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna**

Leire Kortabarria

**Maketzailea** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

**Argazkilaria** Imanol Soriano

**Publizitatea** Mireia Larrañaga,

Amaitz Mendiñano, Zortza Martin,

Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-88/2004

**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 20.100 ale

**Difusioa:** 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritza**  
**diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



## ALDAPE taberna

**ALDAPE Jatetxea**  
Iturriotz kalea 41 Arrasate  
Tel.: 943 79 63 69  
Astelehenetik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).  
Astebukaeretak menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

## ALZU

**ALZU, S.L Ehiza eta arrantza**  
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati  
Arropetan %10eko beherapena.

## AZPEITXI JATETXEA

**AZPEITXI Jatetxea\***  
Aranerrika kalea 13, Bergara  
Tel.: 943 76 55 00  
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

## Esko Sport

**ESKO SPORT Kirol denda**  
Intxaurtueta 5 | Eskoriatza  
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



**ESTACION SERVICIO ARRASATE**  
**Gasolindegia**  
San Andres 7 | Arrasate  
% 2ko gasolindegian erregaia erosit. % 2ko dendako produktuetan.



**GAES Entzumen zentroa**  
Otalora 18 | Arrasate  
Zurradero 10 | Bergara  
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



**GAHIR Fisioterapia / Osteopatia**  
Aranburuzabala 6 behea | Eskoriatza  
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



**GRACIAN Mertzzeria**  
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara  
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.



**INSTITUTO OPTIKOA**  
Bidekurutzeta 10 | Bergara  
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan..



**IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa**  
Burdinate plaza 2 | Bergara  
Lehenengo sesioa, sesio erdi..

## itsaslur

**ITSASLUR Jatetxea**  
Zerkaosteta kalea 3 Arrasate  
Tel.: 943252632  
Txuleta zaharra: %10eko deskontua ekainean eta uztailean



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara  
Produktu guztietan %5eko deskontua..

## LONBIDE OINETAKOAK

**LONBIDE Oinetakoak**  
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara  
Produktu guztietan %10eko deskontua.



**MAGDALENA Gasolindegia**  
Santxolopetegi auzoa | Oñati  
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erosit.

## Markiegi

**MARKIEGI JANTZI DENDA**  
Olarke kalea 2 | Arrasate  
Produktu guztietan %10eko deskontua.

## MIREN GARAI

**MIREN GARAI**  
Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate  
Tel.: 943 799 690  
Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskue-tako tratamendua doan.



**ML Ile-apaindegia**  
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate / Tel.: 943 797 965  
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.  
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.

## MULTIÓPTICAS lehen zerbitzu optikoetan

**MULTIÓPTICAS Optika**  
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate  
Ibargarai, 16 | Bergara  
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..



**NEBRASKA taberna**  
Zarugalde 35 - Arrasate  
Tel.: 943 79 09 39  
MAHOU garagardo botila, euro bat bazkideentzat  
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxo doan  
Interneteko menuetan %5eko deskontua



**NINIKA Loradenda**  
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara  
%10eko deskontua artikulu guztietan.



**PORTALOI optika**  
Erdiko kalea 10, Arrasate  
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).



**ARRIKRUTZ Kobak**  
Araotz Auzoa | Oñati  
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).



**SARA MERENDERUEA Jatetxea**  
Meatzerrika auzoa 19,  
Kanpazar bidean, 3km-tara - Arrasate  
Tel.: 943 77 15 86  
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).  
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).



**TABERNA-BERRI Jatetxea\***  
Durana kalea 26, Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 20 67  
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero;  
Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.  
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.



**ZABALA Jatetxea\***  
Labegarieta 14, Bergara  
Tel.: 943 76 42 57  
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

\* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

### GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

**Goiena papera:** Astelehenetan ere etxean.  
**Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05  
kluba@goiena.com | goienakluba.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# HERRIAK

ONATI

## Elkartasunaren letxugak

- ▶ 1.500 metro koadroko ortua jarri du Oñatiko ElkarZabal taldeak, etorkinekin
- ▶ Azokan eta ostalaritzan saldu gura dituzte hor landatutako produktuak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Caritas elkartetik sortu zen, duela urtebete, ortua jartzeko ideia, laguntza eske datozen etorkinei laguntzeko. Hala, ElkarZabal taldea sortu eta martxoan hasi ziren Arantzazura bidean dagoen Urrintxo jatetxe osteko lur sail bat lantzen. Han landatutako lehen letxugak jateko moduan daude dagoeneko.

### Afrikarrak

Oñatiarrak ez ezik, bertara bizitzera etorri diren etorkinek hartzen dute parte ElkarZabal talde honetan. "Gehienak afrikarrak dira: Gineako bi, Saharako sei, Arjeliako eta Marokoko lagunak daude tartean, esaterako. Eta guztion artean jarri dugu martxan 1.500 metro koadro dituen ortua. Pentsatu genuen euren egoeratik ateratzeko modurik onena norberaren arazoei aurre egitea zela, taldean elkartuz, indarra egiteko. Udaletxearekin eta MUREkin harreman ona dugu eta gureko moduko elkarteekin sarea osatzea gurako genuke", azaldu du Jesus Mari Aranburu *Pototo*-k.

Elkarte honek lau helburu ditu ere azaldu du Aranburuk: "Ongizate soziala, lana, formazioa eta integrazioa. Ortua jartzea orain arte egin dugun lehen aktibitatea da, baina baditugu gehiago buruan".

### Kontsumitu eta saldu

Letxugak izan dira elkartasun ortu honen lehen uztak eman duen lehen produktua. Hiru mota letxuga landatu dituzte eta horiek saltzen ere hasi dira. "Azokan saltzen ditugu baina salmenta puntuen azterketa bat egiten ere



ElkarZabal taldeko kide batzuk Urrintxo ostean duten ortuan. | O.E.

badihardugu. Hau da, herriko edo inguruko jatetxe edo tabernetan saltzeko aukerak aztertzen", azaldu du proiektuan parte hartzen duen Heddu Saidek.

Letxugaz gain, lekak, zerbak, kalabazinak, tomateak, piperrak,

fruta-arbolak eta loreak ere badituzte landatuta. "Elkarteko kideen kontsumorako ere badira. Gutxiago ordainduta erosiko dituzte. Diru hori ortuan inbertitzeko izango da, landareak edo lanabesak erosteko, adibidez. Orain

arteko gastuetan Caritasek lagundu digu baina zorra kitatzea gura dugu", dio *Pototo*-k.

### Oilategia ere bai

Ortuaren ondoan oilategia jartzea da hurrengo erronka. Hori mar-

txan jartzeko, ortuan laguntzeko edo produktuak kontserbatzeko laguntza behar du ElkarZabal taldeak eta deia zabaldu gura die herritarrei. "Ortura etortzea nahikoa dute, ongietorriak izango dira denak", dio *Pototo*-k.

### ESANAK

**"Azokan eta ostalaritzan salduko ditugu landatutakoak"**

HEDDU SAID | TALDEKO KIDEA

**"Denon artean ari gara saiatzen proiektua aurrera ateratzen"**

MOHAMED EMBAREC | TALDEKO KIDEA

**"Egunero etortzen gara ortura lana egitera"**

ADAMA BACH | TALDEKO KIDEA

**"Boluntarioak behar ditugu ortuan laguntzeko"**

CHERIF MAKHLONF | TALDEKO KIDEA

**MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!**  
Situatu eta gero MAI-ko aplikazioa, lanerako formazioa, azalduko egutegia, mapa, lan zirkuluak, proiektuak... eskura.

<http://m.imaltuna.com>

**Eskuragarri ere:**

## MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

# MATRIKULA

## Uztailaren 9etik 16ra.

**Ibargarai, 1  
20570 Bergara  
943 76 38 40/943 76 24 91**

**Ordutegia**  
08:00etatik 14:30etara  
15:30etatik 18:30etara

[www.imaltuna.com](http://www.imaltuna.com)  
[imaltuna@saremail.com](mailto:imaltuna@saremail.com)





Koadrila bat, bazkalostean. | L.K.



Guraso eta seme-alabak, aterpean. | L.K.



Otarraia prestatzen. | L.K.



Gipuzkoako urdaiazpiko-moztaile onena zela zioen herritar horrek. | L.K.



Sokatiran egin zuten hainbat gaztek, euria goitik behera egin arren. | JOSETXO ARANTZABAL

## BERGARA

# Aterpeekin egin zioten aurre euriari San Martzial erromerian

Eguerditik aurrera gero eta eguraldi txarragoa egin zuen arren, herritarrak umoretsu zeuden kanpan

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA  
Eguerditik aurrera, euria gero eta gogorrago hasi zen, baina eguraldiak ez zuen goibeldu San Martzialeko erromeria tradizio-nalean parte hartu zuten koadri-

len animoa. Bakoitza bere txosna edo aterpean zein kantinen edo salmenta postuen inguruan, bazkari berantiarra prestatzen ziharduten bergarar koadrilek –okela, otarraina, oilaskoa, errusiar entsa-

lada...– edo bazkalostean kontu kontari –edo kantari– ibili ziren gogotsu. Helduen koadrilak ziren gehienak, guraso eta seme-alaba txikiak, baina gaztetxo kuadrilla dezente ere bazen.

## Udaltzainak egun osoan

Ohiko ekitaldiekin hasi zen erromeria; gurdiaren igoera; meza, gero; eta dantza emanaldia, udal ordezkarien ohorezko aurrekuarekin. Giroa goibeltzearekin bate-

ra, oinez beherako bideari ekin zioten hainbatek, baina oraindik beste asko geratu ziren. Kantina inguruan abesten batu zen jende kopuru polita. Iluntze aldean, euria gogoz egiten zuen arren, sokatira saioa egin zuten gazteek.

Errepidea norabide bakarrekoa zen, eta udaltzainak 22:00ak arte ziren bertan egotekoak, arazorik egon ez zedin.

Bestalde, Libre taldeak deituta, Aitziber Plazaola *Xibo*-ren aldeko aldarria egin zuten hainbat herritarrek kanpan bertan; haren aurkako epaiketa irailan hasiko da.

## ANTZUOLA

# Jai arrakastatsuak izan dituzte Antzuolan ere



Giro ederra egon zen Oihulari Klownen antzezlanean. | NAGORE DOS SANTOS

L.K. | ANTZUOLA

Eguraldiak errespetatu ditu Antzuolako San Martzial jaiak, neurri handienez, eta jende asko ibili da. Zapatuan, arrakasta izan zuen plater tiroketa txapelketak; Luis Manuel Altubek irabazi zuen. Oihulari Klown taldeak *Trosten* antzezlan egin zuen ume eta helduendako; "oso ekintza polita"; Jon Gurutz Biteri auzotarraren esanetan.

Ekintza jendetsuenetariko bat gauean izan zen: afaria, ia 100 lagunekin; gero, azken urteotako ohitura duten bezala, izozkia jan eta suzko erruberak ikusi zituzten auzotarrek.

## Ateri domeka goizean ere

Domekan ere eutsi zion giroak eguerdira arte. Txirindularien proba, meza eta dantza saioa izan zituzten eguerdira arte.



Bi auzotar, izozkia jaten. | IMANOL SORIANO





32 plaza egin zituzten Ibarrao neskek. | IMANOL GALLEGO



Trikiti eskolakoez bota zuten txupinazoa. | IMANOL SORIANO



Dantzariak euripean. | JOSETXO ARANTZABAL



Txosna gunea. | T.E.



Gose zuzenean. | TXOMIN ELORZA



Aramaion jarritako seinale berria. | IMANOL SORIANO



Kiroldegiko jolasparkea. | IMANOL GALLEGO



Panderojoleak jaien hasiera ematen. | IMANOL SORIANO

# Aramaion, herritarrak ez ezik euria ere gonbidatu dute jaietara

Aste bukaerako parranda nahikoa ez balitz bezala, gaur amaituko dituzte San Martin jaiak Aramaion

**IMANOL GALLEGO** | ARAMAIO  
Sanmartinak zerura begira hasi zituzten. Bertan lehertu baitzen jaien hasiera eman zien etxafuegoa eta lainoek ez zutelako itxura onik. Zorionez, lainoek beste nora-

bide bat hartu zuten. Jaien hasiera aprobetxatuz, Aramaio Euskal Herriko lehen udalerria denaren kartela ere estreinatu zuten.

Berrikuntzez gain, hitzordu klasikoek garrantzi handia izan

zuten. Patata tortilla lehiaketa eta mus txapelketan, adibidez, jende asko batu zen. Azken horretan Begoña Etxabe eta Javier Nafarrate bikotea izan zen onena. Dudarik gabe, baina, aurtengo

ekitaldi jendetsuenak gaueko rock kontzertuak izan dira.

## Kontzertu jendetsuak

Antolatzaileek esfortzu berezia egin dute eta erantzuna ere horre-

lakoia izan da. Zapatuan, Bad Sound System eta Gose taldeek jendetza erakarri zuen goiko parkeko eskenatokira eta askok egun argiz bukatu zuten gaua.

## Gaur amaituko dira jaiak

Aste bukaerako martxaren ostean, gaur amaituko dituzte sanmartinak Aramaion. Ziur kuadrillen arteko pikea ikustera jende ugari gerturatuko dela.

Horren ostean, mozzorrotuta herri afaria egingo dute arramioarrek plazan. Azken afarian gainera, parranda-zale onenari urrezko gibela emango diote.



# Euriak baino, elgetarren umoreak busti du aurtengo Ferixa Nagusixa

Lehen aldiz, udalbatzako kide guztiek soka dantza egin dute plazan, herritarren txalo ugariren artean

IMANOL GALLEGO | ELGETA

Mozorro jaitsierarekin hasi zituzten jaiak Elgetan. Aurten, eguzkia euriz mozortu zen, eta jaitsiera desitxuratu arren, ez zuen festa zapuztu. Pailazo, hegaz-

kin, garagardo botilak... guztiek entzun zuten Jon Irizar alkate txikiaren pregoia eta gogotik txalotu zuten Enrique Astola herriko azken artzaina. Osteen, algararen ueña iritsi zen.

**Umorea eta kale giroa**

Aste bukaeran ajea alde batera utzi, eta lehen ordutik jendea kalera irten da. Asto karrerak ikusmin handia sortu zuen. Aurtengoa, gainera, ezustez beteriko

lasterketa izan zen, Oscar Sarasuak tronua kendu baitzion Mikel Beretxigana garaiezinari.

Soka dantza ere berritasuna izan zen. Udalbatzak dantzatu zuen, eta batzuek hanka jasotze-

ko arazotxo batzuk izan arren, guztiek txalo ugari jaso zituzten. Ondoren, dantzariak saioa egin zuten.

Zezenak, kontzertuak, paella jana... azken 72 orduetan Elgetan atsedean txikia hartu dute.

**Domeka, egun handia**

Ohiturari eutsiz, Elgeta gertuko eta sasoko produktuz bete zen. Gazta hemen, txorixoa han, tartak, opilak, taloak, ukenduak... Ez zen ezer falta ferian.

Zoritxarrez, baina, ferixa nagusiko jaiak, hasi ziren moduan, euripean bukatu zituzten.



Txalo artean dantzatu zuten zinegotziek soka dantza. | IMANOL SORIANO



Badirudi abeltzaintza ez dela nagusien kontua soilik. | IMANOL GALLEGO



Haur bakoitzak jaietako zapia jaso zuen. | I.S.



Erretiratuek ederto pasa zuten euren bazkarian. | I.G.



Oihan Vega DJ lanetan. | L.Z.



Euriari kasu egin gabe, mozortuta irten ziren elgetarrak kalera. | I.G.



Sarasuak Beretxinagari zaldizkoen tronua kendu zion. | I.G.



la herri guztiak jan zuen plazan bertan sukaldatutako paella erraldoia. | LARRAITZ ZEBERIO



ONATI

# Gura duenak ahal duela erakutsi zuten Tatarraz taldeko patinzaleek

Ibilaldia eta dantza eta eslalom erakustaldiak, elkarte berria aurkezteko



Ibilaldia eta mokadutxoaren ostean, frontoian atsedena hartzen. | A.A.



Gurpil gainean dantzan egin zuten ekitaldia borobiltzeko. | A.A.

**A. ARANBURUZABALA** | OÑATI  
Askotariko adin eta mailako ehun patinzalek egin zuten elkarrekin, Madalena auzoraino batzuek eta Elorregiraino, beste batzuek, bidegorrian zehar ibilaldia, sor-

tu berri den Tatarraz herriko elkarteak proposatuta. Indarberritzeko, Foruen plazan egin zuten hamaiketako gero, eta erakustaldiarekin eta dantza saioarekin borobildu zuten aurkezpena. "Oso

pozik gaude, jende asko etorri delako, eta gure harridurarako uste baino heldu gehiago batu direlako ekimenera. Kanpotik etorritakoek zortekoak garela esan digute dugun bidegorri ederragatik. Ekimen gehiago egingo ditugu; opor ostean zehaztuko ditugu", azaldu zuen elkarteko kide Rober Hernandezek.

**Hanka bakarrekin ere bai**  
Orain bi urte jantzi zituen lehenekoz Alain Irazu tolosarrak patinak. Hanka bakarra duen arren, argi erakutsi zuen Oñatin gurpil gainean ibiltzea gura duen edozeinek ahal duela.



Alain Irazu tolosarrak txundituta utzi zituen plaza ondoko frontoian batutako guztiak. | A.A.

ONATI

## Kirolzaleak eta garagardozeak berriz ere Aloña Mendik batuta

**A.A.** | OÑATI  
Aterpe egoki bihurtu zen egue-  
nean, zaparradetatik babesteko,  
Aloña Mendi kirol taldeak zaz-  
pigarrenez jarritako Garagardo  
Festaren karpa. Asteburuan  
ere, askotariko adin eta planak  
zituzten herritar askorentzako  
afaltzeko eta bazkaltzeko jan-  
tokia eta lagunartekoen topa-  
lekua izan da Aloña Mendikoen  
plazako plastikozko etxetxoak.  
Ezagun da herriko kirol klubak

baduela dagoeneko horrelakoak  
antolatzeke eskarmentua; jate-  
koen eta edatekoen eskaintza  
zabalduta, eta sukaldeko eta  
barraren atzeko boluntarioek  
profesionalen itxura zuten.

**Mundialak parean**  
Kontzerturik lotu ez izanaren  
pena zuen Anton Inza antola-  
tzaileak; hala ere, ederto goza-  
tu dute pantaila handian Mun-  
dialeko partiduak ikusten.



Aloña Mendiko garagardo karpa, egubakoitzeko afalorduan. | A.A.

ARRASATE

## Gasteiz, Donostia eta Zaragozako Vespa eta Lambrettak izan dira Arrasaten

Mondrally eguna ospatu zuten, motor klasikoekiko zaletasuna zabaltzeko

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE  
Beste urte batez, Vespa eta Lam-  
bretta motorren zaleen topagune  
bihurtu zen Arrasate zapatuan,  
Mondrally egunean. 35 bat lagun  
eta 30 motor batu ziren. Herriko  
plazan hasi ziren ekitaldiak zapa-  
tu eguerdian, motorrak plazan  
erakutsiz; zein baino zein poli-  
tago eta klasikoagoak (60ko

hamarkadatik aurrerakoak ziren).  
Gasteizko, Donostia eta inguru-  
ko eta Zaragozako jendea etorri  
da; gehienak motorrean etorri  
ziren Arrasateraino. Zale mon-  
dragoetarrak ere hantxe zeuden,  
jakina, nahiz eta, Lander Galdos  
antolatzailearen esanetan, Arra-  
saten oraindik ez dagoen eurek  
gura adinako zaletasuna.

Ibilaldia egin zuten: Arrasate  
-Oñati-Zumarraga-Urretxu-Elosua  
-Gorla-Azkoitia-Arrasate.

Galdosek dioenez, helburua  
zaleek "elkar ezagutzea eta ondo  
pasatzea" da eta, bide batez, hain  
maite dituzten motorrak erakus-  
tea; topaketetan, jende asko joa-  
ten ei zaie eurek ere halako  
motorra eduki zutela esaten.



Motor klasiko dotoreak Arrasateko plazan. | IMANOL SORIANO



# Lantegietako hondakinak nola batu jakiteko bilerak

Mankomunitateak herriko enpresak deitu ditu hilaren 16rako; udaletxean, 11:00etan edo 18:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen Mahaiak adostu zenez, azaroan jarriko da martxan Arrasaten hondakinak biltzeko sistema berria. Sistema berriak herritarrei zuzenean eragingo dien hainbat aldaketa ekarriko ditu eta aldaketa horiez guztiaz ahalik eta informazio gehien zabaltzeko asmoarekin, besteak beste, hondakinen informazio bulegoa zabaldu zen BAZen. Astelehenetik egubakotzera goiz eta arratsaldean dago zabalik hondakinen bulegoa, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Bulegoko telefono zuzena da 943 79 70 36.

**Bilera eta bisitak lantokietara** Herritarrei informatzeaz aparte, Mankomunitateak enpresengana jotzeko "beharra" ikusi du: "Arlo batzuetako jardueren ondorioz oso eremu konkretu batzuetan oso informazio zehatza zabaldu behar dela ikusita, industrialdeetako enpresa eta establezimendu guztiekin harre-



Markuleteko industriagunea. | MGI ZIENTZIAK

manetan jartzeko beharra ikusi dugu". Hala, industrialdeetako enpresa eta establezimendu guztiei eskutitz bat bidali zaie etzi egingo diren bileretara deituz. Bilerak udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dira; bi aukera egingo dira bertaratzeko, 11:00etan edo 18:30ean. Mankomunitateak aurreratu duenez, bilera horietan Udaleko

ordezkariak, teknikariak eta hondakinen bulegoko hezitzaileak egongo dira, industria arloan hiri hondakinen bilketak nola funtzionatu duen azaltzeko.

Bilera horiez gain, Mankomunitateko hezitzaileek lantegi guztietara egingo dituzte bisitak sistema berriarekin lantegi bakoitzak dituen behar zehatzak aztertzeko.

## NIRE USTEZ

OSCAR RODRIGUEZ



## Gora txibatoak!

Egundoko ezberdintasunak daude gu eta miresten ditugun Ipar Europako herrialdeen artean: berrikuntza ahaltasuna, *per capita* errenta, hausdura soziala... Beste ezberdintasun bati buruz, ordea, ez dugu horrenbeste hitz egiten: salatariaren irudiaz, txibatoaren irudiaz, alegia.

Hemen, txikitatik, irakasten digute salatariak ez izaten eta, baita ere, txibatoak kritikatzeko eta baztertzeko. Bien bitartean, hiritargoaren arabera, ustelkeria da daukagun hirugarren arazoa. Baina, txibatoak baztertzeko baldin baditugu, nola espero dugu ustelkeriaren kontrako salaketak izatea? Indarrean dagoen balio-eskalarekin, zein etorkizun

izango dute, adibidez, trapu zikinak eguzkitara atera nahi dituztenek euren alderdi politikoe-tan?

Aldaketa kultural sakona behar dugu. Bide horretan, proposatuko nuke txibatoari dagoz-kion benetako esanahiak berreskuratzeko – Espainiako Hizkuntzaren Akademiaren hiztegiaren denak baikorrak dira –. Prestigioa eman diezaiegun, balioan jarri dituzten.

Eta haietariko bat bihur gaitzen denok, gure enpresetan, ikastetxeetan, alderdi politikoe-tan, instituzioetan, erakundeetan. Akaso, horrela, arauak betetzen ez dituztenentzako egun dagoen zigorgabetasuna bukatuko litzateke. Ziur baitaude gizarteak ez dituela txalotzen salatzen dutenak.

Gora txibatoak!

**"Hemen, txikitatik irakasten digute salatariak ez izaten"**

## Loramendi elkartearen 50 urteak ospatzeko mendi ibilaldia eta beste antolatutako uztailaren 13rako

Bedoña auzoko Loramendi elkartearen 50. urteurrena dela-eta, hainbat ekintza egin dituzte urte osoan zehar. Bada, domeka hone-tan, uztailak 13, egingo dute ospakizun nagusia. Lehenik Galarrixako mendi ibilbidea egingo dute. 09:00etan elkartuko dira Loramendi elkartearen. Bertatik abiatuko dira eta bertan bukatu. Bi ordu eta erdiko ibilbidea izango da eta familiarekin egiteko modukoa, antolatzaileek esandakoaren arabera. Amaitzean, salda eta mokadutxoak izango dituzte mendigoizaleek. Bestalde, 10:00etan suzuria jaurtiko dute eta ikurriña jarri. Ostean, 10:15ean, haur eta nagusientzako jolasak egongo dira. Meza ere izango dute, 12:00etan, eta hau amaitzean, dantzak. Azkenik, 13:00etan lunch-a.

## NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | [blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/](http://blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/) | [twitter.com/arrasatepress](https://twitter.com/arrasatepress)



## Arrasate Telebista gertueu, AEDk eta Udalak akordixue egingonde

Xabier Zubizarreta alkatiak eta Joxemari Muxika AEDko presidentiek konbenixue firmatu euen, elkartien funtzionamendue eta etorkizune garantzetako.

Gaiñera, Arrasate Press-erako periodista bi, publizista bat eta maketadore bat kontratatu zittuen Udalak, AEDren ardurapean aldizkari horretan lan egiteko; eta lokalaren errentiez, mantenez, azpiegituretako inbersiñuek... horreittaz be Udala arduretuko zan; izen be, Press sortu zanetik izen zan holan.

Baiñe nobedade nagusixe izen zan Arrasate Telebista martxan jarteko pasue emun zala. Udalak periodista bi eta tekniko bi kontratatu zittuen eta lokalaren mantene, produkziño, emisiño eta postproduktiño-tresnak be pagauko zittuen, 13.710.000 pezetako presupuestuekin.

Eta euskerazko komunikabide danetako zuzendarixe be kontratatu euen: Joxe Aranzabal.

### Udelako eleixie

"Udalatx mendiaren malda aldapatsuetatik zintziliek, karaitzez eta artadiz inguratutik, paraje airoso eta eguzkitsuan ikus dezakegu Udala auzoko San Esteban eliza". Holan deskribiduten euen Jerardo Elorzak Udelako eleixie.

"Batzuen ustez, eliza honetako parrokoa zen Martin Abade ehiztari porrokata: zakurrak zaunkaka entzun zituenean, meza bertan behera utzi eta ehizaren atzetik arrapaladan ondoko basora abiatu zen apaiz ospetsua, alegia. Beste zenbaitek dioenez, Larrinoko abadea edo Leintzeko artziprestea zen ehiztari zalapartari hura. Dena den, beste eskualde batzuetako Mateo Txistu ezagunaren antzera, zakurrei jarraituz, batetik bestera eten gabe ibiltzea ei dauka zigortzat gure Martin Abade gizarajoak".

31. zenbakixe 1989-07-21



JOKIN BEREZIARTUA

## Anboto kaleko bidegorria, gertu

Azaleko lanak egin dituzte bidegorria baldintza egokietan jartzeko: zolatzea, ur bilketa eta argiteria egokitu. Hain zuzen, argiteria publikoa jarrita bidegorri zati honen segurtasuna indartu nahi izan da. Lanak Excavaciones Besaidek egin ditu eta 59.154 euroko kostua izan dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak 7.020 euroko diru laguntzan eman dio Udalari.



# Labegaraietako aisialdi-gunea indartzeko, ziburu berriak

Horiek jartzeko lanak hasi dituzte eta uztail erdirako amaituko dituzte

IRATI GOITIA | BERGARA

Labegaraietako aisialdi-guneko lanak hasi zituzten joan den astean. Makinak zuloak egiten hasi dira zelaian, bi ziburu berri jartzeko: 50 metro luze izango den tirolina (bi ume batera joateko modukoa) eta piramide formako sarea. Horiez gain, bi ping-pong mahai ere jarriko dituzte. Uztailaren erdialderako lanak amaituta egotea aurreikusten da eta aurrekontua 30.000 euro ingurukoa izango da.

## Labegaraieta, aisialdi-gune

"Labegaraieta aisialdia bideratzeko oso espazio polita izan daitekeela ikusten dugu", adierazi du Leire Iruin zinegotziak. Guneak erabilera asko eta aisialdirako belargune handiak dituela esan du, eta bidegorritik bizikletaz bertara joateko bide ona dagoela nabarmendu. Hala, jende asko erakartzen duen espazioa dela dio, batez ere, asteburuetan. Eta berau indartzeko jarriko dira ziburu berriak. "Egun dauden saskibalo, eskubalo, tenis edo futbol pistekin; aisialdirako gune berriekin;



Tirolina jartzeko erreka ondoan egin duten zuloa (eguzteneko argazkia). | OIHANA ELORZA

zelai-guneaz; eta piraguentzako gunearekin, osotasunean, oso espazio txukuna geldituko dela ikusten dugu", gaineratu du Iruinek. Piraguentzako guneko lanak zatika egiten dabilta. Aurten, heskaia (setoa) moztu eta baranda jarriko dute. Hein batean, ureta-

rako sarbidea hobetuko dutela zehaztu du Iñaki Ugarteburuk, Kirol teknikariak. Ez dago finkatuta lanak noiz egingo dituzten.

## Auzotarren ekarpenekin

Piraguentzako guneko lanak Beti-Busti elkartarekin batera ados-

tu ziren. Bada, orain hasi dituztenak egiteko auzotarren iritzia jaso nahi izan du Udalak. "Ekarpenak egin dituzte eta horiek kontuan izan dira. Herri osorako gunea da, baina nahi izan dugu bertako auzotarrez alderaketa bat egin", argitu du Iruinek.

# Juan Antonio Palaciosen argazki dotoreak daude Aroztegin hilaren 20a arte

Paisaieak, kirolariak, natura biziak eta hilak... isiltasuna eta dotorezia erakusten dute lanek

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Egubakoitzaz geroztik Juan Antonio Palacios (Eibar, 1942) argazkilari beterranoaren lan ederrek jantzi dituzte Aroztegin hormak. Paisaiak, kirolariak, natura biziak eta hilak... Guztiak elkartu ditu Barrenkalen dagoen aretoan, bergararrek eta kanpotik datozenek goza ditzaten uztailaren 20a bitartean. Hona ordutegia: martitzenetik egubakoitzera: 18:00etatik 20:30era; zapatuetan: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan: 12:00etatik 14:00etara.

## Sari asko dituen argazkilaria


Natura du gustuko Palaciosek, isiltasuna, dotorezia; eta horixe erakusten dute haren lanek, paisaieak zein gainerakoek. Honako berbokin laburtu du haren lana Felix Morquecho kazetariak: "Palaciosi ez zaio gustatzen zarata sortzea, nahiago du hiritik irten eta naturan jartzea bere begirada. Hor dena sartzen da, enkoadraketa barruan dena sar-

tzen baita. Bere argazkietan kolorea dago eta zuri-beltza ere bai, pertsonak eta paisaiak daude, tentsioa dago eta bakea dago, edertasuna dago eta galderak ere bai. Eta hori guztia jasota dator paperean, karratua da, klik bat da".

Eta argazkilari eibartarra sari asko jasotakoa da, horien artean, brontzezko domina *Aqueducte* nazioarteko lehiaketan, 2008an (Cedanyola) eta Aste Santuko bilduma onenaren saria 2010ean, Suecan (Valentzia). Aurten, ostera, brontzezko domina eskuratu du *Salon Woman* lehiaketan Serbian, eta lehenengo diploma *2. Greek Photographic Circuit* lehiaketan, Rodasen (Grezia).

## Beste erakusketa batzuk

Aroztegi aretoan beste bi erakusketa izango dira iraila bitartean: Celia Eslavaren eskultura erakusketa uztailaren 24tik abuztuaren 10era; eta Iñaki Olazabalen eskultura erakusketa abuztuaren 14tik irailaren 7ra.



Juan Antonio Palacios argazkilariaren lanak, Aroztegin. | IMANOL SORIANO

## Beste erakusketa batzuk

Bergaran beste erakusketa batzuk ere badaude uztailean, bost tabernetan hain zuzen ere. Dixulan, Manu Montiel argazkilariaren lanak daude; Nahikarin, Maite Carrilloren pintura lanak; Hamaika tabenan, Juanjo Altunak egindako akrilikoak; Pol-Polen, Jesus Mari Zabaletaren pinturak; eta Raizabal gozotegian, Selena Lizazabururen pinturak.

## NIRE USTEZ

YON SUINAGA



Ipuin txinatar bat

1997an, lanagatik, Txinako hiri baten egon nintzen hilabete pare bat, Internet eta telefono barik. 20º zero azpitik eta haizeak Siberiako hotza edo Gobi basamortuko harea ekartzen zuen.

Herri erdian zentral termiko bat. Goizeko 4:30ean zorarena hasten zen; errepide kaskarretan kotxeak kontrol barik klaxona jotzen eta ehunka bizikleta pasatzen, nahiz eta euria edo elurra egin. Pobrezia bai, baina miseria ez zen ikusten. Txakurren haragia oso preziatua. Etxe latzak eta txabola asko. Kaleak urbanizatu gabe; lankidea kaletik zihoan gora begira kable elektrikoekin ez tratatzeko eta tapa gabeko estolda batetik jausi zen. Lantegian, dozena bat langile beti guri begira, behin berrogei txino zenbatu nituen. Normala zen txinoak lotan aurkitzea armairuko apaletan. Hitz gutxiarekin, keinuekin eta marrazkiekin ulertzen genuen elkar. Haien galderak beti berdinak: kotxea duzu? Eta etxea? Zenbat ordaindu duzu hegazkinaren ticketa? Erantzunekin harrিতuta eta liluratuta gelditzen ziren, helburu lortezina zen haiendako!

Hiru bosturteko geroago, hiri beretik pasatu naiz eta ni gelditu naiz harrিতuta eta liluratuta. Bizikletak ia desagertu dira, errepide kaskarrak autobide bihurtu dira. Kaleak txukun urbanizatuak. Txabolak zeuden lekuan, hormigoizko eraikinak. Langileak, kotxe edo etxearen jabeak. Hori bai, hor jarraitzen dute poluzioak eta trafikoaren zorametak.

Munduko diktadura handien agintariak bazekiten egoera eutsiezina zela. Erabaki zuten askatasunen falta mantentzea baina ondasun materialak herrira zabaltzea. Momentuz, mila-miloi txino dira iphone batekin konformatu. Askatasunaren eskaera aurrerago etorriko da.

## 'Fosfatorik gabeko estaldurak eta FEM simulazioa'

Miguel Altuna Institutuak, ASEF Irekin batera, uztailaren 10erako jardunaldi tekniko antolatuta du: *Fosfatorik gabeko estaldurak eta FEM simulazioa*. Ekitaldia goizeko 09:00etatik 13:30etara izango da, non inguruko 30 nahiz estatu mailako enpresa baino gehiagok izena eman duten. Argibide gehiago: [www.femforging.eu](http://www.femforging.eu).



# Maiztegiren eskutik inpresionismoa ikusgai

Maria Luisa Maiztegi margolariaren lanak ikusgai daude uztailearen 13ra arte kultura etxeko aretoan

MAIDER ARREGI | OÑATI

Maria Luisa Maiztegi (Oñati, 1924-2012) zenari omenaldi polita egin dio Mikel Ugartek. Hala, artista oñatiarraren 44 lan batu eta ikusgai jarri ditu herrian (egunero 18:00etatik 20:00etara). "Maria Luisak nagusiki ukitu erromantikoa duen inpresionismoa lantzen zuen. Erakusketa honetan, espresionismoarekin lotuta ere badaude zenbait lan", kontatu du.

Olio teknika dominatzen zuen bikain Maiztegi; dena den, erakusketa zenbait lan akuarelaz eginda ere ikus daitezke. Askotariko paisaiak dira erakusketa-aren ardatz: basoak, itsasoa, mendia... Baina, zalantza barik, emakumea da erakusketa-aren protagonista nagusia. "Emakumeak margotzen zituen soilik, inoiz ez gizonezkoak. Biluzik, bainua hartzen, aurpegiak... beti emakumeak margotzen zituen".

## "Positiboa eta indartsua"

Mikel Ugartek ahalik eta artelan gehienak batzeko saiakera egin du. "Maria Luisa 2008an ezagutu nuen. Oso artezalea naiz, bereziki pinturazalea naiz. Nire etxean eta familiakoan etxean artelanak ikusten nituen eta jakin-mina nuen bera ezagutzeko. Berarekin elkartu eta emakume irekia eta kulturaren oso jantzia zena ezagu-



Maria Luisa Maiztegiren erakusketa, kultura etxean. | MAIDER ARREGI

tu nuen. Bizitzaren aurrean positiboa eta indartsua. Aholku oso onak eman zizkidan. 88 urte zituen eta nik, 32".

Erakusketa horren helburua, besteak beste, omenaldia egitea dela kontatu du: "2012an hil zen eta omenaldia egin nahi nion; merezi baitzuen Oñatiko herriak nolako lana egin zuen ezagutzea. Modu pertsonalean eta artistikoan egindako omenaldia izan da".

Udalak erakusketa antolatze-ko emandako laguntza azpimarratu gura izan du Mikel Ugartek: "Udala eskertu gura dut eman didan erraztasunengatik".

## Udazkenean gehiago

Maria Luisa Maiztegiren pintura erakusketa uda sasoiko azkena izango da. Izan ere, hurrengo irailaren 22tik 12ra bitartean jarriko dute. Herriko festetako margo lehiaketako lanak izango dira ikusgai bertan.

Urriaren 13tik 26ra *Udazkena ilunpetan* erakusketa jarriko dute. Aldundiak antolatuta, berriz, urriaren 27tik azaroaren 9ra *Euskara ospeletik eguterara* izeneko erakusketa egongo da.

Eta azaroan, Mendi Astearen baitan, erakusketa zabalduko dute 10etik 23ra bitartean.

## Uztailean egingo duten bizikleta konpontzeko tailerra hizpide Txirrinkak egingo duen bileran

Uztaileko bilera egingo du gaur, astelehena, bizikletazaleen Txirrinka taldeak. Besteak beste, uztailean egingo duten gosari sorpresa eta bizikletak konpontzeko tailerra izango dituzte hizpide. Uda ostean egingo den Mugikortasun Asteari buruz ere jardungo dute, eta ekaineko ekintzen balorazioa egin. Hain zuzen, ekaineko gosari sorpresa eta Zubillagako jaietara egindako bizikleta irteera aztertuko dituzte. Bilera, hileroko moduan, Zubikoa kiroldegian izango da, 19:15ean. Bizikletazale guztiak daude gonbidatuta. Norbanakoen ekarpenak ere jasoko dira.

## Sanferminetako entzierroak egingo dituzte bihar Foruen plazan udaleku irekietako gaztetxoek

Sanferminak ospatuko dituzte bihar, martitzena, udaleku irekietan. Hala, Foruen plazara joango dira ume eta gaztetxoak euren begiraleekin. Bi entzierro egingo dituzte, ibilbide motzekoa txikiendako eta ibilbide luzekoa gaztetxoendako. Gainera, aurtengo zezenak bereziak izango direla aurreratu dute begiraleek. Talde horian dauden umeek biharko egunerako prestaketa lanak egingo dituzte gaur. Bihar, dena dela, txikiak eta handiak zuri eta gorri jantzita joateko dei egin dute begiraleek.

## Ventos de Saudade taldeak joko du eguaztenean Lazarraga parkean, Klean egitasmoaren barruan

Ventos de Saudade taldeak kontzertua egingo du etzi, eguaztenean, Lazarraga parkean. Klean egitasmoaren egitarauak jasotzen duen kontzertuetako bat da. Udako kultura eskaintza kalera ateratzea du helburu Klean egitasmoak, eta aurtun, *dukeen parkea* moduan ezagutzen dena ere sartu du ekitaldien espazioen barruan. Ventos de Saudade taldea Soraluzekoa da eta hango lagun kuadrilla batek osatzen du, fadoak eta Portugaleko musika tradizionalaren zaleak denak. Emanaldia 19:00etan da.

## Hondakinen informazio bulegoak udako ordutegia du eta bulego ibiltaria mantendu egiten da

Hondakinen informazio bulegoak goizeko ordutegia izango du uztailean eta abuztuan. Hala, 09:00etatik 15:00etara egongo da zabalik. Horrez gain, baina, eta lehen saioak izandako harrera ona ikusita, mantendu egingo da Olakua auzoko bulego ibiltaria. Aurrerantzean, eta gaur, astelehena, hasita, hileko lehen eta hirugarren astelehenetan Olakua dorrean egongo da bulegoa. Egun horietan, Kale Zaharrekoa itxita egongo da.



**Kiroldegira  
ere, patinete  
gainean; nola  
bestela!**

Garraibide ona da patinetea gaztetxoendako batetik bestera joateko. Gurgil gainean jarri eta herriko toki batetik bestera erraz joateko modua da, eta gaztetxo askok erabiltzen dute herrian. Ikasturtean zehar ere patinete gainean joaten dira asko eskolara eta handik eskolaz kanpoko ekintzetara. Eta udako oporretan ere bai. Kirol kanpainan izena eman duten asko patinetean joaten dira Zubikoara. Bejondeiela!

## NIRE USTEZ

AITOR  
UGALDE



## Igande eguerdian

Igande eguerdia da eta burua altxatu ezinik nago. Bakarren batek pentsatzen badu bezperako parrandaren ondorioa dela, ez dabil oso oker. Ez dakit atzokoari parranda deituko diodan, baina hurbiltzen da. Auzoko jaiak izanik, lagun artean poteoa aurrena, gauza beretsua egiten zuten beste askoren ondoan, horien artean hain gurea den poteoan lehen urratsak naturaltasunez ematen zituzten gure gaztetxoak. Bertsolariak ere bai jaietan, txanda librean kantuan; bezperako parranda eta egun horretako bixamona gehien aipatu zuten gaia. Gogoan hartu nuen, baina jada erdi ahaztu zaidan bertsoaren oinak berriz: egurra, muturra, lurra

eta atxurra. Poteoaren eta bertsolarien ondoren afaria, mahai bueltan jan-edan onak konpainia ederrean; ondoren, taberna batetik bestera giro bikainean, trago bat taberna batean eta beste bat hurrengoan.

Eta halako batean, aldapa gora tropelari jarraitu ezin dion txirringularia bezala, etxera, tabernatik tabernarako martxa jarraitu ezinda, etxeratze baina kalean geratzeko gogo gehiagorekin. Etxera bidean, gauak babestuta, nire kontraesanetan arakatzen, gustora egon eta etxera noa, edan beharra dago festan jarraitzeko? Eta beste hainbat. Goizean pentsamendu horien arrasto lanbrotsua eta egonezina. Ez nuen ba parrand handirik egin, baina hau buruko mina! Eta zutabe hau astelehenean argitaratzeko prest izan behar.

**"Auzoko jaiak  
izanik, lagun artean  
poteoa aurrena"**





Joan den urtean plazan egindako lehen eguneko desfilea. | MIRIAN BITERI

## ESKORIATZA

# Gaur hasiko dira 260 bat ume udaleku irekietan

Aurten kulturartekotasuna jorratuko dute, jolasak eta errezetak eginda

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurtengo udaleku irekiei ongiertoria egingo diete gaur, astelehena, Eskoriatzan. Gazteria teknikari Maider Etxanizek azaldu du aurten 260 haurrek parte hartuko dutela horietan; 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak dira guztiak. Bada, dena behar bezala irten dadin, 27 begiraleko lantaldea izango dute umeek, bi zuzendariz osatuta dagoena, hain zuzen ere.

Betiko moduan, gertatzen dituzten ekintzetan kirola, natura eta jolasa uztartuko dituzte, betiere euskaraz. Baina, horrez gain, urtero gai zehatz bat jorratzen dute, eta aurtengo udalekuetan kulturartekotasuna landuko dute; horren harira, Etxanizek nabarmendu du askotariko herrialdeetako jolasak eta errezetak egitearekin batera, herrialde horietako hainbat hitz ere ikasiko dituztela.

## Gaur desfilea

Ekintzei dagokienez, eta ohiturari jarraituz, gaur bertan aurkezpen moduko bat egingo dute, jolasak eginda. Jinkana erraldoia eta Gamarra eta Gopegira irteerak ere izango dituzte; eta nagusiek baita kanpaldia ere.

Uztailaren 24ra arte izango dira udaleku irekiak ordutegi honetan: goizez, 10:00etatik 13:00etara; eta arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara bitartean.

## ARETXABALETA- ESKORIATZA

## 'Udaero' programa jarriko dute abian gaztelekuetan

Uztailaren 14tik 17ra egingo duten 'Gazte Konkis' abenturan bi herritako 40 gazte elkartuko dira

M.B. | ESKORIATZA

Etxeko txikienek udaleku irekietan eta gazteek Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztelekuek elkarlanean antolatutako Udaero programan parte hartzeko aukera dute gaurtik hasita. Joseba Gabilondo koordinatzaileak azaldu du lehenengo aste horretan gazteleku "bakoitza bere aldetik" ibiliko dela. Aretxabaletan, esaterako, Gazte Udalekuak ekimenaren bueltan antolatutako ekintzak egingo dituztela

egubakoitzera bitartean; izena eman duten gazteekin batera adostuko dituzte egunotan horiek; Eskoriatzan, berriz, inork ez du izenik eman, eta, hortaz, egunean bertan egingo dituzte planak.

Bestalde, Gabilondok gaineratu du uztailaren 14tik 17ra bitartean gazteleku bietako gazteek Leixargaraten egingo duten *Gazte Konkis* abenturarako plaza guztiak bete egin direla; hain justu ere, 40 lagun elkartuko dira han.

## ESKORIATZA

## Eguenera arte daude ikusgai hainbat laguntza

M.B. | ESKORIATZA

Eguenean, hilak 10, amaitzen da Eskoriatzako Udalak kale-ratutako hainbat diru laguntza emateko oinarrien pleguari erreklamazioak aurkezteko epea.

Hain justu ere, kirol arloko ohiz kanpoko jarduerendako, gizarte zerbitzuetan diharduten elkarteendako eta garapen bidean dauden herrialdeekiko laguntzetan aurkez daitezke horiek herriko udaltxeko Erregistro Nagusian, ordutegi honetan: 09:00etatik 14:30era bitartean.

## ARETXABALETA

## 'Konga' antzezlan eskainiko du Trapu Zaharra taldeak eguaztenean Durana kalean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kale antzerkia da protagonista Kultura Sailekoek gertatutako egitarauan, eta datorren eguaztenean *Konga* antzezlan eskainiko du Trapu Zaharra taldeak (19:00). Mikel Laskurain eta Miren Gaztañaga aktore beterranoek umorea ardatz duen istorio xelebrea ekarriko dute Durana kalean. Desanparatuen sindikatua momentu latzak pasatzen dabil eta langile gehiago behar ditu. Irtenbidea da, coaching bitartez, langabezia

luzaroan daudenak birmoldatzea. Eta horren ardura apaiz batek du.

## 'Maléfica' udako zineman

Udako zinema iritsiko da datorren astean Arkupera. *Maléfica* (Estatu Batuak, 2014, 97 min.) filma emango dute astelehenean, martitzenean eta eguenean, Zaraia aretoa, 19:00etan. Grimm anaien *Loti ederra* ipuineko sorgin gaiztoa da Malefica, eta oraingoan Angelina Jolie aktorearen aurpegia du.



Trapu Zaharra taldea Eskoriatzako aurtengo sanpedrotan. | GOIENA

## Diru laguntzen gaineko plan estrategikoa onartu du Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Diru laguntzen gaineko plan estrategikoa onartu zuen joan den astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran udalbatzak. Izan ere, errekerimendua iritsi zen maiatzean Udaleria Espainiako Gobernuaren ordezkariaren izenean, presoen senideei garraiorako bideratutako partida baten ondorioz.

Plana dagoeneko eginda daukate, eta orain, 30 egun egongo da jendaurrean ikusgai. Alegaziorik ez badago eta onartu ostean, laguntzok banatzen jarraituko du Udalak. Hori horrela, lasai egoteko esan zien

Ana Bolinaga alkateak herritarrei eta elkartei.

## Abdikazioaren mozioa

Juan Carlos Borboikoaren abdikazioaren gaineko mozioa ere onartu zuten osoko bilkuran, nahiz eta EAJko zinegotzi Haritz Solupek bozkatzerik ere ez zuela merezi esan. Hala, onartu zuten "herri honek" ez diola "zilegitasunik onartzen Espainiako koroaren inongo ordezkari"; eta Euskal Herriaren "erabakitze eskubidearen alde" lanean jarduteko dei egin zieten alderdiei, sindikatuari, eragileei eta herritarrei.

## NIRE USTEZ

NURIA FDZ. DE ARROIBAE



Atxabalta barik Aretxabaleta (II)

Aurreko baten tarte hone-tantxe esan notsuenez, euskarri informaletan gure berbetan eskribidutia erabagitzen badogu, irizpide batzuk biher dittugu. Besterik ezien, euskalkixen inguru-lan haundixa egin dauen Badihardugu Alkartiak emundakuak hartu geike oiñarri moduen.

Lehenik, berbak osorik eta banatuta eskribidutia (*Aretxabaleta*, egin biher dogu, fan biherko die...).

Salbuespenak: bapez eta bape.

Bigarrenik, batuko ortografia-arauak betetia: *h* (*mahaixa*, *mehia*, *aiztia*...), *z/s* eta *ts/tz* (*isiotu*, *itzungi*, *dotsu*...), *r->d* (*edo*, *moduen*, *eskribidu*...), bokal arteko *g* (*nagusi*, *geruago*, *dogu*, *ezaguketan*...), berba bera bi modutara ibiltzen bada batutik gertuen dauena (*subia*[EZ]/*sugia*, *mendixa*/*mendixe*[EZ]...).

Hirugarrenik, bustidurak idaztia (*laiño*, *oillo*, *bilddurra*, *egindda*, *aitta*, *gatxa*...), baiña berba-akaberakuek ez (*dakit*, *zein*...). Laugarrenik, deklinabidien: noren eta nun kasu batzuetan bardiñak dienez (*mendixaren izena*, *mendixen auen*), partitibua osorik (*umerik*), datibuaren *r* (*umiari*, *amari*...), zeñentzat barik zeñendako (*amarendako*, *guretako*...), singularrien nogaz (*batez be*) eta norekin (*amagaz*, *semia-*

*rekin*) eta pluralien zeñekin (*alabakin*), norutz (*etxerutz*), nor plurala eta nork plurala ez die bereizten (*alabak etorri die*, *alabak egin daue*).

Azkenik, *be*, *ete*, *ei*, *ezkero*, *-ziño*, *-dade*, *barrez* (adbersatibua), *letxe*, *lez*, *lako*, *-ren gaiñien*/inguru-lan...), *urten* eta *igo* transitibuak (*urten/igo dot*), *-ki* barik *-to* (*politto*)...

Ezertarako balixo badotsue, on egin dagizuela!





Torrealdea kaleko eraikinean auzotarrek ipinita oharrak. | L.Z.

**ELGETA**

## Losetak jausten ari direla-eta, kontuz ibiltzeko oharrak ipini dituzte Torrealdean

7., 8., 9. eta 10. atariko bizilagunak haserre daude; orain sei urte egin zituzten fatxada berritzeko lanak, eta losetak jausi egiten dira

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Amorrazioa, etsipena, haserre... Torrealdea kaleko bizilagunek sentipen kontrajarriak dituzte, baina denen gainetik inpotentzia nagusitzen da. Duela sei urte egin zituzten eraikineko fatxadako berritze lanak. Beroak ihes egin ez zedin eraikina termikoki isolatzeko lanak izan ziren. Bestelako onuren artean energia kontsumoaren fakturen murrizketa, erosotasuna eta kondentsazioaren eraginez sortzen diren hezetasun multzoen desagertzea agindu zituzten.

Kontua da lanak egin zituen eraikitzaileak porrota jo duela, eta bizilagunek ez dutela kontuak non eskatu.

**Oharrak fatxadan**

Torrealdeako bizilagun batek

jakitera eman duenez loseta bat baino gehiago jausi da dagoeneko: "zazpi edo zortzi bat", adierazi du. Horregatik, eta arriskua dagoela ikusita ez gerturatzeko oharrak ipini dituzte atari aurreko aldeetan. Ohar horietan gatzeleraz zein euskaraz irakur daiteke ondorengo mezua: "Kontuz. Ez pasa leku honetatik. Pareatik losetak jausteko arriskua. Torrealdeko Junta". Oharrak orain hamabost bat egun ipini zituzten.

Duela sei urte antzerako isolamendu lanak egin zituzten herriko beste bi eraikinetako fatxadetan, eta kasu horietan ez dute aparteko arazorik sumatu.

**Orain zer**

Arazoari zein irtenbide eman ondo aztertu beharko dute Torrealdean. "Mingarria da inbertsio

handia egin genuelako. 24 etxebizitza daude lau atari horietan eta badirudi segurtasun kontuengatik aldamia ipini beharko dugula lehenengo eta behin. Gero ondo aztertu beharko dugu nola jokatu".

Haserre daude Torrealdean. "Ez dago eskubiderik. Dirutza ordaintzen duzu etxean hobekuntza lanak egiteko, lana gaizki egiten dizute, eta sei urtera losetak jausten dira. Eta zer gertatzen da? Ez duzula kontuak nori eskatu! Legeak iruzurgilea babeste du!", adierazten zuen haserre beste bizilagun batek.

**LEINTZ GATZAGA**

## Sastrakak eta belar luzeak mozten dihardute herriko txokoetan

San Martin auzoa txukundu ostean, gainontzeko baserri-auzoak garbituko dituzte

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udalerriko erdiguneko sastraken garbiketa eginda dago, baita San Martin auzoarena ere. Atzo, domeka, bertako jaieguna izanik, txukun utzi gura izan dute auzoa ordurako udal langileek. Orain, bada, gainontzeko baserri-auzoak garbitzea falta da. Gutxi gora-behera, hamar kilometro bide

eta bazter garbitzen ditu Jausoro udal langileak sasoi honetan.

Gainontzean, Dorletarako bidea garbitzeke dago. Azken hori, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zeregina da. Bertako langileak egunotan dabilta inguruko errepideak garbitzen. Eta horren segidan ekingo diote santutegirako bidea garbitzeari.



Dorletarako bidea. | U.M.

## Kuadrillen arteko pikea eta herri afaria gaur, sanmartinen azken traka moduan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Egubakoitz iluntzean Triki Kalejira trikitixa taldeak sanmartinen hasiera iragartzeko suzuria bota zuenetik, festa giroak ez du etenik izan aste-buru osoan. Bada, oraindik aramaioarrek egun bat izango dute herriko jai nagusiez gozatzeko. Azken eguna da, aramaioar askorendako festetako egun bereziena. Kuadrillen

arteko pikea (16:00) eta Bizente Goikoetxea plazan egingo den herri afaria (21:30) dira ekitaldi nabarmenenak. Antolatzaileek espero dute lau edo bost kuadrilla aurkeztea. Askotariko jolasak egingo dituzte eta urtero moduan, giro ederra jarriko dute parkean. Herri afarirako, berriz, 70 bat lagunek eman dute izena; baldintza bakarra, mozorrotuta agertzea.



Gazte kuadrillek pikea egingo dute gaur parkean, 16:00etan. | MIREN ARREGI

## 'Euskal Herria' kartela inauguratu dute beste inork baino lehen

Jaien txupinazoaren ostean Aramaioko seinale berria inauguratu zuten: herri sarreran dagoen kartela, *Euskal Herria-Basque Country* dioena. Udalbiltzak diseinatutako kartela da eta berak bultzatutako ekimena, eta Euskal Herriko beste herri batzuek ere ipintzeko asmoa dute.



Kartel berria. | IMANOL GALLEGO

**ANTZUOLA**

## 'Ez dot moztuko bizarra' taldeak antolatu du domekako herri bazkaria

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

*Ez dot moztuko bizarra* taldeak lehenengoz antolatu du herriko jaietako domekan egin ohi den herri bazkaria. Dena eurek egingo dutela azaldu dute: txartelak salgai jarri, mahaiak eta aulkiak ipini, mahaiak zerbitzatu eta ekintza aurrera eraman. Jaso, berriz, bazkaltzen duten guztien artean jaso beharko dute. Menua hauxe da:

entsalada mistoa, oilasko-paela, postrea eta kafea. Prezioa 14 euro da eta txartelak gaztetxean eros daitezke, uztailearen 16ra arte.

Eguen gaueko afarirako eta barikuko herri bazkarirako, ordea, ez dago izena eman beharrik. Denendako nahi adina mahai eta jarleku egongo dira. Afalostean, denen artean jaso beharko dituzte mahaiak.



Antzuolarrak, jaietako domekan egiten duten herri bazkarian. | GOIENA



# Goiena Klubeko uztaileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



## Motxila eta umeentzako lau ipuin

Arrasateko Intersport Loramendi dendak emandako Quicksilver motxila eta Pamiela argitaletzeko lau ipuin.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Motxila eta ipuinak



[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

**Otarra**  
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:  
Otarra



**ARRIKRUTZ**  
oñatiko kobak

**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Arrikruz



**Gargia**

**Jokoa**  
Kirolaz Badakit 2 joko.  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Jokoa



**PAMIELA**  
argitaletxea

**Liburua**  
'Hiru gutun Iruñetik' Patxi Zubizarretaren hiru liburu.  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Liburua

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.  
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.  
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# KIROLA

AUTOMOBILISMOA

## Aitor Zabaleta eta Aitor Ramirez onenak Arlabanen

- ▶ Kolpe gabeko eta matxura gutxiko igoera izan da
- ▶ 43 partaidek hartu dute parte eta lauk utzi dute

**A. TXINTXURRETA | LEINTZ GATZAGA**  
Ibilbide azkar eta teknikoa duen Arlabango igoera ezusteko gutxi-koa izan da. Iaz bezala, podiumeko monoplazzen lehen postua Aitor Zabaleta bergararrak lortu du 3:04.751 minutu eginda, eta turismoetan, berriz, Aitor Ramirez oñatiarra izan da azkarrena 3:26.053 minutu eginda.

Zabaleta "pozik" zegoen lasterketa bukatu eta gero. Lehenengo txandan denbora ona egin ostean, bigarrean bateriaren pieza bat apurtu eta ezin izan du autoa martxan jarri. Beste batera bat jarri dio, baina kale egin dio autoak. Hala ere, lehen txandan egindako denbora onak bere saria eman dio. Lola BMW autoarekin lehiatu da, beti bezala; 2.500 zentimetro kubiko, lau zilindro, 400 zaldi eskas eta piloto gabe 650 kilo dituen autoarekin, hain zuzen.

Ramirez ere "gustura" zegoen egindakoarekin. Azken lau lasterketetan arazoak izan ditu autoarekin, baina Arlabangoan ez du arazorik izan eta bere helburuak beteta itzuli zen etxera. BMW 320 ST autoarekin lehiatu da; lau zilindrotako eta 2.000 zentimetro kubikotako motorra duen auto azkar baina konplikatuarekin, hain justu.

Monoplazetan, Balmasedako Joseba Iraolak lortu du bigarren postua Demoncar autoarekin eta Oñatiko Ruben Nogueiras hirugarren gelditu da Silver Car S2arekin. Turismoetan, berriz, bigarren denbora onena egin du

Markel Zestafe bergararrak Mitsubishi Lancer Evo VI autoarekin, eta hirugarren postua Iurretako Jose Ignacio Erdoizak eskuratu du 33 urte dituen Renault 5 Tour de Corse autoarekin.

Emakumeei dagokienez, bik hartu dute parte eta Monica Muñoz oñatiarra izan da azkarrena 3:55.949 minutu eginda. Citroen ZX 16v autoarekin lehiatu da. Parte hartu duen bigarren neska Sarai Vega izan da baina bere

lehen urtea da lasterketetan lehiatzen eta denbora dezente atera dio oñatiarrak.

### Antolatzaileak "pozik"

Ibilbidea iazkoa baino luzeagoa izan da aurten, guztira 6,360 kilometro izan ditu, eta antolatzaileak "pozik" daude. "Urte guztian zehar lan egiten dugu igoera antolatze-ko eta guztia oso ondo irten da", esan du antolatzaile taldeko Ander Corcuera.

### ESANAK

**"Eskerrik asko lasterketako babesle eta laguntzaile guztiei"**


ANDER CORCUERA | ANTOLATZAILEA

**"Lasterketa garbia izan da, normalean baino matxura gutxiagokoa"**

E. MATURANA | SEGURTASUN ORDEZKARIA



Bihurguneetan jendea izan zen auto igoeraren ikuskizunaz disfrutatzen. | A.T.



Aitor Zabaleta eta bere Lola BMWa, Arlabango igoeran. | AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA



Joseba Frutos eskoriatzarra, irteteko gertu. | I.S.



**RAFAEL DIAZ**  
PILOTUA

"Abariziak jan nau; aurrekoan denbora ona lortu dut baina hobetzen saiatu naiz eta autoak ez du jasan. Auto zaharra da, zeramikazko enbragea du eta, behar baino gehiago berotu denez, hemen geratu behar izan dut".



**JUAN ANTONIO GARTZIA**  
LAGUNTZAILEA

"13:00etan etorri gara bertara. Gure ardura ikusleak kontrolatzea da, toki arriskutsuetan ez daitezke jarri. Aurten nahiko formal dabilta. Amaitzen denean ere bertan geratzen gara tokia txukuntzeko".



**MONIKA MUÑOZ**  
PILOTUA

"Gustura ibili naiz gaurkoan. Entrenamenduetan autoa probatu dugu; izan ere, aurreko lasterketan arazoak eman zizkidan, eta lasai irten naiz. Lehenengo ofizialean marka ona egin dut eta azkena ez da horren ondo irten, baina pozik".



**AITOR ZABALETA**  
PILOTUA

"Igoera polita da Arlabangoa. Bidean, guri min handiagoa egiten diguten lau bat salto txar daude, lurretik oso gertu goaz-eta, hala ere, azken urte honetan nahikotxo hobetu dute errepidea. Ea datorren urtean dena konponduta dagoen".



**RUBEN NOGUEIRAS**  
PILOTUA

"Egubakoitzean gauz egon nintzen lanean eta amaitu ostean entrenatzera etorri nintzen. Ostean aireportura joan nintzen eta 07:00ak inguruan berriz ere buelta pare bat eman nituen lasterketa hobeto prestatzeko".



## 26 | MOTORRA | Jende asko ibili da Markuleteko lehenengo auto erakustaldian



Irteera puntuan, auto bat abiatzeko prest. | IMANOL SORIANO

### SAILKAPENA

#### MONOPLAZAK

1. **Aitor Zabaleta** 3:04.751
2. **Joseba Iraola** 3:11.756
3. **Ruben Nogueiras** 3:14.036

#### TURISMOAK

1. **Aitor Ramirez** 3:26.053
2. **Markel Zestafe** 3:30.411
3. **J. Ignacio Erdoiza** 3:35.305
4. **Asier Samaniego** 3:35.657
5. **Jon Etxeberria** 3:37.576
6. **David Pelaez** 3:39.244
7. **Egoitz Mujika** 3:39.557
8. **Aitor Frutos** 3:42.202
9. **Asier Mugarza** 3:44.566
10. **Jorge Espinosa** 3:45.000
11. **Iñigo Errasti** 3:45.274
12. **Mikel Seco** 3:49.151

13. **Andoni Mugarza** 3:49.618
14. **Jon Arregi** 3:52.691
15. **Ioritz Alkorta** 3:54.968
16. **Iñaki Racamonde** 3:55.908
17. **Rafael Diaz** 3:55.990
18. **Joseba Frutos** 3:56.629
19. **Eloy Redondo** 3:57.748
20. **J. M. de la Fuente** 3:57.819
21. **Lopez de Gereñu** 3:57.891

#### EMAKUMEA


1. **Monica Muñoz** 3:55.949



Aitor Ramirez eta bere BMW 320 ST autoa, igieran. | AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA



Julen Altunaren BMW 325i autoa begirutzen. | I.S.



Ibilbidea egin aurretik, motorra ondo dagoen ziurtatzen. | I.S.



Monica Muñoz, igieran. | A.T.



Asier Samaniego oñatiarra BMW M3 3-36 autoaz, Arlabanen. | I.S.



## AUTOMOBILISMOA

# Motor zarata eta goma erre usaina, auto klasikoaren erakusketaren ostean

- ▶ Erakusketan 40 auto izan dira ikusgai, Corvette Stingray eta Lotus Eliseoa, tartean
- ▶ Lasterketan 30 pilotuk hartu dute parte; Igor Urien Formula 3ko pilotuak, besteak beste

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Elgoibar, Eibar, Bilbo, Azpeitia, Markina... Toki ugari 40 auto izan dira ikusgai Markuleteko industria gunean, domeka goizean. Besteak beste, auto hauek ikusi ahal izan dituzte bertaratutakoek: Corvette Stingray, Porsche 944, Caterham, BMW M3, Hurtañ, Citroen Tiburon DJ3, Lotus Eliseo, BMW 850i, Lance Integrale, Jaguar, Renault R5... Auto klasiko ugari izan dira erakusketan, baita bestelakoak ere.

Arratsaldean, berriz, 30 pilotuk hartu dute parte industria gunean egindako zirkuituan. Ikusle ugari izan dira irristatzeak eta horrelakoak nola egiten zituzten ikusten, eta motor zarata burrunbatsuak eta gasolina eta goma erre usain sarkorra izan dira arratsaldeko jaun eta jabe.

## Pilotu ugariaren topaleku

Bertan izan da, esaterako, Formula 3n lehiatzen den Igor Urien pilotu abadiñarra. Urien iaz hasi zen Formula 3ko Kopa mailan lehiatzen eta aurten lasterketa bat korritu du Maila Handian. Bere Dalara F312a autoa ikusgai izan da Markuleteko industria gunean eta ikusmin handia sortu du ikusleen artean. Toyota motorra dauka, 2.000 zentimetro kubikokoa, 240 zaldi ditu eta 500 kilo pisatzen ditu autoak. Orain automobilismoaren ibilbidean aurrera jarraitzeko aurrekontu bila dabil eta esan du eskertzekoa dela babesleek egindako esfortzu guztia. Pilotuek euren artean hitz egiteko aukera ere izan dute ekitaldian eta azaltzen zutena da babesleak izatea, euren dako, kasu askotan, "ezinbestekoa" dela aurrera jarraitu ahal izateko.




Ikusle bat Jaguar deskapotea begiratzen eta atzean Mini bat. | JOSETXO ARANTZABAL

Arratsaldean lagun batek utzitako autoarekin egin zuen lasterketa Igor Urienek.

Bestalde, Gernikako Inhar Arrien pilotua ere izan da. 21 urte ditu eta kopilotu lanetan aritzeko 15 urte dituen Eneko Fuentes ekarri zuen. Hura da lasterketan parte hartu dutenen artean gazteena. BMW E36 autoarekin lehiatu dira. "Zoritxarrez, ez dira horrelako lasterketa asko antolatzen", azaldu zuten gernikarrek eta gustura ibili dira, "giro onean". Iñaki Alberdi eta Jon Zallo Etxebarria pilotuek ere hartu dute parte lasterketan. Jendetza erakarri du lehen aldiz ospatu den ekitaldiak.



Ikusleak erakusketan izan diren hainbat auto begiratzen. | J.A.



Igor Urien pilotu abadiñarra autoarekin, domeka goizeko erakusketan. | A.T.



Auto erakusleak heltzen. | J.A.

RAUL URIARTE  
ANTOLATZAILEA

## "Pozik gaude izan duen harrerarekin"

LEINN gradu-ko ikasleak diren Raul Uriarte eta Asier Amutxastegik,



Asier Zubillaga ilustratzailearekin eta Iker Suinaga argazkilariarekin batera antolatu dute aurten lehen aldiz auto erakustaldia eta lasterketa, Markuleteko industria gunean.

## Nola baloratzen duzu egunak emandakoa?

Balorazio nahiko positiboa egiten dugu. Jende dezente etorri da eta ea datorren urtean ere gai garen berriro antolatzeko. Eguerdi eta arratsalde partean izan da jende gehien. Auto klasikoaren erakusketatik jende dezente izan da eta gero arratsaldeko zirkuitura ere gerturatu da jendea. Pena izan da euria hasi dela eta horrek okertu du pixka bat eguna, baina bestela oso pozik gaude egunak izan duen harrerarekin, antolatzen dugun lehenengo aldia baita.

## Zergatik erabaki zenuten automobilismoari lotutako egun bat antolatzea?

Ikusten genuen Euskal Herrian bazegoela automobilismoarekiko afizioa baina ikusi dugu Arrasaten ez dela horrekin lotutako ezer egiten. Beraz, proiektu bat sortu genuen egun hau antolatzeko asmoarekin eta aurrera egin dugu.

## Nola lortu duzue horrenbeste pilotu eta auto klasiko Arrasatera ekartzea?

Gipuzkoan eta Euskal Herrian egin diren automobilismoko ekitaldi ugari izan gara azkenaldian. Huescako ekitaldi baten ere izan ginen eta kontaktuak egin ditugu. Interea erakutsi dutenak etorri dira eta oso pozik gaude. Arratsaldeko ekitaldirako hainbat rallytan egon gara eta ideia gustatu zaien pilotuak daude. Gainera, herritarren artean ikusmina sortu duen ekitaldia izan da eta bailarako eta kanpoko jendea ere etorri da automobilismoaz disfrutatzen.



## OMENALDIA

# Arrasateko herriak, bere kirolariei: eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

- ▶ Aurten nabarmendu diren lau talde edo kirolariei aipamen bereziak eman dizkie Udalak
- ▶ Atletiko Arrasate, Dragoi Gimnasia Erritmikoa, Ointxe eta Ivan Velasco omendu ditu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Kirolean emaitza bikainak lortu izanarengatik, izan duten ibilbidearengatik eta Arrasateren izena "lau haizeetara zabaltzen" lagundu izanagatik, bereziki nabarmendu izan diren kirolariei eskerrak ematea erabaki zuen Arrasateko Udalak, herriaren izenean, eta horixe egin zuen egubakoitz iluntzean egindako ekitaldi "xume baina bihotzeko" baten.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez gainezka zegoela, alkatearen, zinegotzien eta Aukeako ordezkarien agurra eta aipamen-diploma jasotzera joan ziren banan-banan Atletiko Arrasateko Atletismo taldeko Maialen Axpe eta Iñigo Uribarren (talde osoa zen omendua, baina denek ezin izan zuten hantxe egon: Malen Ruiz de Azua, Jonathan Perez entrenatzailea, Istar Dapena eta kadete kategoriako mutilak; baita Remi Diosdado korrikalaria ere), Dragoi Gimnasia Erritmiko taldeko partaide gehienak, batzuek ere ezin izan zutelako bertara joan (kide guztiak hauek dira: Mirentxu Amozarrain, Eider Altube, Maialen Gallardo, Maialen Diaz, Maite Oliden, Maitane Ugarte, Leire Ugarte, Nerea Otxoa, Olatz Fernandez eta Elena Lanuza, entrenatzailea), Ointxe saskibalo klubeke talde nagusia (Mikel Arejola-leiba, Paul Isasa, Martxel Balanzategi, Iker Barbero, Gorka Arejolaleiba, Julen Kortabarría, Imanol Ceciaga, Alex Lorenzo, Unai Barrena, Mikel Atxa, Gorka Kintana, Ander Atxa, Josu Larreategi eta Juan Carlos Davila entrenatzaileak eta Joseba Arejolaleiba eta Gorka Herranz delegatuak) eta baita neskatilen taldea ere, aurten Gipuzkoako txapelkun eta Euskadiko txapelkunorde izan direlako,



Kirolari guztiak eta udal ordezkariak, udaletxeko eskaileretan. | IMANOL SORIANO

eta infantilenak, bi final jokatu dituztelako, nahiz eta irabazi ez; eta Ivan Velasco txirrindulari profesionala.

### Publikoaren txalo artean

Iratxe Aranburu kirol teknikariak bakoitza aurkeztu eta lortutakoa eskertu ondoren, Inazio Azkarragaurizar alkatearen eta Joserra Askasibar kirol zinegotziaren eskutik aipamen bereziaren diploma jaso zuten, publikoaren txalo

artearen eta pantaila baten euren ibilbidearen irudiak ikusten zirenean bitartean. Besteak beste, atletik irabazitako dominak, Dragoiko aerobic taldeak Espainiako Txapelketako zilarrezko domina irabazi izana, Ointxe talde nagusiak EBAr aigo izana eta Ivan Velascok bere ibilbide osoan egindako "izugarritzko lana" azpimarratu zituen.

Inazio Azkarragaurizarrek hasieran honakoa esan zuen: "Mere-

zi dituzue gure harrera, txaloak, animoak, zorionak eta eskerrik beroenak"; eta benetan, hala zela erakutsi zuen publikoak.

### "Hunkigarria izan da"

Ekitaldia bukatutakoan, talde bakoitzak lehenengo eta omendu guztiak udal ordezkariekin, gero, argazkia atera zuten eta luntxaz gozatu zuten. Pozik zegoen Joserra Askasibar kirol zinegotzia: "Benetan, hunkigarria izan da.

## EBAn jokatzeko laguntza behar du Ointxek

Datorren urtean, EBAn jokatu du Ointxe saskibalo klubeke talde nagusiak; pasea lortu zuten denboraldi amaieran, eta zuzendaritzak onartu egin du kategoria berrian jokatzeko ahalegina egitea. Bada, horretarako, bazkide-kanpaina bereziari ekin dio Ointxek; hain zuzen, egubakoitzeko harrera aprobetxatu zuten, eta ekitaldian bertan ohorezko bazkide izendatu zuten Inazio Azkarragaurizar alkatea.

Ointxe Jon Basurkok honela zioen: "Elkartetik pasa diren ehunka pertsonen laguntza behar dugu diru pixka bat ateratzeko eta taldea animatzen egoteko. Aurten baino 12.000-15.000 euro artean gehiago behar izango ditugu".

Helburua izan da, gehienbat, Arrasateko kirol taldeek egiten duten lana eta dituzten lorpenak errekonozitzea eta beraien artean duten harremana eta kirol munduan egiten dabiltzana aipatzea eta saritzea ere".

Ez zegoen aurreikusita Ointxe klubeke neskatilen eta infantil kategoriako mutikoen taldeek ere aipamena jasotzea, eta zati hori bereziki polita izan zela esan zuten kirol zinegotziak.



**ELENA LANUZA**  
DRAGOIKO ENTRENATZAILEA

"Oso pozik nago, eta neskek ere bai. Denboraldian lan handia egin dugu, ordu askotxo sartu ditugu, jaiegunetan ere bai, eta azkenean zortea izan dugu, neskek oso ondo jardun zuten txapelketan eta arakastatsua izan zen".



**MAIALEN AXPE**  
ATLETA

"Laguntzeko modu asko daude eta Udalaren aipamena detaile bat izan da. Aurtengo denboraldia ez da oso ondo joan; ea konpon dezakedan orain artekoa. Gauzak irteten ez direnean etsigarria da, baina jarraitu egin behar da".



**IVAN VELASCO**  
TXIRRINDULARIA

"Orain 20 urte hasi nintzen eta nire azken urteak izango dira datozenak, adin bat daukadalako. Hamar bat apertura eta zortzi bat ebakuntza izan ditut eta horrek gerarazi egin nau, baina ni pozik nago nire kirol bizitzarekin".



**JOSU LARREATEGI**  
OINTXEKO ENTRENATZAILEA

"Aurten oso denboraldi polita egin dugu eta orain Udalak harrera egin digu eta oso pozik gaude. Talde nagusiak azken lau urteotako lanaren emaitza; iaz ere oso denboraldi polita egin genuen, baina ez ginen igo".



**JUAN CARLOS DAVILA**  
OINTXEKO ENTRENATZAILEA

"Sekulako denboraldia izan da, jokalariek izugarritzko lana eginda. Infantiletan, bi taldeak finaleran egon dira, galdu arren, eta neskek, lehenengo urtean Gipuzkoako txapelkunak eta Euskadiko txapelkunordeak izan dira".



## TXIRRINDULARITZA

# Markak apurto ditu Dorletako Ama sariak

- ▶ 160 txirrindularik hasi zuten proba, eta 117k amaitu
- ▶ Cantabria Deporteko Juan Ignacio Perez, txapeldun

**LEIRE KORTABARRIA** | LEINTZ GATZAGA  
Parte-hartzea eta publikoa izan dira Dorletako Amaren 36. txirrindularitza sariaren lorpen handienak, aurten. Antolatzaileak ezin poziago zeuden, Alberto Altubek esan zuen bezala: "Inoiz baino jende gehiago etorri da: egubakoitzean 120 zeuden izena emanda, eta 160 etorri dira; gainera, proba gogorra dela esaten duten arren, 117k bukatu dute lasterketa. 13 taldek hartu dute parte. Oso-oso pozik gaude, errekorra izan da-eta guretako". Beste hau ere azpimarratu du: "Txirrindulari asko gurasoekin etorri dira, eta ikaragarritzko giroa sortu da Gatzagan".

Txapelduna Juan Ignacio Perez izan da, Cantabria Deporteko taldekoa. 2:05:59 ordu behar izan zuen Gatzagako hiru aldapak igotzeko eta ibilbidea buka-

tzeko. Handik bi minutu eta 51 bat segundora ailegatu da txirrindulari tropel handi bat. Gipuzkoa taldeak irabazi zuen ekipoen txapelketa, eta Telco

taldeko Antxon Ibarenek, mendiko saria.

Inguruko lasterkarien artean, Etxabe anaiek ere parte hartu dute txapelketan.



Gipuzkoa taldeko kidea, ezkerrean; ekipoen artean, lehena. | JOSETXO ARANTZABAL



Juan Ignacio Perez, pozik helmugara ailegaten. | JOSETXO ARANTZABAL



Lehena baino hiru bat minutu geroago ailegatu ziren gehienak. | J. ARANTZABAL

## FUTBOLA

## Lagun berriak egin eta futbolaz gozatu dute gaztetxoek Geroa Sortuz futbol kanpusean

- ▶ 2005, 2004 eta 2003an jaiotako 81 gaztetxok hartu dute parte Aretxabaletako kanpusean
- ▶ Bertan erabili duten leloa hau da: 'Ez egin besteei zuri egitea gustatuko ez litzaizukeena'

**AMAI TXINTXURRETA** | ARETXABALETA  
Geroa Sortuz futbol kanpusa egin zuten joan zen astean Aretxabaletan, UDAk antolatuta. Asteleheneretik egubakoitzera bitartean hainbat futbol eskolako umeak izan ziren bertan: Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Leintz Gatzaga, Aramaio, Elgeta eta Sorluzeko 81 gaztetxo izan ziren, hain justu. Aurten laugarren edizioa izan da eta futbola ardatz hartuta, hainbat balio landu dituzte gaztetxoekin. *Ez egin besteei*

*zuri egitea gustatuko ez litzaizukeena* leloa erabili dute.

Askorendako, etxetik kanpo horrenbeste denbora pasa duten lehen aldia izan da eta hasieran gurasoen hutsunea sentitu arren, gero ez zuten nahi izan etxera bueltatzetik. Agurrean gurasoei astean zehar osatutako balioei buruzko bertsoak kantatu zizkieten eta Igor Arenaza koordinatzaileak lantaldea zoriondu nahi izan du, "beraiek barik ez litzaizukeelako hau posible izango".



Gaztetxo talde bat aldageletan, profesionalen moduan. | IGOR ARENAZA



Mutikoa baloia lortu ostean, korrika. | MIRARI ALTUBE



Kanpusean izan den neska bakarra, lagunarekin. | IGOR ARENAZA

**IGOR ARENAZA**  
KOORDINATZAILEA

"Futbolarekin hainbat balio landu ditugu"

Igor Arenaza izan da kanpuseko koordinatzailea eta lehenengo txandaren balorazio positiboa egin du.



GOIENA

**Zer landu duzue?**

Futbolaren bitartez hainbat balio landu ditugu. Bost eguneko 24 orduko elkarbizitza izan dugu eta horrek gauza asko egiteko aukera eman digu. Errespetua, sakrifizioa eta konpromisoa bezalako balioak landu ditugu, haurrak konturatzeko zein garrantzitsuak diren horiek talde lana egiteko orduan. Euskara ere balio bezala landu dugu.

**Entrenatzeaz gain, bestelako ekintzak ere egin dituzue, ezta?**

Bai. Film emanaldiak egin ditugu, gaubeletan bertsoak egin edo euskal abestien karaokeak egin ditugu, Zubieta eta Anoeta ikustera ere joan gara Reala babesle moduan dautzagulako... Gauza ugari egin ditugu eta interesgarria da nola garatzen diren ikustea.



**Estela Biain** | Korrikalaria

# "Kirola oso gustuko dut eta lehiatzea ere bai, horregatik jarraitzen dut umeak izan ostean ere"

- ▶ Torreauzoko 17. krosa irabazi zuen ekainaren 29an eta horrekin denboraldia bukatu
- ▶ Irailean berriro hasiko da entrenatzen eta abenduan Gasteizko maratoni erdia jokatu du

**MIRARI ALTUBE** | OÑATI

Gaur joango da Estela Biain (Oñati, 1974) oporretan kanpora, lanak ondo egin eta gero. Izan ere, joan den ekainaren 29an Torreauzoko krosa irabazi zuen. Hala, denboraldia bukatutzat eman du.

**Torreauzoko lasterketa irabazi duzu; lehen saria eta etxean, gainera, poztasuna emango du, ezta?**

Bai horixe. Egun ez da samurra lasterketak irabaztea eta etxean, gainera, oso pozik.

**Horrekin bukatutzat eman duzu denboraldia?**

Bai. Lehen denboraldi luzeagoak egiten nituen, baina orain, bi umerekin ezin. Negu partean krosetan jardun dut, baina udaberrian ez dut lasterketa asko egin: Gasteizko emakumeen lasterketa eta Torreauzokoa. Eta oraingoz listo iraila arte.

**Gasteizko La Blanca kirol taldean zabilta, ezta?**

Bai, bertan nago federatuta. Eta klubeko kideekin batera, neska eta mutil, hainbat krosetan jardun dut kanpoan. Beterano mailako Espainiako erdi maratonia jokatu dugu eta hirugarren geratu (iaz, bigarren). Eta Euskadiko kros txapelketan ere, maila absolutuan, hirugarrenak izan ginen.

**Eta bakarka, Torreauzokoaz gain, beste sari batzuk ere eskuratu dituzu, ezta?**

Bai, Espainiako txapelketan hirugarren geratu nintzen, 5.000 metro pistan. Eta aurtengo Euskadiko kros txapelketan bigarrena izan naiz neure mailan, beteranoen mailan, hain zuzen ere.

**Pozik egotekoa da, ezta?**

Bai. Lehen, umeak izan aurretik, askoz gehiago entrenatzen nuen, beste martxa bat zen. Orain ahal

dudana egiten dut, baina asko gustatzen zait kirola eta lehiatzea ere bai, hortaz, hemen jarraitzen dut.

**Kirolak zer ematen dizu?**

Askok kirola egiten dudana une hori nire momentuxoa da. Ordu-bete edo 45 minutu hartzen ditut, batzuetan ezin dudalako gehiago, eta deskonektatzeko momentua da. Eta eskerrak horri! Hustu egiten naiz orduan eta pilak bete-bete eginda itzuli.

**Emakumeak gero eta gehiago ikusten dira korrikan baina lehiatzen ez hainbeste, edo?**

Herri lasterketetan gora egin duela kopuruak, dezente, gainera, esango nuke. Hala ere, ez da parekatu gizonekin.

**Noiz hasi zinen korrikan?**

Urte asko dira... 25 bat behar bada. Orduan Gasteizen bizi ginen eta taldetxo bat entrenatzen gintuen Martin Fizek. Baina ez pentsa, larri eta estu ibiltzen nintzen orduan: arnastetura, ezinean... Gainerako guztiak moduan.

**Burugogorkeriagatik edo aurrera egin eta begira nora iritsi zaren...**

Hori da, entrenatuz gero lortzen da. Hemen ez dago misteriorik: diziplina eta konstantzia. Benetan diot ez dagoela sekreturik, entrenatu egin behar da.

**Eta orain, umeak izan ostean, bigarren etapa etorri da.**

Bai, hori da. Orain tarreak topatu behar egunari entrenatzera joateko, eta tarte horiek ere dira hala-holakoak. Eta umeekin antolatzea zaila: bata gaixotu, bestea hara edo hona eramane... Ez da samurra. Eta gogoa ere izan behar gero, batzuetan oso nekatuta egoten delako bat.

**Esan izan da umeak izan ostean**



Estela Biain lasterkaria Torreauzoko txapelketa irabazi ostean. | MIREIA BIKUÑA

**momentu ona bizitzen dutela emakumeek, zure kasuan?**

Haurdunaldian bederatziz hilabete ezer egin gabe egoten zara, zoru pelbikoarendako ere ez dela komeni korrikan egitea diote, eta asko galtzen da. Niri kosta egin zitzaidan hastea, baina gus-

tura eginez gero... Hori bai erritmo batera ohituta nengoen aurretik, eta gero hori hartzea kosta egin zitzaidan. Baina azkenean hartu dut.

**Zein luzeratako lasterketak dituzu gustuko?**

Maratoi erdiak gehienbat. Lehen maratoiak ere egiten nituen, baina orain ez daukat denborarik horiek gertatzeko. Horregatik, umeak izan ostean maratoi erdiak egiten ditut; gainera, gustuko dut distantzia hori. 10 eta 21 kilometro artean nabil, batez ere.

**Gustura egingo zenukeen lasterketarik baduzu, datorren denboraldian behar bada?**

Gasteizko maratoi erdiarekin hasiko dut denboraldia, Euskadiko txapelketa izaten da eta klub mailan eta bakarka jardungo dut. Abenduan izaten da hori, eta ordurako erritmoa hartuta egoteko aurretik herri lasterketaren bat edo beste egingo dut, sortzen direnak. Motzagoak izango dira horiek, baina maratoi erdia gertatzeko baliagarriak.

Eta gero krosak ere bai, aurreten probatu dut lehenengoz eta jarraitzea gurako nuke. Lokatze-

tan ez naiz oso ondo moldatu baina gustura ibili naiz eta jarraitzea pentsatzen dut.

**Eta horien ondoren mendi lasterketak etorriko dira?**

Lehen egiten nituen eta sari batzuk eskuratu ere bai, Burgos aldean esaterako. Baina orain pentsatzen dut oraindik pixoihal batzuk aldatu behar ditudala eta ezin naizela ibili edozein modutan. Izan ere gorantz joatea hainbestean, baina beherantz bidea arriskutsua da eta jaustea erreza. Eta esku bat igeltsuarekin...

**Irailean martxan jarri eta datorren denboraldian lasterketa gehiago izango dira?**

Gurako nuke. Baina ezin ditut aurrez antolatu, egoerara moldatu beharrean nago lehen esandako moduan, eta momentuan jakingo dut.

**Zeure airea entrenatzen duzu?**

Bai; senarrak, Ritxar Fernandezek, gidatuta. Bergaran egiten dut lan eta batzuetan han daukaten asfaltozko pistan entrenatzen dut, Oñatin ez daukagu halakorik-eta.

**Eta senarra entrenatzaile; konfiantza dagoen lekua...**

Berak zehazten dizkit saioak eta gero... gerokoak. Zorrotza da baina ez nau oso gertutik kontrolatzen, izan ere, ondo ezagutzen nau.

**Ume txikiak dituzu; hazten direnean gurako zenuke korrikalariak izate?**

Oraindik ez zaie afizioa piztu baina kirolariak izatea gurako nuke, bai; korrika edo beste kirolen bat egitea... Izan ere, niretako balore bat da kirola eta bizitzeko era bat.

## Hirugarren, kros txapelketan

Euskadiko kros txapelketa absolutoa jokatu zuen Biainek otsailean, eta La Blanca klubarekin hirugarren postua eskuratu. Bakarka, ostera, bigarrena izan zen, beteranoen mailan. Lokatzetan ez dela "ondo" moldatzen dio baina gustura hartu du erronka eta datorren denboraldian ere jarraitu gurako luke.

Horrez gain, maratoi erdiak egingo ditu eta abenduan Gasteizkoa jokatu. Eta irailetik abendura bitartean, herri lasterketetan jardungo du.



Lasterkari oñatiarra Euskadiko krosa jokatzeko. | ESTELA BIAIN



# Euskararen transmisioaren bide berriak zeintzuk dira?

EHUko udako ikastaroetan jorratu dute gaia hainbat adituren gidaritzapean

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Hamaika telebistak euskararen transmisioaren inguruan egin-dako erreportajea ekarri dugu *Guraso.com* atarira. Soziolinguistika Klusterreko Paula Kasares, Filosofia Fakultateko Jone Miren Hernandez eta irakasleen UEko Pello Jauregi elkarriketatu dituzte, eta argi dute hirurak: "Hizkuntza baten osasuna erabilera da". Paula Kasaresek gehiago dio: "Euskarak, gaur egun, ez du ziurtaturik hemen

sortzen diren haur guztiak eskal hiztun bilakatuko direla (...) Guztiak hiztun bihurtzea zaila da, eta, gainera, dauden hiztunak elebidunak dira. Beste hizkuntza nagusi bat dute ondoan, eta euskara erabiltzeko eremuak mugatuak dira". Orduan, hiztun bilakatze bidean haurrek nondik hartzen dute eragina?

## Familiaren papera

Eskolaren papera garrantzitsua da. "Indar asko jarri da hezkun-

tza sisteman eta gauza asko lortu dira, baina bere mugak ditu", azaltzen du Jone Miren Hernandezek. Hizkuntza politiken eta eskolaren garrantzia aipatzen ditu Pello Jauregik, baina familiarian eta esparru ez formaletan ipintzen du fokua. "Etxean, aisialdian... hizkuntza jasotzen da modu afektibo batean, modu identitario batez, modu praktikoz... motxila kargatzen duzu eta gero kalean joera duzu euskaraz hitz egiteko". Kasaresek antzerako iritzia du: "Etxean zer gertatzen den, eskolan zer gertatzen den... plazan zer gertatzen den... horrek guztiak osatzen du haurren hizkuntza sozializazioa edo haurrak hiztun bilakatze alorra". Eta hizkuntzaren transmisioan haurrak eragile aktibo direla uste du, ez hartzaile hutsak. Kanpotik etorritakoen seme-alabak ipintzen ditu adibide gisa: "Ez dute euskara etxera eramaten?". Kasaresek uste du, gainera, euskara izan daitekeela erakarmen handiko elementua. "Ongi bizi izateko, ikasteko, hemengoa sentitzeko, besteekin harremanak izateko... hizkuntza ikusten bada baliabidetzat euskararen bideak erraztuko dira belaunaldi berrietarako".

Jone Miren Hernandezek zalantzan jartzen du transmisioaren kontu honetan noraino bilatu behar ditugun tresna berriak edo ikuspegi berriak.



Euskaraz bizi nahi dut herri lasterketa, Zestoan | ZESTOAKO UDALA

## Otitisak ondorioak izan ditzake umeen ahoskeran

Maider Eginogin logopedak gomendatzen du haurrak muki asko badauzka espezialistarengana joateko

L.Z. | ARRASATE

Askotan, haur batek hitz egiterakoan gaizki ahoskatzen ditu letrak eta ez dakigu zein den horren arrazoia. Horrelakoetan, garrantzitsua izaten da otorrinolaringologoarengana jotzea, entzumen arazoren bat dagoen baztertzeko. Oso arrunta izaten da otitis seroso deiturikoa dela eta entzumenaren kalitatea okerra izatea. Ondorioz, letren soinuen identifikazioa zaildu egiten da.

Otitis seroso deiturikoa oso arrunta izaten da haurrengan. Egoera normalean, erdiko belarria

—haizea duen belarriko zatia— eustakioren tronpei esker faringearrekin komunikatua dago eta bertako presioa atmosferikoarekin bat dator. Hainbat arrazoiengatik, batzuetan eustakioren tronpak itxi egiten dira, honela erdiko belarriko haizea eraldatuz eta progresiboki mukia sorraraziz. Kasu horietan, askotan entzuten diogu medikuari haurrak belarrian mukia duela esaten.

Otitis horren ondorioa hipokusia izaten da. Hipoakusia haurrek entzumenaren eragozpenak izateko arrazoirik arrun-

tena izaten da. Entzumenaren mukia izateak soinu uhinak normaltasunez ez transmititzea eragiten du, eta horrek haurrak gortasun txiki bat izatea eragiten du. Horren ondorioz, haurrak ulermenean arazoak izaten ditu. Hitz egiten duenari gehiago gerturatzea, telebistaren bolumena altu ipintzea, ozen hitz egitea, maiz "E?" esamoldea erabiltzea, eta abar.

## Konponbidea

Guraso askok ez dio mukien kontuari behar besteko garrantzirik ematen, baina haurrak muki asko badauzka eta lehen aipatutako sintomak aurkezten baditu, ezinbestekoa da espezialistarengana jotzea arazoari lehenbailehen irtenbidea emateko. Zenbat eta azkarrago antzeman kasua, orduan eta gehiago gutxitzen dira kalteak eta errazagoa da konponbidea aurkitzea.

## Eguzkiaren eragina, hidratazioa, intsektuak eta elikadura udan

L.Z. | ARRASATE

Marian Gartzia Gartzia farmazialariak hainbat aholku eman ditu udako oporretara begira. Kontu handia izan behar da haur txikiekin: hidratazio maila eta eguzkiaren eragina neurtu behar dira uneoro. "Eguzkiaren eraginetik babesten gaituen eguzki-kapital jakin batekin jaiotzen gara. Kapital hori ez da amaigabea, eta ezin da berritu. Horregatik garrantzitsua da haurtzarotik zaintzea", dio adituak.

Hondartza arratsalderako uztea gomendatzen du, itzalkina zabaltzeko eta txapelak, kamisetak eta eguzkitako betaurrekoak erabiltzeko. Eguzkitako krema egokia erabili behar

da eta bi orduan behin eman. Bueltan dutxatu, eta azala ondo hidratatu behar da.

## Bestelakoak

Oinetako onddoak txankletak erabilia saihesten dira. Sabeleko zein beheko arazoak saihesteko elikagaien freskotasuna zaindu behar da, eta digestio-etendurak saihesteko bat-bateko tenperatura aldaketa handiak ekidin behar dira. Denboratxo bat eskaini behar zaio oporretako botikina presatzeari, eta, umeekin ezbeharririk gertatuz gero, lasai mantentzen saiatu behar da. "Helburua atseden hartzea da: saiatu ohiko ordutegiak mantentzen", dio.



Mutikoa itsasoan. | ONERAS

## BARATZEA

### Porruak landa daitezke umeek hazten ikusteko

L.Z. | ARRASATE

"Hemen da porrua!", diote *Ekogunea.net* atariko baratzezaintza atalean. "Barietateen arabera urte osoan landatu daitezke porrua", azaltzen dute, eta egokia izan daiteke umeek etxeko baratzean hazten ikusteko. "Bilketa erein eta bost edo zazpi hilabeteren ondoren egiten da, eta porruak nahiko garatuta egon behar du". Uztailean landatu egiten da porrua. Ereiteko lehenago hasi behar da, martxotik maiatzera bitartean.

Aukeratu lur eremu eguzkitsua, nahiz eta klima gogorreari aurre egiteko gai den porrua. Lurrari dagokionez, berriz, itzalean ez dagoen edozein lurretan egiten da. Eta lur sakonak, arinak eta ongi drainatuak behar ditu. Aukeratu deskonposatutako materia organikodun lurrak, porrua oso laborantza "jaturia" baita.

## ARGITALPENA

### Robinsonen abentura Ostiralen ahotik

L.Z. | ARRASATE

Udako oporretara begira Biblioporrak egitasmoak egiten dituen proposamenen artean dago Sushi Books argitaletxearen *Ostiral* liburua. Santiago Freirek idatzia, liburua 48 orri ditu. Garbiñe Ugartek itzuli du euskarara. 9 urtetik gorako irakurleendako gomendatua, eleberriak Robinson Crusoe uharte bakartian ezagututako Ostiral du protagonista. "Baliteke niri buruz zerbait entzun izana, baina nire lagun Robinsoni buruz ere, baina beti haren ahotik izango zen. Orain, nik kontatuko dizuet nola ezagutu nuen gizon zuria", dio Ostiralek. Bakardadeaz, adiskidetasunaz eta laguntza eskaintzeaz hitz egingo digu Ostiralek. Liburuaren edizioa oso zaindua da. Dani Padronen marrazkiak zoragarriak dira. Testua, berriz, xumea eta poetikoa da.





# KULTURA



Arruena parkeko Errozio erromeria Andaluziako gastronomia eta folkloreak erakuslehoi aparta bilakatu zen; eszenatokiak gainera, parkeko txoko guztiek zuten *tablao* itxura. | AITZIBER ARANBURUZABALA

## Sevillaren itxura hartuta, Arrasate

Arrasateko Al-Andalus elkarteak hogeita laugarrenez antolatutako Errozio Erromerian, 2.000 lagun batuta

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Tarteka bota zituen euri zaparradak ez ziren nahikoa aitzakia izan Arruena parkean batu ziren 2.000 euskal-andaluziarrek Errozio Ama Birjina omentzeko jaia zapuzteko. Al-Andalus elkarteak hogeita laugarrenez antolatuta, Euskal Herriko 17 elkartetako ordezkariak batu ziren.

Debagoienerako andaluziar jatorrizko erromesek gainera, donostiarrak, beasaindarrak, lasartearrak, oreretarrak, andoaindarrak, santurtziarrak, barakaldarrak, bermeotarrak, laudiarrak eta matienarrak ziren; horien artean, baziren lehenengoz etorritakoak; gehienak baina, Arrasatera urtero etortzeko ohitura dutenak.

**Etxean hasi, Arruena bukatu**  
Goizeko 09:00etan heldu ziren lehenengo bisitariak Musakolako Al-Andalus elkartera. Anfitrioiaren kontura gosalduta, Santa Teresa elizarako bidea hartu zuten. Errozio Ama Birjinari loreak eskaini ondoren, Andaluziako kantu eta

dantzeekin jantzitako meza egin zuten, herriko elkarteak Sueños de Andalucía taldeko dantzariak eta Al-Andalus abesbatza errozieroaren eta Matienako Norte y Sur abesbatzakoen eskutik. "Gaurko eguna berezia da, dagoneko ohitura gaude jendearen aurrean dantzan egiten, urte askotan egin dugu-eta, baina gaurko meza egiten dugun emaldia berezia da benetan", kontatu zuen Sueños de Andalucía taldeko kide Mari Jose Ortizek.

Zaldiek zabaldu zuten bidea eta Errozio Ama Birjina sorbalda gainean hartuta, Arruena parkeko bidea egin zuten kantu eta dantza artean. Erromesak Arruena parkean heldu zirenerako prest zeuden janariz eta edariz betetako 25 karpa; eta horrez gainera, Al-Andalus elkarteak jarritako taberna eta eszenatokia.

Armentiatik etorritako zaldunek parkean erakustaldia egiten zuten bitartean, bakoitza bere karpak hurbiltzen joan zen, bertan prest zituzten urdaiazpiko eta

bestelakoak dastatzera. Indarrak hartzen batzuk, dantzan beste batzuk, ahaztu barik baina bertan zela Errozio Ama Birjinaren irudia, tarteka, erromesen kantuak eta bisitak jasotzen zituena.

**Datorrenean, 25 urte**

Iaz hartu zuten Al-Andalus elkartearen presidentea kargua Sebas Lozanok, baina aurten egokitu zaio lehenengoz anfitrioi-buru lanak egitea. Gustura zen aurten ere, Arrasate leku askotako andaluziarren topaleku ederra eta giro onekoa bilakatu zelako.

1990. urtean sortu zuten Al-Andalus elkartearen Arrasate. "Andaluziako ohitura tipikoa da Errozio Erromeria ospatzea, eta hemen ere antolatzea pentsatu genuen. Hasierako urteetan, Erguineko elizan egiten genituen meza eta haren inguruko ekitaldiak, eta erromeria, berriz, Udala auzoan egiten genuen. 1996. urtean, Musakolan zabaldu genuen egoitza eta ordutik egiten dugu Arruena erromeria", azaldu du Lozanok.



Erromesak, Errozio Ama Birjina Arruena parkera eramaten. | A.A.



Ohi moduan, zaldunek zabaldu zuten erromesek bidea. | A.A.



Armairuko arroparik onenak zituzten soinean, baita txakurrek ere. | A.A.





Jimmy Barnatan &amp; the Cocooners Espoiloiko kioskoan. | IMANOL SORIANO

## KRONIKA

# Morrisonen uluak Espoloian

J.D./A.A. | BERGARA

Jimmy Barnatan Espoiloiko kioskoan ikusteak harridura aurpegia jarri zion bati baino gehiagori. Gurean, musikari moduan baino, aktore lanengatik ezagun bada Barnatan, The Cocooners taldeak lehen akordea jo bezain laster, aurreiritzi hori desagertu zen. Bi ordu inguruz, Espoiloiko kioskoaren inguruan zeuden bergararrak berotu zituen, eta amaieran ere dantzan jartzea lortu zuen; kontzertuaren formatua kontutan izanda, ez zen erraza. *Room 13* lana, Barnatanen hirugarrena, aurkeztera etorri zen laukotea eta indartsu aritu ziren.

Berumugaren aurtengo edizioa zabaldu zuen laukoteak eta bluesa oinarri duten arren, ez zen influentzia bakarra izan, ezta gutxiago ere. Blues klasikotik ikasitakoa bada ere, Jimmy Barnatan & The Cocooners ez da blues tradizionala jotzen duen talde bat; Ingalaterra aldean John Mayall & The Bluesbreakers eta Cream taldeen edo ozeanoaren beste aldeko mendebaldeko kostako 60ko hamarkadako blues mugimenduen oinardeko direla esan daiteke-eta. Blues-rock estiloaz gainera, funky edo hard-rock kantuek ere tartea izan zuten. The Romanticos taldeko

Iker Piris gitarrista ere Espoiloiko kioskorra igo zen, gaueko blues klasikoena oparitzuz entzuleei. Barnatan berotzen joan ahala,

## FITXA

MUSIKA

**BERUMUGA: JIMMY BARNATAN & THE COCOONERS****Estiloa:** Blues-rock.**Non:** Espoiloia.**Eguna:** Egubakoitza, uztailak 4.**Iraupena:** Bi ordu.

kontzertuak gora egin zuen, abeslariaren ahots urratuak eta duen inprobisatzeko grinak emanaldia berezi bihurtuz. Jim Morrisonen espiritua Espoiloian bueltaka balitz bezala, Barnatanek uluka eman zituen bi orduak; tartean, The Doors-en bertsiok kantatuz.

**Errekan Goran ere, listoia altu** HUHEZIKO klaustroa txiki geratu zen egubakoitzean Amparo Sanchez (Amparanoia ohia) eta haren taldeak egindako Errekan Gora jaialdiko lehenengo kontzertuan. Bi zatitan banatuta, ordu eta erdi pasako emanaldi borobila egin zuen boskoteak: akustikoa edo entzutekoa, lehenengoa, besteak beste, *Alma de cantaora* eta urrian kaleratuko duten *Espiritu del Sol* lanetako kantu lasai eta serioekin. Lasaitasunak algarari eta jaiari egin zion gero lekua; besteak beste,

Amparanoia garaiko kantuekin osatuz erreperitorioa. Eszenatoki azpiko aulkiak erretiratzeko eskatu zuen abeslariak, eta aretoa dantzaleku bilakatu zen bete-betean. Penaz bukatu zuten alde bietakoek; denak pozik, publikoa, musikariak eta baita antolatzaileak ere. Hasiara borobila eman zioten guztien artean aurtengo Errekan Gora jaialdiari. Zapatuan, Iruñeko J&P Brass taldeak ederto borobildu zuen asteburua.

**Udazabal, etxeok zabaldua** Monterroneko harmailak bete zuen, dantzarako baino gehiago, lasai-lasai herriko Big Band taldea entzutera joan zen publiko trebeek kontzertu instrumentala egin zuten arren, hiruzpalau abesti kantatu ere eskaini zituzten tarteka taulara igotzen ziren puntako bi abeslarik.



Amparo Sanchez eta haren taldeak lepo bete eta dantzaleku bihurtu zuten HUHEZIKO klaustroa. | IMANOL SORIANO



Emanaldi elegantearekin zabaldu zuen Big Band taldeak Udazabal. | I.S.



# Barroko garaiko maisuen lana, bailarako bi abesbatzarekin

- ▶ Vivaldi eta Bach-en obrak interpretatu dituzte San Pedro parrokian
- ▶ Oñati Abesbatza eta Bergarako Orfeoia elkarrekin entzun ditu jendeak

MIREN ARREGI | BERGARA

Iaz Wolfgang Amadeus Mozarten *Requiem*-a egin zuten eta aurten, Barroko garaiko bi musikari handiren obrak aurkeztu dituzte; Antonio Vivaldiren *Gloria* eta *Credo* eta Johann Sebastian Bachen *Cantata BWV 131*. Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak ez dute lan makala egin bi maisu handi horien lanak ikasi eta interpretatzen. Pieza konplexuak dira teknikoki; eta horri gehitzen zaio hizkuntzaren zailtasuna. Bachen *Cantata* alemanez izateak asko konplikatzeko du ikasketa prozesua.

Barroko garaia bidaiatu zuten entzuleek, musikaren historiako konposatzaile handienetarikoren eskutik: Antonio Lucio Vivaldi italiarraren eta Johann Sebastian Bach alemanaren eskutik.

Italiar konposatzailearen *Gloria* lanarekin hasi zuten kontzertua. Hamabi mugimenduz osatutako konposaketa ziklikoa da *Gloria*: pieza ederra, handia, kontraste gogorrez betea. Instrumentuek zeresan itzela dute obra guztian zehar eta nabarmentzekoa da, beste guztien gaineratik, *Domine Deus*-en oboeak duen protagonismoa. Ikuslea liluratzeko modukoa izan zen oboearen solo hori.



Abesbatza, zapatuko kontzertuko momentu baten. | IMANOL SORIANO

## 'Cantata', beste maisulan bat

Ezagutzen diren Bachen kantaten artean zaharretarikoa da zapatuan interpretatu zuten hori. Sinfoniaz, koruz eta ariaz osatuta, sute baten ondorioz antolatutako

penitentzia zerbitzu baterako sortu zuen 1707an. Maisulanak eskatzen duen maila tekniko itzela defendatzen jakin zuten orkestrak, abesbatzek eta bakarlariek. Alemanez ere txukun aritu ziren.

## Bakarlarien lana, txalotzekoa

Bakarlarien lanak ere merezi du aipamena; izan ere, teknikoki oso konplexuak diren zatiak interpretatu behar izan zituzten; hala ere, txukun aritu ziren.

AITOR BIAIN  
ZUZENDARIA

## "Elkarlanak obra sinfonikoak egiteko aukera ematen digu"

Aitor Biain oñatiarrak zuzendu du Bergarako Orfeoia eta Oñati Abesbatza elkarlanean ipini dituen proiektua. Pozik da, proiektuak elkar aberasteko balio izan baitu.



## Bi kontzertuak eginda, zein balorazio egiten duzu?

Proiektu moduan oso interesgarria izan da. Oso programa zaila da eta musika barrokoak exigentzia maila handia du. Hori erronka moduan hartu izana oso aberasgarria ikusten dut. Kontzertuei eurei dagokienez, San Pedron ez ginen guztiz gusturara sentitu. Toki aldetik ez da aproposena, soinua nahastu egiten da-eta. Akaso zentzu horretan Oñatin joan den astean egin genuen kontzertutik gusturago atera ginen.

## Abesbatzen arteko elkarlanak jarraituko du?

Bi talderen indarrak batu eta proiektu handiagoak egiteko aukera izatea polita da. Honako honetan moduan, obra sinfonikoak egiteko aukera ematen digu eta esperientzia polita da. Elkarlanak jarraituko du, seguru.

## Badarabilzu zerbait buruan?

Bai, noski. Beti daukat proiekturen bat buruan, baina orain ez da beste ezertan hasteko momentua.

# Herriko kaleak txalapartaren erritmo biziz jantzi ziren zapatuan Arrasaten

M.A. | ARRASATE

Ttakun Elkartek antolatutako II. Txalaparta Eguna arrakastatsua izan zen, zalantza barik. Goizean goiz hasi zuten festa Arrasaten. Lehenengo ekintza 10:00etan izan zen; txalapartari bikote talde batek Santa Barba-

ran eta besteak Altamirako igogailuan, gure aurrekoek egiten zuten gisan, batetik besterako komunikazioa irudikatu zuten.

Txalaparta saio libreak egin zituzten ondoren Herriko plazan. Txorizoa eta sagardoa ere atera

zituzten eta pixkanaka hasi zen Arrasateko plazan giroa berotzen. Herriko hiru irrintzilariren lanak ere izan zuen horretan zeresana. Irrintzika, gero eta herritar gehiago inguruan batzea lortu zuten.

## Arratsaldekoa, bikaina

Tabernaz taberna egin zituzten saioak arratsaldean; horiek bikainak izan ziren eta txalapartariak maila itzela erakutsi zuten. Arrasateko, Aretxabaletako eta Bergarako txalapartarien saioak txalotuak izan ziren, baina zer esanik ez, Urretxuko eta Sestaoenak. Hain zuzen, azken horiek ziren aurtengo izarrak eta ez zuten, ez, hutsik egin. Urretxuarrek txalapartaz eta danbor afrikarraz ikuskizun aparta eskaini zuten, eta Zestaokoena, tonu eta material askotako txalapartekin, ez ahazteko horietako modukoa izan zen.



Goizean txalaparta probatzeko aukera izan zen Herriko plazan. | IMANOL SORIANO



Sestaotik etorritako txalapartariak ikuskizun ederra eskaini zuten. | IMANOL SORIANO



Tabernaz taberna egin zituzten txalaparta saioetako bat. | IMANOL SORIANO



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

### GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



## GURE MUSIKA TALDEAK

LAS  
TUERKAS

Maitane eta Saioa, Oiartzungo Pirata etxean emandako kontzertuan. | MAIDER BERASATEGI

# "Elkar ezagutu eta bi aстера lokalean geunden gure kantuei forma ematen"

- ▶ Punk musikaren hiru belaunaldi batzen dira Las Tuerkas taldean
- ▶ Beste disko bat grabatzeko materiala esku artean dute dagoeneko

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Desprezio eta Las Hijas De La Evasion taldeen oinordekoa da Las Tuerkas. Bergara eta Urretxu artean bizirautean duen taldeak estreinako lana kaleratu zuen abenduan: grabatutako bi maketatan bildutako hamaika kantu. Hain zuzen, punkaren mezuak eta punk-rockaren basakeriak batzen dira *Apretando Tuerkas* eta *Rompiendo Kadenas* maketak batzen dituen diskoan.

## Nola sortu zen Las Tuerkas?

[Maitane] Desprezio popatik har-tzera joan ostean ezagutu nuen Saioa, Maritxu Kajoi egunean. Bateria jotzen zuela esan zidan, eta handik bi aстера deitu egin nion. Bergaran elkartu ginen, Rombos Negrosen lokalean, eta jotzen hasi ginen. Hasieratik gure materiala sortzeko apustua egin genuen. Gero, *Plum* sartu zen baxu-jotzaile eta Bergaran eta Gasteizen entseatzan genuen;

orain, baina, berriz ere Saioa eta biok gaude. Hala ere, hurrengo kontzertuetarako fitxaketa bat egin dugu: Hardflip taldeko *Mugu*. Gona eta ileordea jantzi eta ohol-tzako izar bihurtzen da. Hala ere, hirurok dakigu aldi baterako izango dela. Beste baxu-jotzaile bat bilatzen dugun bitartean, hala ere, ez dugu nahi egoera behartu. Las Tuerkaseko elementuak kasualitatez ezagutu eta elkartu ginen, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu, ez gara orain hasiko baxu-jotzaileei gurekin jotzeko probak egiten, ez dator gurekin

"Alemaniara jotzera joatea da hurrengo helburua"

bat. Udan ditugun kontzertuetan *Mugu* gurekin izango da: hilaren 12an Donostiako Atabal tabernan Maldita Sea taldearekin eta 30ean Antiguon Accidente hardcore taldearekin.

## Diskoan, bi batean, ezta?

Diskoan orain arte grabatu ditugun bi maketak daude. Lehenengo sei kantuak *Rompiendo Kadenas* - estudioko bigarren aldikoak dira eta hurrengo bostak *Apretando Tuerkas* - lehenengoz grabatu genuenekoak. Gasteizko Bufar Antisozial estudioan grabatu genituen biak; lehena iaz ekainean izan zen eta bigarrena handik gutxira, irailean. Bufar teknikariarekin egin genuen lan eta egun gutxian grabatu genuen, ordu nahikotxo eman genituen bertan eta esperientzia ona izan zen; nahiko zoroa izan zen, garagardoz bustitako grabazioa. Kantuak osatuta genituen arren, estudioan hainbat konponketa

## ZERTZELADA



## APRETANDO TUERKAS-ROMPIENDO KADENAS

**Estiloa:** Punka, punk-rocka.

**Egilea:** Las Tuerkas (Bergara, 2014).

**Argitaletxea:** Autoekoizpena.

**Iraupena:** 31:11 minutu.

Punka eta ñabardura gehiago

Hirukote honen gitarra jotzailea -debagoiendarra- Danbakan ezagutu nuen. Orain, Gasteizen aspalditik bizi den eta La Xeta Pasote taldeko kide izan zen Blumme aktorearekin eta beste lagun batekin taldea du. Hiruzpalau hilabete dela Oñatiko *Gaztetxean* ikusi nituenean 80ko hamarkadako punkaren patroi gehienak betetzen zituztela pentsatu nuen, eta gogoz egiten zutela. 11 kantuko lan hau entzutean konturatu naiz emaitza melodikoagoa eta zainduagoa dela. Badauka orain 30 urteerreferente ziren punk taldeen eragina, baina baita Anticuerpos, Draps Bruts eta antzeko taldeen arrasto melodikoagoa ere.

## IKER BARANDIARAN

egiteko aukera izan genuen. Horren ostean, editatzeko dirua lortu genuenean diskoa kaleratu genuen, 2013ko abenduan.

## Eta banaketa?

Banaketa gure kontu egiten gabil-tza. 5 eurotan saltzea zen gure asmoa, baina disko gehienak oparitu egin ditugu. Hala ere,

hainbat taberna eta katalogotan daude; DDT, Germinal eta Bird-troublen, esaterako. Orain diskoaren kopia gutxi ditugu eta hori berriz editatzearan edo daukagun material berrira grabatzearan artean erabaki behar dugu. Kontua da diskoan hiruron kantuak daudela, eta orain *Plum* gure artean ez dagoenez... Agian, Saioaren eta bion kantuak berriz ere grabatuko ditugu abesti berrie-kin batera; edozelan ere, erabakitzeke dago.

## Hasi bezain laster egin zenuten salto errepidera.

Lehenengo kontzertua hasi eta hilabete gutxira izan zen, 2013ko martxoan. Durangoko Sapuetxe gaztetxean punkaren gaineko liburu bat aurkeztu zuten eta aurretik mahai-inguru bat egin genuen. Bertan, eskola zaharreko punkak, Decibelioseko Miguel, Josu Distorsion, Subversion X taldekoa, eta belaunaldi gazteagoa geunden. Ostean jo genuen kontzertua. Parisen ere izan gara; eguenetik zapatara hiru kontzertu jo genituen eta domekan, bueltan, Mutrikun jo genuen. Parisen hainbat abentura bizi izan genituen, oroitzapenean luzerako geldituko direnak, seguru. Iruñeko Lady Fest jaialdian jo genueneko beste oroitzapen on bat da; emakumeen inguruko jaialdi bat zen, eta tailerrak, kontzertuak... egon ziren. Orain dela gutxi Oiartzunen izan ginen *okupa* baten. Hurrengo helburua Alemaniara joatea da.

## Punk musikan mezuak eta musikak batera joan behar dute?

Gure kasuan, batera doaz; punk musikarekin hazi gara, eta, orain hainbat estilo entzuten ditugun arren, punka beti egongo da presente. *Pussy Riot* kantuak *Pussy Riot* taldeari erreferentzia egiten dio. *Serpientes* eta *Extremista* ere nahiko letra zuzenak dira; Saioak idazten dituenak, berriz, metaforikoagoak izan ohi dira.



1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdigunetik gertu, bi logelako etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan. Bikote batendako aproposa. Hilean 500 €. 650 40 19 95

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza ematen da errentan. Pisu argitsua, guztiz altzariztatua, kanpoaldera ematen duena, hiru logela, bainugela, sukalde independentea, egongela eta balkoi zabala. Hirugarren solairua. Igogailurik gabe. 634 70 98 01 edo 943 04 49 74

**Donibane Garazi.** Apartamentua errentan ematen da uztailan, abuztuan eta irailean. Bi logela, sukaldia, egongela eta komunak. Etxe inguruan baratza eta barbakoa. Asteko 330 eutotik 390 euro artean. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: +33 559 37 16 66 edo idatzi mezu bat helbide honetara: mendizangoan@yahoo.fr

104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate edo Bergara.** Etxea edo estudioa hartuko nuke errentan Arrasate edo Bergaran. Hilean 300 euro ordaintzeko prest. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Bergara.** Etxebizitza txikia edo estudioa hartuko nuke errentan. 616 39 49 91

105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldia eta komunak erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. Kontratu egiteko aukerarekin. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

4. LANA

401. ESKAINTZAK

**Pertsona euskalduna umeak zaintzeko.** Pertsona euskalduna behar duzue arratsalde ordu batez 7 eta 5 urteko bi ume zaintzeko. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 652 74 57 42

402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusi eta umeak zaindu, bulego, atari zein elkarkeak garbitu edo dendari. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Sonia Gomez. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 84 02 30

**Arrasate.** Emakumea, geriatria laguntzaile titulua duena, gertu nagusiak zaindu eta ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Bergara edo inguruak.** Bergarako emakume arduratsu eta esperientziaduna etxeko lanak egiteko prest: garbiketara, pertsona nagusien edota umeen zainketa. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 607 45 68 13 edo 943 76 15 94

**Bergara.** 20 urteko mutila gertu konponketa eta berritze lanetan aritzeko. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 638 62 85 02

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, infomeak dituena, umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Mutila lan bila dabil, nagusiak zaintzeko, baita baserrietan ere. Esperientziaduna eta dokumentuak egunean dituena. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 631 15 19 94 edo 688 69 07 28

**Bergara.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest Bergaran. Interesatuok deitu telefono honetara: Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 649 37 71 26

**Bergara.** Neska gertu 19:00etatik 21:00etara lan egiteko Bergaran. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 696 84 19 51

**Bergara.** Pertsona arduratsua eta infomeak dituena garbiketara lanak egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 696 27 25 34

**Bergara.** Psikopedagogia eta Haur hezkuntzako ikasketak dituen neska batek umeak zaindu lituzke irailtik aurrera. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara: 669 64 64 27

**Debagoiena.** 22 urteko neska euskaldun eta arduratsua haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 677 54 43 10

**Debagoiena.** Bertako neska nagusiak zaintzeko gertu Debagoiengan. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu helduan eta umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. M. Carmen. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 617 10 33 51

**Debagoiena.** Garbiketarako egiten edo bilategian lan egingo nuke. Gasteizen ere lan egiteko gertu. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 633 52 95 02 edo 696 38 10 07

**Debagoiena.** Geriatria tituludun neska lan egiteko gertu. Ospitalean gaua pasatu edo etxean gaixok zaintzeko. Autoa daukat. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, lege-paperekin dituen, nagusiak zaintzen eta garbitasunean aritzeko gertu Debagoiengan. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo egunez. 688 48 47 76

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko Debagoiengan. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baserrietan ere bai. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zainduko nituzke, baita garbitasun lanak egin ere. Gauak ospitalean pasatzeko ere gertu nago. Esperientziaduna. Infomeak ditut. Autoa daukat eta euskalduna naiz. Erabateko prestasuna. 671 35 22 60

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO**

**-Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**-Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan eman
- 104. Errentan hartu
- 105. Etxeak osatu
- 106. Bestelakoak

**3. LOKALAK**

- 301. Saldu
- 302. Erosi
- 303. Errentan eman
- 304. Errentan hartu
- 305. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

- 501. Jaso
- 502. Eman
- 503. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

- 701. Saldu
- 702. Erosi
- 703. Eman
- 704. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

- 901. Agurrak
- 902. Harremanak
- 903. Deiak
- 904. Bestelakoak

**6. MOTORRA**

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Alokatu
- 604. Bestelakoak

**4. LANA**

- 401. Eskaintzak
- 402. Eskaerak
- 403. Bestelakoak

**10. RELAX**

- 801. Saldu
- 802. Erosi
- 803. Eman
- 804. Hartu
- 805. Trukatu
- 806. Galdu
- 807. Aurkitu
- 808. Bestelakoak



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

- BERGARA:**
- Masterreka 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
  - San Lorenzo 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Garajea eta trastelekuak aukeran. Berria. 200.850 €.
  - Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. Erabat berritua 180.000 €.
  - Simon Arrieta 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
  - Ibargarai 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, oso ondo. Garajarekin. 215.000 €.
  - Zabaltegi 80 m<sup>2</sup>, 3 logela, erabat berritua. Igogailua eta balkoiarekin.
  - Bidekurutzeta 71 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. Igogailua eta terraza handiarekin. 204.344 €.
  - Angiozar 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
  - Madura 57 m<sup>2</sup>, 2 logela, erabat berritua. 149.000 €.
  - Zabaltegi 54 m<sup>2</sup>, 2 logela. 78.280 €. PREZIO JAITSIERA
  - Matxietegi 88 m<sup>2</sup>, 4 logela. Igogailua. Ganbara.
  - Zubiaurre 104 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekuak, Terrazarekin.
  - Martoko 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
  - Aramerreka 79 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua, trastelekuak. Garajea aukeran. 164.850 €.
  - Iraburu 82 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua. 120.000 €.
  - San Pedro 70 m<sup>2</sup>, 4 logela. Erabat berritua. Garajea aukeran. 138.000 €. AUKERA.
  - Bolu 66 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trastelekuak. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
  - Bidekurutzeta 65 m<sup>2</sup>, 2 logela. Trastelekuak. 100.000 € PREZIO JAITSIERAREKIN
  - Ibargarai 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua 235.000 €.
  - Masterreka 73 m<sup>2</sup>, 2 logela, berogailua, igogailua. Oso ondo. 195.000 €.
  - Ibarra 129 m<sup>2</sup>, 4 logela, berogailua. 150.000 €.
  - Azkarruntz 75 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
  - Zubietza 60 m<sup>2</sup>, 3 logela. 126.213 €. Berritua.
  - Fraizkozuri 78 m<sup>2</sup>, 3 logela. Balkoia, trastelekuak eta garajarekin. 205.000 €.
  - Martoko 140 m<sup>2</sup>, 4 logela. Berria. Oso ondo. 225.000 €.
  - Ibargarai, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
  - Matxietegi, 115 m<sup>2</sup>, 3 logela, trastelekuak eta balkoia. Berritua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**

- Sagasti 140 m<sup>2</sup>, duplexa. 250.000 €,
- Sagasti 86 m<sup>2</sup>, 3 logela. 163 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Behoko Auzoa 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Errekalde 94 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurratze 83 m<sup>2</sup>, Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**

- Sagor Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**

- Torrealdea 77 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iurbe, adosatua 150 m<sup>2</sup> + 45 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> lursaila.
- San Roque, 2 edo 3 logela. Prezio onean.

**OSINTXU:**

- Osintxu 85 m<sup>2</sup>, 3 logela. Igogailua. Berritua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Mutil langile eta arduratsua lanerako gertu Debagoiengan. Eskarmentua dut garbitasunean eta nagusiak zaintzen. Sukalde laguntzaile eta garbiketara ere jardun naiteke. Lege paperekin eguneratuta daukat. 632 26 01 84 edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Atari eta abarren garbiketarako, eraikuntza peoi eta abarretan ere aritu naiteke. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 602 07 12 06

**Debagoiena.** Mutila lan bila. Deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Esperientzia handiko sukaldaria lanerako gertu: karta, menuak, pintxo eta ogitarteak egiten arituko. Deitu telefono honetara: 666 83 21 95

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaindu edota garbiketara lanetan jarduteko gertu. Etxean bertan bizi izanda edo bestela. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 691 16 96 43

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketarako egiteko, zein nagusiak lagundu edo pasean ateratzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: umeak eta nagusiak zaintzen, taberna eta sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abar. Interesatuok deitu 638 25 73 91 edo 943 79 80 05 telefono zenbakiareta

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu 631 34 00 17 telefonora.

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaindu edo garbitasunean aritzeko gertu. Astelehenerik ostiralera, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Orduka ere bai. Deitu telefono zenbaki honetara: 688 484 776

**Debagoiena.** Neska arduratsua, erreferentzia onekoa, nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketarako egiten aritzeko gertu Debagoiengan. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 654 24 07 05

**Debagoiena.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest Debagoiengan. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 688 61 11 01

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako: sukalde laguntzaile, garbiketarako, nagusiak eta umeak zaintzen eta abar Debagoiengan. Deitu telefono honetara: 663 40 92 67

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 686 71 77 93

**Debagoiena.** Neska gertu ume eta nagusiak zaintzeko edota garbitasun lanetan aritzeko Debagoiengan. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 645 01 05 84

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen, ostalaritzan eta abar. Autoa daukat. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaindu edota garbitasunean jarduteko gertu Debagoiengan. Etxean bertan bizi izanda, egunez zein orduka. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 610 99 70 46

**Emakume euskalduna edozein lanerako gertu.** Elgetan bizi den emakume euskalduna edozein lanerako gertu, Debagoiengan edo inguruko eskualdeetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

**Haurrak zainduko nituzke.** Datorren ikasturtera begira, psikologian lizentziatutako neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Esperientzia handia dut. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 615 73 68 07

**Sukaldaria.** Sukaldari lan egiteko nuke. Orduka, lanaldi osoz edota erdiz. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 602 46 11 63

**5. IRAKASKUNTZA**

**501. JASO**

**Bergara.** Uztailan zehar goi mailarako matematika eskolak emango dizkidan norbaitek behar dit. Pneumatika eta abar. 943 76 03 75 edo 605 26 24 62

**Ingelesa.** Irailtik aurrera 2014-2015 ikasturte osoan zehar, etxean Arrasaten, DBH 2-ko mutiko bateri ingeleseko eskolak emateko mutil baten bila gabiltza. Astean bi orduz, arratsalde, egunak zehazteke. Jaioterrikoen semea bazara, hobe. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 73 49

**6. MOTORRA**

**601. SALDU**

**BMW 528i salgai.** Aire girotua, kanbio automatikoak eta CD irakurgailuarekin. 610 46 99 12

**602. EROSI**

**Karabana.** Bigarren eskuko karabana erosiko genuke. 635 20 18 56

**7. ANIMALIAK**

**703. EMAN**

**Katakumeak** ematen dira opari. Oso politak dira. 666 40 65 58

**Txakurkume polita.** Txakurkume emea, txuri-belta, txikia, bi hilabetekoa, alai, familia bila dabil. Umeentzako oso aproposa. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 661 45 02 96

**Txakurkumeak opari.** Txakurkume ematen dira opari. Ama Border Collie eta aita ezezaguna. Txakurkumeak konpromiso barik ikusteko aukera. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 663 38 40 52 edo 663 91 12 61

**8. DENETARIK**

**802. EROSI**

**Eskoriatza.** Lursaila erosiko nuke, herritik gertu. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 618 76 34 40

**Ortua.** Ortu txiki bat egiteko terrenoa erosiko nuke Aretxabaletan. 606 56 97 49

**805. TRUKATU**

**Hizkuntza trukea.** Alemaniara eskolara jasoko nituzke eta gaztelaniazkoak emango nituzke trukean. Alemaniara oinarritzko maila daukat. 663 65 76 06

**Hizkuntza trukea.** Ingelesa praktikatu gura nuke eta trukean euskara edota gaztelania erakutsiko nizuke. Aretxabaletoa naiz. Interesatuok, deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

**806. GALDU**

**Patinetea galdu.** Oxelo etxeko Freestyle patinete morea galdu genuen duela hilabete edo gehiago. Mutiko batena denez, asko eskertuko genuke aurkitu duenak bueltatuko balu. Eskerrik asko. Aurkitu baduzu deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 667 53 40 07

**9. HARREMANAK**

**904. BESTELAKOAK**

**Autoan Debagoienetik Bastidara.** Egunero autoz Bastidara joan behar dut irailtik aurrera. Inguru haietara doan norbaitekin gastuak banatu nahi ditut. Orduetgia adosteko deitu telefono honetara: 680 34 29 60

**Emakume gizon bila.** Emakume euskalduna, 58 urtekoa, gizoneko euskaldun eta, ahal bada, ezkongabe bila dabil. Deitu telefono honetara: 650 95 10 02



## ETXEKO SUKALDERAINO

## Jose Luis Azkarate | Txorbela otxoteko kidea

- ▶ Otxotean jarduteaz gain zartzuela guztietan hartu du parte
- ▶ Mondrazale eta realzale amorratu da eta txiste kontalari bikaina

## "Elkarteko sukaldean gusturago, baina etxean ere neuk kozinatzen dut"

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Ferrerias kalean jaioa da Jose Luis Azkarate (Arrasate, 1944) eta 70 urte betetzear sasoi bateko mila kontu dakizki. Musika eta kirola ditu zaletasun, eta erretiratuta egon arren ondo okupatuta dago.

**Jose Luis Azkarate, zelakoa da?**

Oso jatorra eta saltseroa.

**Ze harreman duzu sukaldearekin?**

Elkartean bazkari eta afari asko gertatzen ditut, baita etxean ere.

**Zein da zure espezialitatea?**

Kipula pastela; arbigarak, paella, bildotsa... Porru patatak eta bera-katz zopa ere bai.

**Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?**

Elkartean bazkaltzera.

**Eta zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?**

Lagunekin gustura egoten naiz, eta senideekin ere bai, semeekin eta ilobekin.

**Gastronomia elkarteko sukaldea eta etxekoa ezberdinak dira?**

Bai, elkartean sua dago eta leku zabalagoa, hortaz, gusturago. Baina etxean ere egunero gertatzen ditut bazkaria eta afaria.

**Zelatan otxotean?**

Olaizolak komentatu zidan sortzekotan zebiltzala eta ahots baxua osatzeko nirekin akordatu ziren.

**Zuen otxotea ez da zortzikotea...**

Hamabiko otxotea da. Lau ahots daude eta bakoitzean hiru gaude badaezpada, baten batek huts egingen badu. Eta gero zuzendaria.

**Otxotearen kontura hara eta hona; orain ere Granadan egon berri...**

Bai, astebete. Emazteekin joan gara eta oso gustura ibili.

**Eta zartzuelan ere hasieratik. Orain arte egin duzun gustukoena?**

Hamabosgarrena egingo dugu aurten eta guztiak politikak: *Case-*

*rio, Katuska, La tabernera del puerto...*

**Eta egitea gurako zenukeena?**

Ia 200 zartzuela daude eta guztiak politikak. *La verbena de la paloma* adibidez, baina motza da...

**Mondrako presidentea izan zinen; zer gehiago poztasunak edo burukominak?**

Poztasunak! Esan zidaten nire lana bakarrik izango zela argazkietarako jartzea eta bazkarietara joatea, eta halaxe izan zen.

**Mondrako zale amorratu. Non daude gainerakoak?**

Ez dakit... Etorriko dira bueltan.

**Realzalea; Athleticen kontrakoa?**

Kontrakoa ez; Kanpanzarretik gora ezer jakin gura ez.

**Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.**

Osasuna; Realak liga irabaztea; eta lagun asko izatea.

**Zure bizitzako anekdota bat.**

Gure etxean hamaika anai-arreba gara eta sasoi hartan, bost bat urte nituenean, gosaltzeko ez zegoen kaferik, txikoria edo bakarrik, eta azukrea ikusi ere ez. Uriona dendara joaten zen ama erosketak egitera eta malba zurizko gozokiak ekartzen zituen. Gure anaiak kontatzen du gozoki bat ahoan sartu eta kafesnea edaten zuela gosaltzeko; goxoki hori



**Lehen platera:** Entsalada epela ondoekin.

**Bigarrena:** Txipiroiak saltsan.

**Postrea:** Gatzatua eztiarekin.

**Edatekoa:** Kalimotxo.



Jose Luis Azkarate Otalora kalean. | M.A.

### "Hamabosgarren zartzuela egingo dugu aurten, guztiak politikak"

ahotik atera eta alboko anaiari pasatu eta horrek ere kafesnea edan... Hala anai-arreba guztiok pasatu arte, eta niregana iristerakoan, gazteena nintzen, goxoki zatia neuretako. Nik ez daukat gogoan baina hala dio anaiak. **Zenbat kontu sasoi hartan...** Bai... Ferreriasen guztiok genuen ezizena: *Txirripitxi, Hamalau, Pitusin, Raposo, Pankorbo, Zelaitxo* (gu gara), *Paiko...*

**Otxotean jarduteko zer da ezinbestekoa?**

Taldekieok lagunak izatea, pertsona onak, eta musika gustuko izatea.

**Damu zara...**

Piano ikasketekin ez jarraitu izana, lau urte egin nituen-eta.

**Zer errepikatuko zenuke?**

Guztia! Orain arteko guztia.

**Zerk beldurtzen zaitu?**

Hemendik joan behar izatea: neuk, etxekoek...

**Etxera iritsi, sofan eseri eta...**

Egunkaria irakurri, filmen bat ikusi, futbola... eta lo-kuluxka ere bai.

**Nora joango zinateke gustura?**

Vienara.

**Ze aholku konpartituko zenuke?**

Pertsona sanoa izateko.

## PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

## TXOKOLATE MOUSSEA

**M**ousse edo aparra jatorri frantsesa duen sukaldeko prestaketa da, nahiz eta gaur egun nazioartean ezaguna izan erabat. *Mousse* berbaren beraren esanahia *aparra* da. Zuringoa harrotze-puntuan da mousseak duen oinarria, baita irabiatutako esne krema ere. Hain justu ere, bi osagai horiek ematen diote postreari duen testura berezia. Ezagunenak txokolate moussea eta fruta moussea dira. Edozelan ere, entzutetsuak dira, baita ere, gatzdun mousseak, arrainarena edo barazkiarena, esaterako.

**Hotzetan gorde behar**

Postre honen kasuan, garrantzitsua da kontuan hartzea etxean egindako mouseen oinarria arrautza gordinak direla (gutxi egindako gorringoak). Hori horre-



Txokolate mousseari gaineratik botatzen zaio esne-gain krema. | PATRIZIA VITELLI

la, hozkailuan gorde behar dira kontsumitu arte, eta, gainera, ahalik eta lasterren kontsumitu behar dira.

**XVIII. mende erdialdekoa**

Historia luzea duen postrea da moussea. 1755ean atera zen lehen aldiz errezeta liburu batean, Menon sukaldari frantsesaren errezeta artean, hain justu. Hiru mousse

mota deskribatu zituen hark: kafe, txokolate eta azafrai mousseak. Zilarrezko edo kristalezko edalontzitzo batzuetan ateratzen ziren kontsumitzeko. Menon sukaldariak berak gomendatzen zuen edalontziok izotzetan mantenu behar zirela pare bat orduan, zeregin horretarako prestatutako latorrizko ontzi batean, harik eta kontsumitu arte.

### Fitxa

▶ Denbora: 90 minutu.

▶ Zailtasuna: ★★★★★

#### OSAGAIK

▶ Txokolate beltza, 300 g.

▶ Gurina, 125 g.

▶ Kakaoa, koilarakada bi.

▶ Sei arrautza.

▶ Azukrea, 100 g.

▶ Harrotzeko esne-gaina, 150 g.

▶ Banilla-estraktua, koilarakada bat.

(Norberaren aukeran)

### Prestaketa

**1.** Labea 150 graduan berotzen lagako dugu. Molde bat gurinez koipetuko dugu.

**2.** Gurina urtu egingo dugu, txokolatearekin eta kakaoarekin batera, maria bainuan edo mikrouhin-labean.

**3.** Zuringoak gorringoetatik bereizi egingo ditugu.

**4.** Zuringoak elur-punturaino irabiatu egingo ditugu, azukre erdiarekin batera.

**5.** Gainontzeko azukrea gorringoekin, esne-gainarekin eta banillarekin irabiatzeko erabiliko dugu, krema lortu arte.

**6.** Arrautza nahasketa biak eta txokolatea batu, eta masa moldera botako dugu.

**7.** Labean ordubetez maria bainuan egosi. Hozten utzi, eta jan!





Associated Press agentziaren egoitzetako baten sarrera. | AP

# 'Robot albistegileak' erabiliko ditu Associated Press albiste agentziak

Enpresen datuak hartu eta automatizatu sortuko dituzte albistek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Kazetarien lana errobotizatuko du Associated Press albiste agentziak. Enpresa emaitzei buruzko albiste sortak automatikoki argitaratuko dituzte enpresa-analitika konpainia baten datuak gurutzatuta. Hiru hilabeteen 4.400

albiste automatiko aterako dituzte eta arduradunek, eta, horrela, kazetariei iturri eta istorioetan sakontzeko denbora luzeagoa utziko zaiela diote.

Automated Insights enpresak sortu du teknologia eta Zack Investment Research inbertsioe-

tara eta analitikara dedikatzen den enpresaren datuak gurutzatzen ditu 150 eta 300 berba bitarteko albiste laburrak idazteko. Eskuz kazetariak hiru hilabete baten 300 albiste idazteko gauza badira, *robot albistegile automatikoak* 4.400 berri idazten ditu. Zack

agentziak dituen enpresen irabazi eta garapenari buruzko datuak hartuta, sistema gai dela esaten dute interpretazio automatikoa egin eta joerak atzemateko. Datuekin, algoritmoak erabilia segundo gutxian albistek sortzen ditu sistema horrek.

## Gobernuak 'Google tasa' presaz onarrarazi gura du

Uztailean Kongresuan plenorik ez dagoela-eta, Kultura Batzordearen saio berezia deituko du

J.B. | ARRASATE

Albiste batzaileetan hedabideetako edukiak agertzeagatik konpentsazio tasa ezarri gura du Espainiako Gobernuak, zergapekoen kontura eutsiko litzaiokeen tasa, hain zuzen. Prozesua azkartu eta Kongresuan eztabaidatu barik, uztailean bertan tramitatu gura dute, argitaletxeak, enpresak eta erabiltzaileen elkarteak aurka dauden arren.

### Presazko bidetik

Uztailean, presaz eta ezohiko bidetik, bultzatu gura du *Google tasa* delakoa Espainiako Gobernuak, Jabetza Intelektualaren Legearen zati baten moldaketaren barne. Uztailean izatea gura dute eta Diputatuen Kongresuan prozesua behartu gura dute hil amaierarako Senatura bidal dadin, tramitazioa uda ostean bukatzeko. Labor azalduta, *Google tasa*-k konpentsazio ekonomikoak planteatzen ditu editore eta argitaletxeentzat haien edukiak albiste batzaileetan erakustegatik; zerga bidez ordaindua. Espainiako Ministroen Kontseiluak otsailean onartu eta Kon-

gresuan apirilean eztabaidatu zen. Orain legearen onarpena aurreratu eta, uztailean plenorik ez dagoenez, Kultura Batzordearen deialdi berezi baten bitartez onarrarazi gura du Gobernuak, bozketarik egiteke.

Interneten babes eta sustapenerako elkarteek jada ohartarazi dute prozesuaren "ezkutukeria" dela-eta, Espainiako Internauten Elkartearen adierazpenetan, eta interes ekonomiko zehatzei erantzuten dien aldaketa izango dela salatu dute, legealdia amaitu baino lehen guztia "itxita" gera dadin. Espainiako Egunkari Argitaratzaileen Elkarte (AEDE) da moldaketa honen babesle nagusia eta aurka dauzka bestelako argitaletxeak, enpresa asko eta erabiltzaile elkarteak. Europa mailan Justizia ere ez dator oso bat Espainian ezarri gura diren neurriekin, azken epaiei kasu eginez gero, bereziki. Europako Justizia Auzitegiak erabaki du beste webgune baten libreki kontsulta daitekeen edukirako esteka ematea erabat legezkoa dela.

## Facebooken iPaderako Messenger aplikazioa kalean da dagoeneko

J.B. | ARRASATE

Azkenean, iPhoneerako eta baita gainontzeko sistemarako aplikazioa kaleratu eta hiru urtera, iPaderako beren beregi sortutako mezularitza aplikazioa eskuragarri jarri berri du Facebookek. Orain artean, iPadean Messenger aplikazioa ibili gura izan zuten erabiltzaileek iPhoneerako bertsioa deskargatu eta iPadean erabili behar izan dute, horrek dakartzan murrizketa guztiekin.


### Ezaugarri ia guztiak

Messengerrek berez dauzkan ezaugarri ia guztiekin dator iPaderako bertsioa: *sticker*-ak, talde txatetarako nabigazio

erraza, VoIP ahots deiak... Ezaugarri bakarra ez dakar, pantaila zatituarekin nor bere buruari argazkia ateratzeko aukera eta bideo azkarrak grabatzeko zerbitzua, kameran biak. Facebooken oinarritzko aplikazioaren eta Messengerren arteko komunikazioa eta elkarren arteko trukea ere modu erraz eta arinean egiten da.

### Zerbitzuak jomuga

Mezularitzan eta bertatik erator daitezkeen zerbitzuetan bete-betean sartu da jada Facebook. Albiste banaketan eta publizitatean etekinik ez dute lortu eta zerbitzu eta aplikazioen eskaintzan dabil buru-belarri.



## Martitzenetik 'roaming'-a merkeagoa da European

J.B. | ARRASATE

*Roaming*-aren prezioa merkatu eta Interneteko nabigazio prezioa %50 jaitsi da, Batasunak ezarritako legedi berriarekin. Helburua orain datu-ibiltaritzaren osoa desagertzea da. Hala, telefoniarren merkatuan erregulazioa areagotzen hasi da Batasuna merkatu bakarreko irizpideei, azkenean, men eginez.

Uztailearen lehenarekin batera sartu dira indarrean telefonia mugikorren tarifen muga berriak. Datuen deskargan iaz baino %55 merkeagoak izan beharko dute tarifek estaturik estatu-megabyteko 20 eta 45 zentimoren artean -, eta, deiei dagokienez, %21 izango da beharpena -BEZ barik 19 zentimo minutuko deia egitea eta 5-7 zentimo artean jasotzea-. Telekomunikazio Batzordeko buru Neelie Kroes diputatuak azaldu duenez, ezarpenaren lehen urratsa besterik ez da martitzenetik indarrean dena eta helburua dela ibiltaritzaren kostuen erabateko desagertzea.

## Eskaripeko emaitzak ezkututzen hasi da Google

J.B. | ARRASATE

Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia betez, hasi da Google Ahaztura Esku-bidea aitortuz eta aurrez hala eskatzen bada emaitzak kontsultatutako kampo uzten. Maiztzeke epai horren arabera, norbanakoek eska dezakete bizitza pribatuari eragiten dion zaharkitutako informazioa bilaketan emaitzetatik ezabatzen.

Google Europako agindua betetzen hasi bada ere, oso geldoa da prozesua, eskaerak banan-banan aztertzen baitabil bilaketan handikia. Ezabatze eskaera onartuz gero, emaitzaren lekuan ohar bat agertzen da, jakinarazteko balitekeela zenbait esteka legerari men eginez ezabatuak izan direla, copyright hauste kasuetan gertatzen den moduan. Dagoeneko Espainiako hedabide nagusiekin lotutako emaitzetan hasi da neurri berriaren eragina nabaritzen. Googletik ohartarazi dute areagotzen joango dela ezkutututako emaitzen kopurua datozen hilabeteetan.



## TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



## Badatoz sanferminak!

Urtero moduan, gaur egin dute Iruñean lehen entzierroa, eta, nola ez, telebista kamera ugari jarraitu dute ekitaldia. Azken urteotan bezala, TVEk dauka festa hori munduari erakusteko ardura. Horretarako, 25 kamera eta 80 profesional eroango ditu telebista publikoak, tartean 60 km/h har ditzakeen garbi-kamera berezi bat.

Telebista publikoak dituen share negargarriak kontuan izanda, urtero %70eko share bat lortzen duen ekitaldi bat emateko eskaintza oso tentagarria da. Baina sanferminek ez dute 130 milioiko zulo hori handitu besterik egingo, emaldiak ez baitu iragarkirik izango. Bien bitartean, Teledeporte katea itxi egingo du RTVEk.

Telebistako arduradunek ez dute *itxiera* hitza erabili, eta *fusio* hitza darabilte behin eta berrero, Teledeporte La2 katearekin fusionatuko omen dute-eta. Aurrerantzean, pinginoak futboleko ikusiko ditugu eta tximinoak saskibaloian.

Badirudi Espainia *cañi*-aren eredu diren erlijio eta zezenak lauk kalitatean gozatzeko krisiak ez duela garrantzirik. Hori da nik uste dudana, behintzat!

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

## ASTELEHENA, 7



## 'Harmailatik'

Arrasaten egindako auto klasikoaren erakusketa eta *show*-a ikusteko aukera izango da *Debagoiena zuzenean* saioan. | 19:30

12:00 Jaiak: San Pedro jaiak

12:45 Ibilean

13:20 Astea iruditan

13:30 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 GITBk 10 urte

15:45 Ikusmira

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:30 Amaia DJ

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

18:55 Erreportajea

19:00 Amaia DJ

19:30 Harmailatik

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harmailatik

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Ibilean

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 Harmailatik

## MARTITZENA, 8



## Mazmela auzoa

Eskoriatzako Mazmela auzoa ezagutzeko aukera izango da *Debagoiena zuzenean* saioan. | 20:00

12:00 Harmailatik

12:30 Artearen ibilbidea

13:00 7 akorde

13:30 Amaia DJ

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Harmailatik

15:30 Onein

15:55 Zorion Agurrak

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Ikusmira

17:15 GITBk 10 urte

18:00 Ikusmira

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Amaia DJ

19:30 7 akorde

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 7 akorde

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Erreportajea

23:50 Debagoiena zuzenean

00:20 7 akorde

## EGUAZTENA, 9



## Trauti elkarte

Oñatiko Trauti elkarte kideekin herrian dauden mugikortasun arazoak ezagutzeko dira saioan. | 20:00

12:00 Atik Zra

12:10 Ikusmira

13:25 Harmailatik

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Onein

15:30 Tertulia

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Amaia DJ

17:30 Jaiak: San Pedro jaiak

18:30 Berriak

19:00 Artearen ibilbidea

19:30 Harira

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harira

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Artearen ibilbidea

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Harira

## EGUENA, 10



## 'Amaia DJ'

Gaztetxoek Whatsapp, Twitter edo Tuenti bitartez eskatutako bideo klipak jarriko dira. | 19:30

12:00 Harira

12:30 GITBk 10 urte

13:15 Ibilean

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 7 akorde

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Erreportajea

17:25 Ur eta lur

18:00 Harira

18:30 Berriak

19:00 7 akorde

19:30 Amaia DJ

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Amaia DJ

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Artearen ibilbidea

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Amaia DJ

## EGUBAKOITZA, 11



## 'Berriak'

Egunean zehar Debagoienean izan diren albiste nagusiak, Monika Belastegiren eskutik. | 14:30

12:00 Debagoiena zuzenean

12:30 Ikusmira

12:45 Atik Zra

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Amaia DJ

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 GITBk 10 urte

17:45 Batelak

18:30 Berriak

19:10 Jaiak: Debagoieneko jaiak

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak

22:45 Debagoiena zuzenean

23:15 Berriak

23:45 Jaiak: Debagoieneko jaiak

00:30 Debagoiena zuzenean

## ARRASATE IRRATIA

## 'Erlea gure sendagile' liburua zozketatuko da egubakoitzean

Julio Cesarren *Erlea gure sendagile* liburua zozketatuko da egubakoitzean *Uda giroan!* irratsaioan egingo den zozketan. Liburua nahi izanez gero, hartu parte zozketan. Bide hauek dituzue horretarako: [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera bidali mezua edo bestela deitu 943 25 05 05 telefonora.

## Txatxilipurdik antolatu dituen udalekuak berbeta gai, gaur

Txatxilipurdik udako eskaintza zabala dauka haur eta gaztetxoendako eta antolatu dituen udalekuei buruz jardungo du Eneko Barberena Txatxilipurdiko zuzendariak *Uda giroan* irratsaioan. Gaur, astelehena, 11:00etan izango da elkarrizketa entzuteko aukera, Arrasate Irratian.

## Joxe Landaren eguraldi iragarpena eta igerilekuen berri

Astelehenetik egubakoitzera bitartean egiten den *Uda giroan* irratsaioan Joxe Landaren eguraldi adituak zein eguraldi egingo duen iragartzen du. Eguraldi iragarpen personalizatuak ere eskatu daitezke toki jakin batean zein eguraldi egingo duen jakiteko. Musakolako igerilekuen berri ere egunero ematen da.

## TELE-ALBISTEAK

## Elgetako eta Aramaioko jaiak emandakoa gaur Goiena telebistan

Elgetako Ferixa Nagusixa eta Aramaioko kuadrillen arteko pikea ikusgai, besteak beste

AMAIA TXINTXURRETA | ELGETA

Jaietan murgilduta izan dira eguena ezkerko Elgetan. Eta atzo, Ferixa Nagusixarekin, eman zieten bukaera jaiak. Aramaion, berriz, egubakoitzean egin zuten txupinazoa eta gaur, astelehena, izango da festan azken eguna.

Asteburuan han eta hemen jaietan gertatutakoak jasotzen izan da Imanol Gallego kazetari saltseroa, eta une politenak ikusi ahal izango dira Goiena telebistako *Debagoiena zuzenean* saioan gaur, astelehena, 20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean.

Jaiak eman dutena, telebistan

Egubakoitzean Elgetan egin zen erretiratuen eta gaztetxoendako bazkarian izan zen Gallego bertako giroa jasotzen. Aramaion jaiak hasiera nola ematen zieten jasotzen ere izan zen.

Zapatuak ere askorako eman zuten: Elgetako jaietan urterokoa den asto karrera egin zuten, soka-dantzarekin disfrutatu ahal izan zuten herritarrek eta zezenak ere egon ziren, besteak beste. Domekan, ostera, Ferixa Nagusixa egin zuten eta ganadua, artisauak, bestelako postuak... denetarik



Elgetan egunean egin zuten alkate txikia izendatzearen uean hartutako argazkia. | LARRAITZ ZEBERIO

## Jaien saio berezia egubakoitzean 19:10ean eta 22:00etan

ikusteko aukera izan zen. Aramaion, berriz, jolasparkea eta urtero egiten dituzten herri kirolak izan zituzten, besteak beste. Gaur, kuadrillen arteko pikea eta herri afaria izango dituzte, eta hori ere jasoko da.

**Egubakoitzean, saio berezia**  
Egubakoitzean, berriz, Aramaion eta Elgetako jaietako momenturik onenak eta dibertigarrienak batuko dira saio berezi batean. Ez galdu, bada, Goiena telebistak eskainiko duena.



## ZORION AGURRAK



**ANTZUOLA**  
**Xabi Alonso Berezibar**  
Uztailaren 12an, 8 urte.  
Zorionak, Xabi! Muxu handi bat Maddiren, aitaxoren eta amatxoren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



**OÑATI**  
**Ane Sagastume**  
Uztailaren 10ean, 5 urte.  
Zorionak, printzesa! Gure etxeko neska, txintxua eta beti prest laguntzeko! Muxu handi eta potolo bat aitaxoren, amatxoren, Julenen eta amamaren partetik. Mua!



**OÑATI**  
**Urko Garitano Urzelai**  
Uztailaren 10ean, urtebete. Zorionak, maittia! Urte askotarako familia osoaren eta bereziki, amatxoren eta aitaxoren partetik. Asko maite zaitugu! Milaka muxu, polittori!




**BERGARA**  
**Beñat Alberdi Lasagabaster**  
Uztailaren 10ean, 2 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat danon partetik!



**ARRASATE**  
**Maddi Calvo Ugalde**  
Uztailaren 9an, 5 urte.  
Zorionak familixaren partetik!



**BERGARA**  
**Ekaitz Unamuno Marzan**  
Uztailaren 9an, 3 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Mutil handia egiten ari zara eta hiru urte oraingoan. Belarritik tirakadak Julenen eta etxeko denon partetik.



**OÑATI**  
**Alix Biain Ugarte**  
Uztailaren 9an, 3 urte.  
Zorionak, Alix, zure hirugarren urtebetetzean. Oso ondo pasatu eta patxo handi bat familixako danen partetik.



**ARETXABALETA**  
**Lide Urdineta Zubizarreta**  
Uztailaren 9an, urtebete.  
Ze handi ein zaren, pixpirintxo! Zorionak Olabeiko danon eta, bereziki, aittejaun, amandre eta Manexen partetik.



**ARRASATE**  
**Jone Aranburuzabala Loiti**  
Uztailaren 8an, 7 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat etxekuen partetik!



**ARRASATE**  
**Iñaki Barrutiabengoa**  
Uztailaren 9an, 58 urte.  
Zorionak, aittite! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo bat etxekoan partetik.



**ARRASATE**  
**Julen Carrasco Navarro**  
Uztailaren 7an, 3 urte. Zorionak, bihotza! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu asko familia guztia partetik.



**BERGARA**  
**Jone Arrieta**  
Uztailaren 7an, 10 urte.  
Zorionak, maitxia! Ondo-ondo pasatu dezazula zure eguneko ospakizunetan. Muxu eta besarkada handi bat etxeko danen eta, bereziki, Markelen partetik.



**ANTZUOLA**  
**Ainara Etxezarreta Mugica**  
Uztailaren 6an, 3 urte. Zorionak zure urtebetetzean familiaren eta, batez ere, ahizpa Aitziberren partetik. Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat.



**ESKORIATZA**  
**Oihane Belategi Arrese**  
Uztailaren 5ean, 9 urte.  
Zorionak, Oihane! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo potolo bat familia danaren partetik eta beste bat Ametzen partetik. Aupa erreala!



**ARRASATE**  
**Sara Yan Azkarate**  
Uztailaren 5ean, 9 urte.  
Zorionak etxekoan partetik. Ondo-ondo ospatu eta patxo handi bat!



**OÑATI**  
**Andoitz Biain Gantxegi**  
Uztailaren 4an, 27 urte.  
Zorionak, artista! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat danon partetik!



**ARRASATE**  
**Olatz Martinez Zabala**  
Uztailaren 4an, 8 urte.  
Kaixo, maittia. Etxeko guztion partetik, zorionak eta ondo pasatu oporak.



**ARRASATE**  
**Eneko Abarrategi**  
Uztailaren 3an, 3 urte.  
Zorionak, Eneko! Zumarragako eta Arrasateko familiaren partetik pozik eta gustora pasa dezazula zure eguna. Mila muxu, pitxin!



**ARRASATE**  
**Antonio Prol Quintas**  
Uztailaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Egun berezia pasatu amatxorekin eta Iraiarekin. Familia guztia partetik, zorionak!



**ARRASATE**  
**Aner Barrenetxea**  
Anerrek uztailaren 2an, urtebete eta aita Manexek uztailaren 3an, urtebetetzea. Zorionak aita-semeei! Ondo ospatu zuen urtebetetze egunak! Muxu handi bat lagunaren partetik.



**OÑATI**  
**Helene Ugarte Muñoz**  
Uztailaren 1ean, 3 urte. Zorionak, bitxita! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Hiru muxu potolo etxeko danen partetik, bereziki Izar.



**ARRASATE**  
**Balda Heriz Abarrategi**  
Ekainaren 29an, 100 urte. Zorionak, tia Balda, zure 100. urtebetetzean hain ondo egoteagatik! Bihotz-bihotzez, Arantxi, Marilu eta gainontzeko senide guztion partetik. Asko maite zaitugu!



**ARETXABALETA**  
**Amaur Bergaretxe Larrinaga**  
Uztailaren 1ean, 18 urte.  
Zorionak! Hamazortzi! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bana Zaraitzuren, amatxoren eta aitaxoren partetik.



**BERGARA**  
**Lucia Robla Rodriguez**  
Ekainaren 28an, 13 urte.  
Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, *guapa!* Patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Hugoren, Danelen eta Jonen partetik!



**ARRASATE**  
**Elaia Iturbe Lopez**  
Uztailaren 2an 7 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Mila kilo zorion maite zaugun danon partetik!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurra  
bakarrik iragarriko  
ditugu.

Hortik aurrera  
jasotakoak hurrengo  
asteen argitaratuko  
ditugu.



OROIGARRIA

## Juan Mari Lezeta Abasolo



2014ko uztailaren 4an hil zen, 62 urte zituela.

---

*Beti gogoan edukiko zaitugu maitasun handiz.*

---

Etxeko Sendia.  
Eskoriatzan (Apotzaga), 2014ko uztailaren 5ean.

OROIGARRIA

## Juan Mari Lezeta Abasolo



2014ko uztailaren 4an hil zen, 62 urte zituela.

---

*Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu gure bihotzetan.*

---

Jorge, Ana Mari, Jesus Mari, Maribi, Jose Luis (+), Gemma, Amparo, Beatriz eta Esther.  
Eskoriatzan (Apotzaga), 2014ko uztailaren 7an.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

OROIGARRIA

## Juan Mari Lezeta Abasolo

Apotzagako auzoalkatea




---

*Nahiz eta gure artetik joan beti gogoan izango zaitugu.*




---

Eskoriatzako Udala.  
Eskoriatzan, 2014ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

## Juan Mari Lezeta Abasolo




---

*Uste gabe Juan zara Juan Mari maitia Momentu gogorra da benetan tristia zortzi urtez Apotzan Auzo alkatea*

*Ez degu ez ahaztuko egin dezun guztia Jaunak eman deizula betiko pakia*

---

Apotzaga elizatea  
Eskoriatzan (Apotzaga), 2014ko uztailaren 7an.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.  
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.  
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**



## JAIOTAKOAK



**Suhar Mena Morras**

Arrasate 3,720 Kilo. Ekainaren 29a. Gurasoak: Miren Maite eta Gaizka. Argazkian, Suhar txikia aita txorekin.



**Martin Uribe-Etxebarria**

Bilbo 4,350 Kilo. Uztailaren 2a. Gurasoak: Amaia eta Javier. Argazkian, Martin, amatxorekin.



**Magali Arriola Uralde**

Aretxabaleta 2,980 Kilo. Uztailaren 3a. Gurasoak: Ainara eta Ibon. Argazkian, Magali amaren besoetan.



**Malen Arribas Carrascal**

Arrasate 3,250 Kilo. Uztailaren 3a. Gurasoak: Sonia eta Alberto. Argazkian, Malen sehaskan lo.



**Sara Campos Pinilla**

Arrasate 4,200 Kilo. Uztailaren 3a. Gurasoak: Diego eta Lorena. Argazkian, Sara argi-argi.



**Iker Illarramendi Barrutia**

Azpeitia 3,550 Kilo. Ekainaren 29a. Gurasoak: Olaia eta Oier. Argazkian, Iker aitarekin.



**Ekain Rodriguez Sanzberro**

Arrasate 2,990 Kilo. Ekainaren 30a. Gurasoak: Nerea eta Fertxu. Argazkian, Ekain aitaren besoetan.



**Alana Alonso Panadero**

Aretxabaleta 2,900 Kilo. Ekainaren 28a. Gurasoak: Txabeli eta Raul. Argazkian, sehaskan lo.



**June Casares Salmon**

Arrasate 3,390 Kilo. Ekainaren 30a. Gurasoak: Susana eta Joakin. Argazkian, June jaioberria amarekin.



**Eki Morras Galarraga**

Arrasate 3,200 Kilo. Ekainaren 30a. Gurasoak: Itsaso eta Gorka. Argazkian, Eki txikia amaren besoetan.



**Arhane Martin Esnaola**

Arrasate. 3,210 Kilo. Ekainaren 27a. Gurasoak: Alain eta Idoia. Argazkian, Arhane txikia aitarekin eta amarekin.

## Jaio da!



**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

**Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik, zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA\*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30



zurekin

\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



## Ezarritako bidea jarraitu ez duen arbola

Oker irten zen zuhaitzarena ala hesia egin zuen langilearena; zeinena da argazkiko egoera zentzugabearen errua?  
[www.facebookfails.es](http://www.facebookfails.es)



## "Nire mutilak kalera aterako ditut emakumeak bortxatu ditzaten"

TAPAS PAL | INDIAKO POLITIKARIA

Tamalez, azkenaldian ohikoak bihurtu dira Indian emakumeek jasaten dituzten bortxaketen inguruko albisteak. Baina Tapas Pal diputatuak bere arerio politikoei mehatxu egiteko erabilitako hitzok entzunda, ez dirudi agintariei gehiegi inporta zaienik.  
[www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)



Max. 19°

Min. 13°

Goizean zaparradak botako ditu, arratsaldean aldiz, atertzera egingo du.  
[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2014-07-07

HAMARREKOA

**Jon Arretxe** Arbizun bizi den idazle bizkaitarrak nobela beltza eta bidaiaria literatura landu ditu gehienbat eta 'Hutsaren itzalak' kaleratu du orain gutxi, berriz ere Toure ikertzailea protagonista duen liburua | TXOMIN MADINA

## "Bisitatu nahi izan ditudan leku guztiak bisitatu ditut"

### 1. Zer kontatu gura izan duzu Toure protagonista duen hirugarren liburu honetan?

Sagako aurrekoekiko guztiz ezberdina den nobela bat egin gura izan dut. Lehena, *19 kamera*, dokumentalagoa zen; *612 euro*-n, umorearen alde egin nuen; eta azken hau beltzena da, gordinena, gogorrena.

### 2. Oraindik ezagutzen ez duenari, nola azaldu nor den Toure?

Bilboko San Frantzisko auzoko *patera pisu* baten bizi den afrikarra da. Iruzurti hutsa den arren, igarle boteretsua dela esango du, eta gero, pixkanaka, detektibe antzerako zerbait bihurtuko da.

### 3. Hain berezia den pertsonaia sortzeko, zein da lehen urratsa?

Orijinala izan gura nuen, horregatik bururatu zitzaidan gure arren bizi den afrikarra izatea. Gordinetasuna eta umorea uztartuz, pertsonaia sinpatiko bat sortzen saiatu nintzen. Asko estimatzen dut Toure, beragan sinesten dut.

### 4. Nobela beltzaz gain, bidaiaria literatura lantzea ere gogoko duzu.

Lehen, nire liburu denak ziren era horretakoak eta nobela beltzarekin hastean ere, bidaiaria nobela beltzak ziren, atzerrian kokatzen nituen-eta. Azkenek ere ukitu hori dute: San Frantzisko Afrika txikia da.

### 5. Etxetik mugitu gabe bidaiatzeko liburu bat gomendatzekotan...

Ryszard Kapuscinskiren *Ebano*; barruraino heldu zitzaidan eta Afrika asko estimatzen dut, gainera.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Neuretzat erabiltzekotan, ondo ezkutatu nuke, eta behar dudan egunean atera; izan ere oso zoriontsua naiz"

AGM

### 6. Zu zeu, egon zara gura izan duzun leku guztietan?

Bai. Pribilegiatu bat naiz, bisitatu nahi izan ditudan leku guztiak bisitatu ditut: leku batera joateko gogoia izan dudanean, joan naiz. Azken bidaiak idazteko helburuarekin egin ditut.

### 7. Helmuga edozein dela ere, zer aholkatuko zenioke bidaiari bati?

Beti errespetuz jokatzeko. Jarra izan dadila ezer egin edo esan aurretik begiratzea, aztertzea, oso erreza da-eta hanka sartzea. Tentuz jokatu behar da beti.

### 8. Idazteaz gain, baduzu beste gustuko jardunik: opera abestea, esaterako.

Idazlea eta bidaiaria baino lehen, musikaria izan naiz, sei urterekin hasi nintzen-eta. Inoiz ez dut izan ogibide, baina hamar urte daramat nahiko serio abesten, lehen Bilbon eta orain Nafarroan. Bakarka ere banabil; primeran pasatzen dut.

### 9. Heziketa Fisikoko ikasketak dituzu eta pianoa ere ikasi zenuen. Kirola eta kultura ez dira aurkakoak?

Ez horixe! Gehitu egin behar da, ez biren artean aukeratu. Oso tristetia iruditzen zait bizitzan gauza bakarra izatea; bizitzak aprobeztatzeko gauza eder asko ditu.

### 10. Egongo da harrutuko denik Basauriko batek euskaraz idazten duelako.

Hori ezjakintasuna da askotan: Basaurin milaka euskaldun daude, baina sakabanatuta.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



ad-ark-ad-ak

ruñean, honezkero, zezenek lehen adarkadak emanak dituzte; halere, tira: gora Sanfermin! Euskal Herri sufritu honek bere egunerokoan jaso behar izan dituenak ez dira makalagoak, ziurrenik. Eta zauriak zauri, biziraun egiten dugu; Sanferminak gure bizitza nazionalaren paradigma: adarkada batzuk jasoarren, ondo pasa. Izan ere, hainbeste urte, adostasun bila saiatu ondoren gure esku dagoela deskubritu dugu, baina Igeldo edota Itziar auzo ala herri gisa antolatuta behar diren erabaki ezinik gabiltza.

Eta zer pentsa, epaile espainol txit goren batek, euskal presoie ezarritako zigorrak, "berezi handiak, neurritz kanpokoak eta gainerakoekiko erabat desberdinak" izan direla eta "justizia ez da mendekua" esan eta 10 hiritar euskaldun, tarteen euskal presoan 4 abokatu, ETAko "frente juridikoa" osatzen dutela eta auziperatu egiten dituztenez? Justizia ez da mendekua, konforme, baina mendekua injustizia da. Israelen eta hemen;

.eus!!!; lorpen oso garrantzitsua euskal komunitatearentzat baina Uztaritzeko udalak, euskara hizkuntza ofizial deklaratzeko hartu duen erabakia indargabetzeko ekimenak hasi ditu Suprefetak.

Egia galanta, Mark Kurlansky-rena: "espainolek, (eta frantsek ere) euskaldunak beraiek bezalakoak izan daitezzen nahi dute". Ba ez; gu .eus.

**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK  
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: [euskalduna@harrespil.net](mailto:euskalduna@harrespil.net)